Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

# *Urretxu*

Aurkibidea

## Udalerria: Urretxu

### Sarrera



Gipuzkoako barrualdean kokaturik dago Urretxu herria; Urola Garaia eskualdean, Zumarraga, Legazpi eta Ezkio-Itsasorekin batera. Jose Mari Iparragirre abeslari herrikoiaren jaioterria.

*Argazkia: Urretxuko Udala.*

- **Biztanleak**: 6.926
- **Euskaldunak**: %54,6

### Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **50**
- Zintak: **63**
- Pasarteak: **652**
- Transkribatutakoak: **26**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **519**

### Proiektuak

- 101L - Bertakotzen Urretxu-Zumarraga
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gazte gara gazte
- Gure Nagusiak - Urola Garaia: Mende bat iruditan
- Legazpiko ahotsak
- Lekaio Elkartearen grabazioak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- Urretxu eta Zumarragako ahotsak
- Urretxu eta Zumarragako euskara

## Hizlariak

**Euxebi Aiastui** (1912-2002)

Mendizabal baserrian jaioa.



**Inazio Aizpuru Aranzadi** (1920-2011)

Azpeitian jaio zen, baina gazterik iritsi zen Urretxura. Bertan ezkondu zen, Zumarragako Maria Zalduarekin. Zinegotzi izan da.

**Joxe Alberdi** (1949)

Beainaurrekoa baserrian jaioa, elkarrizketan bere emaztea ere ageri da, Frantziska Errasti (1931) antzuolarra.

**Julian Alberdi** (1921-2005)

Eitza auzoan jaio zen, Zumarragan. Elkarrizketan bere emaztearekin agertzen da, Presen Sasieta (1928), Deskarga auzoko Santiñe baserrikoa.

**Luziano Antia Askasibar** (1939)

Urretxuko Gerra baserrian jaio zen 1939an, eta bertan bizi izan da beti.

**Joxepa Antoni Arakama Zaldua** (1919-2011)



Elorriagaazpikoa baserrian jaio zen. Aita Zegamakoa zuen, Kubako gerran ibilitakoa. Eitzagara ezkondu zen. Gaur egun herriak janda dauka Eitzaga, baina orain dela 60 urte baratzeak eta soroak ziren nagusi, eta etxe gehienetan ardiak edo behiak zituzten.

**Maria Aranburu** (1914-2008)



Gerra baserrian jaio zen. Labeagako mojekin ikasi zuen denboraldi batez, baina laster jarri zen umezain Urretxuko sendi batean. Ondoren Azkoitiko Zalduntxoen jauregira joan zen lanera, Hurtado de Mendozatarren jauregira, protokoloa eta zeremoniak nagusi ziren etxera. Ramon Soraluzerekin ezkondu zen, eta Urretxun bizi izan dira.

**Eusebio Areizaga Beain** (1935)



Urretxuko Etxaburu baserrian jaio zen 1935ean. Eskolan ibili zen sei urte zituenetik hamasei zituen arte, baina bere ikasturtea gainerako ikaskideena baina motzagoa zen, udaberrian baserrian lan asko zegoelako. Hamasei urte zituela, Urretxuko Rodríguez lantegian hasi zen lanean; baina 1961ean lantegitik alde egin zuen, beste lankide batzuekin batera kooperatiba bat eratuz. Kooperatiban, giroa txartu egin zen eta Eusebiok bere kabuz oilategi bat jarri zuen bere jaiotetxearen ondoan. Erretiroa heldu zitzaion arte, bere oiloak zaintzen eta herriko etxeetara arrautzak eramaten ibili zen.

**Felipe Areizaga Beain** (1921-2013)



Urretxuko Etxaburubekoa baserrian jaio zen 1921ean. 8 anai-arreba ziren familian. Aita Etxaburu bertakoa zuen; eta ama, Brinkolako Agerrezabal baserrikoa. Baserriko bizimodua eraman izan du beti, nahiz eta etxetik kanpo morroi-lanetan aritu zen osaba-izeben etxean, Legazpin. Soldadutzatik libre geratu nahian, Aparizio lantegian hasi zen lanean Zumarragan bonbak egiten; baina ez zuen zorterik izan, eta 3 urtez Ferrolera joan beharra suertatu zitzaion. Itsas armadan aritu zen. Basoan egurretan eta bideak egiten aritu izan da lanean; Zumarragako Santa Barbara bidea egiten aritu zen. Soldadutza ostean, Gabilondo zerra-lantegian egin zuen lan. 1954an ezkondu zen Etxaburu bertara, eta 5 seme-alaba izan zituen.

**Seberiana Areizaga Beain** (1937)



Seberi Urretxuko Etxaburu baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa; eta ama, berriz, Brinkolakoa. Umetan, Santa Barbarako eskolan ibili zen, baserritarren semeak joaten ziren hara, eta euskaraz izaten ziren ikasgaiak. 12 urterekin herriko mojen eskolan hasi zen. Herrian, euskara oso gutxi hitz egiten zen eta Seberik hainbat iseka entzun behar izan zuen euskara gaztelera baino hobe menperatzeagatik. Baserrian lan asko egin zuen, baina neskame ere ibili zen Agineta aizkolariaren eta Elena farmazialariaren etxean. 25 urte zituela, Avelino Garraldarekin ezkondu zen eta Urretxuko San Martin auzora joan ziren bizitzera.

**Zesarea Areizaga Beain** (1926)



Urretxuko Etxaburu auzoan jaio zen 1926an. Aita Etxaburukoa zuen, eta ama Legazpiko Brinkola auzokoa. Baserrian bizi izan da beti, etxetik kanpo neskame-lanetan ibilia bada ere. Eskolan, Urretxuko mojetan ibili zen, 7 urterekin hasi eta 9 urtera arte. Komunio handia egiteko, eskola utzi zuen eta doktrinan aritu zen buru-belarri. 12 urte zituela, Brinkolako Zelanda baserrira joan zen neskame; eta, 14 urterekin, atzera etxera bueltatu zen. Amarekin batera, Zesarea zen baserriko martxa eramaten zuena, esnea saltzera berarekin joaten baitzen kalera. 21 urterekin, Legazpiko Elbarrena auzoko Mendizabal baserrira ezkondu zen.

**Maria Jesus Arrieta** (1935)

Erratzugoikoa baserrian bizi da. Hiztun ona. Bere ilobak grabazio bat egin zion EHUn ikasle zela. Eta Xabier Lasak beste zenbait grabazio "Urretxu eta Zumarragako Euskara" libururako.

**Pakita Arrieta** (1920)

Amezketan jaio zen, eta urte batzuetan Aian bizi izan zen. Hala ere, gazterik iritsi zen Urretxuko Iturbe baserrira bere familia osoarekin. Gaztetan artzain ibilitakoa da. Gerora, Orbegozo fabrikan ere egin zuen lan. Urretxun bertan ezagutu zuen Pako Peñagarikano (1920), eta berekin ezkondu zen. Elkarrizketa biei batera egin zitzaien "Gure nagusiak" libururako.

**Luis Berriotxoa** (1913-2012)

Urretxun jaio zen. Gurasoak Erratzu baserrikoak zituen. Aita hargina zen. Ondo jabetzen da zeinen ezberdinak diren bere haurtzaroko Urretxu eta gaur egungoa. Juana Segurolarekin ezkondu zen, eta biei egin zitzaien elkarrizketa "Gure nagusiak" libururako.

**Euxebio Betegi Aiastui** (1944)



Urretxuko Beidakar baserrian jaioa 1944an. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, Agarrekoa. Eskolan Santa Barbaran ibili zen. Baserritik bizi izan da beti, tailerrean lanean ibilia bada ere. Elkarrizketetako batean, Urretxuko Deskargabarrena baserriko Joxe Leundarekin batera azaltzen da. Lekaio Elkarteko kideek egindako elkarrizketetan, berriz, Juan Pedro anaiarekin eta Begoña Izagirre koinatarekin batera.

**Juan Pedro Betegi Aiastui**

Urretxuko Beidakar baserrian jaioa. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, Agarrekoa. Lekaio Elkarteko kideek Euxebio anaiarekin eta Begoña Izagirre emaztearekin batera egin zioten elkarrizketa.

**Pello Biain Peña** (2002)



Urretxun jaioa, guraso biak Urretxu-Zumarragakoak ditu. Amaren aldeko aitona-amonak, berriz, bata Zamorakoa eta bestea Extremadurakoa. Gainzuri ikastetxean egin zituen oinarrizko ikasketak, eta elkarrizketaren unean Irakasle ikasketak egiten ari zen, HUHEZIn. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatua, bere aitona Manuel Peñarekin batera, familiak euskarara hurbiltzeko egindako ibilbidea jasotzeko asmoz.

**Joxe Migel Elgarresta**

Urretxuko Donardegi baserrian jaio zen, eta bertan bizi izan da. Lurdes Mintegi emaztearekin batera egin zitzaizkion hainbat elkarrizketa.

**Pakita Errasti Loiti** (1931)



Antzuolako Iribar baserrian jaio bazen ere, 7 urte zituela, Urretxuko Beain baserrira joan zen bizitzera. Ama Antzuolako Arluz baserrikoa zuen; eta aita, Aramaiokoa. Eskolan, Antzuolan ibili zen aurrena; baina, 7 urte zituenetik 14 urte bete zituen arte, Urretxuko mojetan ibili zen. Eskola bukatu zuenean, Urretxuko artile-lantegiaren jabe zen Ugalde familiaren etxean aritu zen neskame urtebetez. Lan hura utzi eta Zumarragako "Correos"en aritu zen 8 urtez. 31 urterekin ezkondu, eta herrira joan zen bizitzera. Urretxuko hainbat kontu aipatu zizkigun elkarrizketan.

**Migel Etxaniz** (1924-2014)

Urretxuarra, baina Zumarragako Eitza auzoari oso lotuta bizi izan da beti.

**Asun Guridi Ugalde** (1937)



Segurakoak zituen gurasoak, bera Idiazabalen jaio bazen ere. Izan ere, bere aita bidezaina zen, eta toki batetik bestera mugitzen ziren: lana non, beraiek hara. Horrela, Asun oraindik haurra zela, Urretxura joan ziren bizitzera. Urretxuarrek beti "Azeribuztan" deitu izan dioten arren, bere gaztaroko oroitzapenak Urretxun ditu.

**Gorka Hermosa Sánchez** (1976)



Urretxun jaioa, Iparragirre kalean, sei urterekin Zumarragara joan ziren bizitzera. Ama Extremadurakoa dauka eta aita Segoviakoa. Arreba bat dauka. Nahiz eta gurasoek euskaraz ez jakin, ikastolan ikasi du eta euskaldun sentitzen da. Konpositorea eta akordeoi jotzailea da. Oso gaztetatik sariak irabazi ditu, eta gaur egun famatua da mundu mailan: batetik bestera ibiltzen da, kontzertuak ematen. Herrian bertan hasi zen musika ikasketak egiten, eta Gasteizen jarraitu zuen goi mailako akordeoi ikasketekin. Ondoren, Valladolideko konserbatorioan hasi zen, klaseak ematen. Gaur egun Cantabrian bizi da: Santanderko musika konserbatorioan egiten du lana, irakasle moduan. Bi alaba ditu eta euskaraz hitz egiten du beraiekin. Hainbat disko dauzka eta zazpi liburu idatzi ditu (akordeoiaren historiari buruz, besteak beste). Hezurbeltzak musika taldeko kidea da, Jon Maiarekin batera. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatu genuen, bere ama Ana Sánchezekin batera.

**Begoña Izagirre Aiastui**

Urretxuko Ipeñarrieta baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen, eta ama Beidakar baserrikoa; biak urretxuarrak, beraz. 13 anai-arreba ziren sendian. Juan Pedro Betegi senarrarekin eta Euxebio koinatuarekin batera egin zitzaizkion hainbat elkarrizketa.

**Inazio Izagirre Aiastui *Ipeñarrieta*** (1938)

Ipeñarrieta baserrian jaioa, Urretxun, 1938. urtean. Aita bertakoa zuen, eta ama Beidakar baserrikoa.13 anai-arreba ziren sendian. Oso hiztun ona, baserriko mundua zoragarri ezagutzen du. Beti izan da erreferentzia Urretxuko hizkera eta historia jasotzeko proiektuetan.

**Isabel Izagirre Aiastui** (1936)



Urretxuko Ipeñarrieta baserrian jaio zen 1936an. Aita bertakoa zuen, eta ama Beidakar baserrikoa; biak urretxuarrak, beraz. 13 anai-arreba ziren sendian. Eskolan Urretxuko Santa Barbara auzoan ibili zen aurrena, eta gerora Don Mateorekin eskola partikularrean, gaztelaniaz ikas zezan. Urretxuko Villar Alvarezekin aritu zen josten ikasten. 20 urterekin neskame joan zen Zumarragako albaitariaren etxera; eta 23rekin, ahizparekin batera, Zestoako Hotel Irurera. 27 urterekin ezkondu zen eta Urretxun bizi da.

**Kaxiano Izagirre Aiastui** (1944)

Ipeñarrieta baserrian jaio zen, baina kalean bizi izan da. Aita Ipeñarrietakoa bertakoa zuen, eta ama Beidakar baserrikoa; biak urretxuarrak, beraz. 13 anai-arreba ziren sendian. Zumarraga eta Urretxuko euskara biltzeko lanean bere anai-arreba Inazio eta Ixabel ere elkarrizketatu ziren.

**Mariano Izagirre Lakunza** (1937)



Mariano Urretxuko Deskarga baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, nafarra, Lizarragakoa. Umetan, Santa Barbarako eskolan ibili zen. Eskola hartara, baserritarren semeak joaten ziren, eta euskaraz ematen zituzten ikasgaiak. Komunio txikia egin eta herriko eskolara aldatu zen; bertan ikasi zuen gaztelera. 14 urte zituela, Zumarragako Orbegozo lantegian hasi zen lanean, eta bertan ibili zen aurre-erretiroa hartu zuen arte. Urretxuko baserri-giroko hainbat kontu aipatu zizkigun elkarrizketa egunean Marianok. Bigarren elkarrizketa bat egin genion bere anaia Paulorekin batera.

**Paulo Izagirre Lakunza** (1943)



Paulo Urretxuko Deskarga baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, nafarra, Lizarragakoa. Umetan, Santa Barbarako eskolan ibili zen. Eskola hartara, baserritarren semeak joaten ziren, eta euskaraz ematen zituzten ikasgaiak. Paulok Urretxuko baserri-giroko hainbat kontu aipatu zizkigun elkarrizketako egunean, bere anaia Marianorekin batera. Argazkian, eskuinaldean agertzen da Paulo.

**Jone Garbiñe Izagirre Telleria** (1935)



Urretxuko Santakutz baserrian jaio zen 1935. urtean. Bost senide izan ziren. Gurasoak baserrian bakarrik ez uztearren, etxera ezkondu zen Ordiziako Jose Latorrerekin.

**Maria Izagirre Telleria** (1930)



Urretxuko Santa Kurutz baserrian jaio zen 1930ean. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, Deskarga baserrikoa. 5 anai-arrebako sendia zuen. Eskolan 6 urterekin hasi zen, hasieran mojeta eta gerora Santa Barbaran. 10 urte zituenerako, eskola utzi zuen eta esne-saltzera joaten zen etxez etxe. 16 urte zituela, josten ikasten hasi zen Urretxuko denda batean. Neskame-lanetan aritu izan da gehienbat: besteak beste, Urola hotelean eta Badiolarenean. Gabiriako Zandategi baserrira ezkondu eta 3 seme izan zituen.

**Khalila Lamkhanter Ouafa** (1989)



Fraita herrian jaio zen Khalila, Marokon. 3 urterekin amarekin eta anai-arrebekin Markina-Xemeinera etorri zen bizitzera. Aita urte batzuk lehenagoa etorria zen: etxez etxe galtzerdiak, erlojuak eta halakoak saltzen hasi zen, eta gero azokan, alfonbrak, eta azkenik dendak zabaldu zituen. Durangon, Eibarren eta Ordizian ere bizi izan da. Azken urteetan Zumarragan bizi da, senarrarekin eta bi seme-alabekin. Euskara txikitatik ikasi du eta euskalduna sentitzen da. Bere eguneroko bizitzan gero eta gehiago erabiltzen du euskara. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatua.

**Luzia Larraza Aramendi** (1934)



Soraluzeko Erlain etxean jaio bazen ere, 9 hilabete zituela joan zen Urretxuko Mañari baserrira bizitzera. Ama Ezkio-Itsasokoa zuen; eta aita, eibartarra. Aitak Urretxuko Aparizio lantegian egin zuen lan; eta, gerra heldu zenean, Valentzia aldera alde egin behar izan zuen. Aita itzuli zen arte, ama eta amonarekin bizi izan zen Luzia Mañarin. Gerora, Ataungo izeba-osaben etxean egin zituen urte batzuk, baina komunio txikia egitera Urretxura bueltatu eta Zumarragako mojen eskolan hasi zen ikasten. 13 urte zituela, neskame joan zen Urretxuko Lizatxu errotara; eta, 19 urte bete zituenean, bertan morroi zegoen mutilarekin ezkondu zen.

**Joxe Leunda Agirre** (1937-2020)



1937ko urrian, Urretxuko Deskargabarrena baserrian jaioa; 7 senidetan gazteena. Aita Ezkioko Aranzadi baserrikoa zuen, eta ama Beasaingoa. Baserriko bizimodua gertutik ezagutu zuen eta elkarrizketan alor horretako zenbait gai azaldu zizkigun. Elkarrizketetako batean Urretxuko Begibakar baserriko Euxebio Aiastuirekin batera agertzen da.

**Jon Maia Soria** (1972)



Urretxun jaioa. Gurasoak kanpotik etorri ziren: ama Extremaduratik eta aita Zamoratik. Aitak euskara ikasi zuen, semeari hitz egin ahal izateko. Mutikoa zela, familia Zumaiara joan zen bizitzera. Ikastolan ibili zen eta bertso-eskolan ere bai, giro erabat euskaldunean. Ondoren Euskal Filologia ikasi zuen, Gasteizen. Bertsolari ezaguna da (lau aldiz iritsi da Euskal Herriko Txapelketa nagusiaren finalera) eta beste hainbat bide ere jorratu ditu: idazlea da, abeslaria, abesti letragilea, dokumentalgilea, irakaslea, komunikabideetako kolaboratzailea... Besteak beste, *Riomundo* eta *Berriak jaio ginen* liburuak idatzi ditu. Karidadeko Benta (2003-2007) eta Hezurbeltzak (2018) musika-taldeen sortzaileetako bat da, eta "Kantu bat gara" proiektua ere abiatu du. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatu dugu. Hezurbeltzak taldeko Gorka Hermosa ere elkarrizketatu dugu.

**Juan Mendiaraz Larrañaga** (1929)



Urretxuko Iparragirre kalean jaioa 1929an, 4 senide ziren familian. Aita Antzuolakoa zuen, eta ama bergararra. Gerra ostean zegoen gosetea zela-eta, gaztaroa osaba-izeben etxeetan pasa zuen: Beasainen, Iturrazpe etxean; Elosuan, Lutxurdion; eta Antzuolan, Jauregin. Urretxuko eskola nazionalean ibili zen, eta geroago, udaletxeak jarritako eskolan. 12 urterekin mezalagun bidali zuten Getxoko Neguri auzoko komentura: han, egunean, 5 mezatako mezalagun-lana egiten zuen. Fraide izateko gogorik ez, eta atzera Urretxura itzuli zen. 13 urte zituela, Madaia lantegian hasi zen lanean; urte eta erdi egin zuen bertan; eta, horren ondoren, Orbegozo lantegian aritu zen. 1955.urtean, bere lantegia zabaldu zuen beste bi bazkiderekin batera; eta galdaragintza- eta txapisteria-lanak egiten zituzten bertan, Ema lantegian. 25 urte egin zituen han lanean; eta, gerora, bi semeekin poliesterra lantzen hasi zen. Erretiroa hartu zuenean sortu zitzaion danbolinak egiteko ideia; eta elkarrizketa egin zitzaion sasoian ere, horretan zihardu en. Azokatan eta etxeetan saltzen ditu danbolinak. Era berezia dauka danbolinak egiteko, motordunak egiten baititu; elkarrizketan prozesu hori azaltzen digu.

**Maripaz Mercero** (1938)

Guraso biak Urretxukoak zituen. Lau senidetan bigarrena. Urretxun eta Donostian bizi izan da.

**Lurdes Mintegi Mendizabal**

Urretxuko Donardegi baserrira ezkondu zen eta bertan bizi izan da ordutik. Joxe Migel Elgarresta senarrarekin batera egin zitzaizkion hainbat elkarrizketa.

**Manuel Peña Fernandez** (1939)



Villanueva de las Peras herrian jaioa, Zamorako probintzian. 16 urterekin Zumarragara joan zen, lan bila: arreba bertan zegoen ordurako, ezkonduta. Orbegozo lantegian egon zen lanean hasieran, eta gero Muelles y Aceros Eguzkia lantegian. Extremadurako emakume batekin ezkondu zen, eta Aizpurutxoko tren geltokian bizi izan ziren, trena kendu zuten arte. Gero Zumarragara joan ziren bizitzera. Manuelek ez zuen euskara ikasi, baina bere seme-alabek euskara jakitea garrantzitsua iruditu zaio beti. Seme-alabek eta ilobek euskara ikasi zuten. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatua, Pello Biain bilobarekin batera.

**Pako Peñagarikano Otegi** (1920-2008)

Larraulgo Argibel baserrian jaio zen, baina gerra ostean Urretxura iritsi zen lanera. Lanbide askotan jardundakoa da: Gerra Errotako harrobietan, tren-geltokian eta, batez ere, Orbegozo lantegian. Urretxun ezagutu zuen Pakita Arrieta (1922), eta harekin ezkondu zen. Elkarrizketa biei batera egin zitzaien "Gure nagusiak" libururako.

**Jon Plazaola Larrañaga *Johnny Platz*** (1982)



Urretxun jaioa. Ama Ezkiokoa du, aita urretxuarra zuen, eta bere idoloa zen aitona, berriz, Azpeitikoa zen: Juan Larrañaga uztarrigile eta txiste kontalaria. Bi anaietan zaharrena da Jon. Aktorea, gidoigilea eta telebista aurkezlea. Umetatik du imitazioak egiteko eta txisteak kontatzeko zaletasuna. Arte Ederrak ikasten hasi zen arren, laster beste bide bati ekin zion: umorezko balkarrizketak egiten hasi zen, bere kontura, eta horrek EiTBra eraman zuen, umoregile eta aurkezle lanetara batik bat. Geroztik hainbat programatan hartu du parte gidoilari, aurkezle, aktore eta zuzendari bezala. Zinemako gidoigile ikasketak egin zituen, Madrilen. Antzerkia, telebista eta zinema, hirurak ezagutu ditu gertutik. Besteak beste, *Allí abajo* telesail arrakastatsuko protagonista izan zen. Elkarrizketaren unean (2020ko abenduan) ETB-1eko *Barre Librea* programan zebilen lanean, bi antzezlanekin esku artean eta *Madres* telesailaren 3. denboraldian parte hartzeko gertu. Bere ibilbidideari eta bizitzari buruzko elkarrizketa egin genion.

**Margarita Plazaola Murua** (1927)



Margari Urretxuko Kaminpe baserrian jaio zen; aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Urretxuko Donardegi baserrikoa. Urretxuko mojen eskolan ikasi zuen; eta dotrinan ere ibili zen. Hala ere, dotrina erdaraz ematen hasi zirenean, utzi eta etxean ikasi zuen. Bere jaiotetxean denetik zegoen eta inoiz ez zitzaien jana falta izan. Lana ere egin behar izaten zuten, baina Margarik lortzen zuen erromeriatara joateko denbora ateratzea, dantza egitea asko gustatzen baitzitzaion. Herrira ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituen.

**Inazio Salaberria Beain** (1933-2011)

Erratzugoikoa baserrian jaio zen 1933an.

**Kandido Salaberria Beain** (1937-2001)

Urretxuko Erratzu baserrikoa, 1937an jaio zen. "Urretxu eta Zumarragako euskara" libururako elkarrizketatu zuten.

**Jexuxa Salegi Oruesagasti** (1921)



Jexuxa Urretxuko kale-etxe batean jaio zen; aita-amak Azpurutxukoak zituen, lan egitera Urretxura joandakoak. Eskolan Urretxun ibili zen, baina asko galdu zuen; izan ere, ama gaizki zuen eta hura zaindu beharra izaten zuen. Hamalau urte zituela, Urretxuko Ugalde lantegian hasi zen lanean; urte batzuk bertan egin, eta berriro ere etxera bueltatu zen ama zaintzera. Hogeita bi, urterekin Ramon Esnaola musikariarekin nobio hasi zen, urtebetera ezkondu eta bi alaba izan zituzten.

**Ana Sanchez Tena** (1952)



Higuera de la Serenan jaioa, Badajozko probintzian. 3-4 urterekin Olmos de la Esguevara joan ziren bizitzera (Valladolid). Bost anai-arreba dira. Han 16-17 urte bete arte egon ziren, eta familia osoa Antzuolara joan zen bizitzera. Gurasoek osasun arazoak zituzten, eta zaila zen haientzat nekazaritzan lan egitea. Horregatik erabaki zuten Antzuolara joatea: osaba bat zuten han, Bergarako torloju tailer batean lanean, eta anai-arrebetako batzuk (Ana bera ere bai) bertan hasi ziren lanean. Handik gutxira, Telefonicako zerbitzuaren ardura eskaini zieten, Antzuolan: etxea Telefonicarena zen, eta familia guztiak egin zuen lan bertan. Anak ez zuen euskaraz ikasi (ahizpa txikiak bai). Ezkondu, eta Urretxura joan zen bizitzera. Bi seme-alaba izan zituen eta hasieratik argi zuen euskaraz egingo zituztela ikasketak eta euskaldun izango zirela. Gorka Hermosa semearekin batera elkarrizketatu dugu, Bertakotzen proiekturako.

**Ixiar Sasieta**

**Presen Sasieta** (1928)

Urretxuko Deskarga auzoko Santiñe baserrian jaioa. Elkarrizketan bere senarrarekin agertzen da, Julian Alberdi (1921), Zumarragako Eitza auzokoa.

**Miren Sasieta Aierbe** (1933)



Urretxuko Zabaleta baserrian jaio zen Miren. Lau senidetan gazteena zen, alde handia zuen gainera anaia gazteenarekin. Gurasoak baserritik bizi ziren. Zabaleta baserriak jauregi egitura zuen. Mirenen birramona jaio zen Zabaleta baserriaren aldamenean zegoen etxetxo batean. Ziurrenik, jauregia zaintzeko kargua izango zuen bere sendiak. Santa Barbarako eskolan hasi zen Miren zazpi urterekin. 16 urte zituela hasi zen Zumarragako Urola hotelean lanean eta hura izan zen Mirenen benetako eskola. Oso oroitzapen onak ditu.

**Juana Segurola** (1915-2007)

Igaraberri baserrian jaio zen, Zumarragan, baina Urretxuko Pagoeta baserrian hazi zen. Apariziorenean egin zuen lan. Luis Berriotxoarekin ezkondu zen, eta biei egin zitzaien elkarrizketa "Gure nagusiak" libururako.

**Ramon Yurrebaso Lizarralde** (1927)



1927an jaio zen Aitxu baserrian. Aita bizkaitarra zuen, Igorrekoa; eta ama, berriz, Zumarragako zentralekoa. Zortzi anai-arreba ziren sendian. Umetatik baserriko bizimodua bizi izan du; eta oso gaztea zela, morroi bidali zuten Agiñeta auzoko Urdanbieta baserrira. Bederatzi urte zituela, Agiñetatik kalera jaisten zen esne-saltzera. 11 urterekin etxera bueltatu zen, eta 10 hilabetez "hermano"etan ibili zen eskolan; baina gerora, atzera Agiñetako beste etxe batera joan zen morroi. Morroi egon zen baserri hartako Bautistak egurra txikitzen ikusi zuen Ramon, eta hark bultzatuta hasi zen aizkoran. Urrestillako Keixeta ospetsua izan zuen maisu, besteak beste. Hainbat apustu jokatutakoa da eta aizkolari handienekin plazaz plaza urte askoan ibili izan da.

# Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## 1. Baserria

### 1.1. Odolkiak egiten zituzteneko ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Telleria, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-025/020
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:24:45. **Bukatu**: 00:25:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Odolkiak egindakoan, eskegi egiten zituzten. Odolkiak inguruko baserrien artean banatzen zituzten: "odolkiak ordainetan".

**Transkripzioa**
-Eta odolkik egindako garaien nun jartzen zenituzten.
-Isegitta, sukalden edo beste lekun bat baldin bazeon, rekozina bazeon rekozinan, baiño isegitta dana. Txorixok indakoan'e bai. Eskuz dana txorixoa.
-Dana eskuz?
-Dana eskuz. Txikitu ta sartu ta dana. Baiño txorixoa gozoa hura zan. Hori hemen eitten gendun. Dana eskuz. Guk makinakin ez gendun eitten.
-Eta txikitu?
-Eskukin dana. Ahal dan txikiña kutxillokine ta gero aizkorakin matxaka...
-Eta gero bazenduen ohitturaik baserrietara (eramateko)?
-Odolkik. Odolkik partitzeko, bai.
-Nola deitzen ziozun ohittura horri?
-Horri nola esaten zitzaion? "Odolkik ordaiñetan". Zuk eramaten zendun hemendik beste etxe hortara odolkik eta gero harek [egiten] zonen gurea ekartzen zuen. "Odolkik ordaiñetan". Odolkik eta haragi puxketa bat igual.
-Auzoko etxetara izaten edo aparte ere bai.
-Ez, aparte ez. Familiarren bati igual. Baiño bestela ez. Auzokoai.

### 1.2. Ardiak zaintzeko pazientzia

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Telleria, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-025/025
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:33:03. **Bukatu**: 00:34:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Ardi muturgorriak edukitzen zituzten. Behin ardi elbarria hazi zuenekoa gogoan du; nola zaintzen zuen aipatzen du.

**Transkripzioa**
-Zer ardi klase eukitzen zenduen?
-Ba, eozein ardi. Etxen arkumakin hazi ta. Nik arkumak hazi ta.
-Mutur gorriak edo mutur beltzak?
-Gorrik jeneralen. Gorrik gustatzen zitzaian. Mutur beltza da Aizgorrikoa, ta Aralarrekoa mutur gorrie da.
-Eta zergatik?
-Ez dakit. Nei gehiao gustatzen zitzaian mutur gorrie. Baiña jeneralen arkumak etxen hazi eta arkumatik utzittako ardik eukitzen genitun. Beste arkuma bat jaio zan inbalidoa, ez zan zutik eoten, eta karboneran, hemen ez , beste sukalde bat gendukan lehenao, karbonera gaiñen jarri kaja bat lastokin ta zeakin ta hantxe hazi non hamabi kilo in arte. Biberoiakin. Handik ez zan moitzen; inbalidoa zan, eta hantxe hazi nun, karbonera gaiñen jarri kaja bat lastokin eta, eta egunero aldatzen nion lastoa ta danak eta, sukaldeko karbonera gaiñen, sukaldean ondon epelik hazi nun hemen biberoiakin.

-Artista. Pazientzia ere bazendun ordun.
-Bai, oin baiño gehio.

### 1.3. Australiako aizkorak eta hemengoak

- **Hizlaria(k)**: Yurrebaso Lizarralde, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-026/010
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:17:10. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- **Laburpena**: Errezil eta Leitzan aizkorak egiten zituzten; baina, gerora, Australiatik ekarri zituzten, eta haiek hobeak ziren. Hango eta hemengo aizkoren artean, alde handia zegoen; zertan azaltzen du.

**Transkripzioa**
-Ramon, zer diferentzia zegon zuk Errezildik edo Leitzatik erosten zenituen aizkora horien eta australianoen artean?
-Haundia.
-Zertan bereizten zien?
-A, nik ez dakit. Eitteko posturia edo. Legazpin nei fabrikara bi aldiz eaman aazi zien aizkorak hemendik, hemengo aizkorak. Australianok aizkora eiten zittuen materiala Legazpin gastatzen zan. Egin zittuen eundoko pruebak, bi aldiz'e bai eaman aizkora nik eta; pruebak-eta ein zittuen ta ezin asmau haik bezela. Oain bai, hemen'e hasita daude oain Australiako estilo xamarrea uste det eitten dittuela aizkorak.
-Kertena berdina izaten zuen?
-Ezta, diferentia! Hemengok et hangok diferentia. Egurrezkoa baiño tipo diferentea.
-Ze diferentzia zeukan?
-Bueno. Dana hemengok baiño... australianon kertenakin dabiltza oin.
-Luzeagok edo?
-Ez, hobeto iña zea [...] Eta aizkorea're hobeto. Hemengo aizkorea, ordun aizkorea [...] baiño sartu itten zan, etaa ezinda, ta hangua beti libre. Aizkoria golpia eman eta beti libre. Hemengoa berriz katiauta. Aizkoratan haundia diferentzia.

### 1.4. Artilea saldu, bota edo koltxoiak egiteko erabili?

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Aiastui, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-027/017
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:23:37. **Bukatu**: 00:25:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Hasieran, artilea saldu egiten zuten; baina, gerora, artilearen salneurria asko jaitsi zen, eta batzuetan bota ere egiten

zuten. Artilea nori saltzen zioten azaltzen du. Artilearekin koltxoiak egiten zituzten; prozesua nolakoa izaten zen azaltzen du.

**Transkripzioa**
-Gero ardi ile horri zer egiten ziozuen?
-Ba lenengoti diru itten zun eta saldu, baiño gero azkenea ez zon bate diruik itten eta bota igual. Ez zon bate diruik itten.
-Zeini saltzen zenioten, traperon bat etortzen zan?
-Bai, bai.
-Nungo traperoa?
-Ba hamen Eitzakoa, Benardo bazan, ta geo kanpoti'e noizipeñen etortzen zian; baiña hamen herrin fijokoa Eitzakoa zan.
-Eta harek nun eramaten zittun ilek?
-Ba aston edo, zakun sartu eta ia kantidadea zanen... Bestela hola kilokoa baldin bazan, etortzen zian traperok eta zakua holaxe ekartzen zuen; sartu han ta segi oiñez.
-Ixabel, orduan egiten zenduen haririk artilearekin?
-Ez, geuk ez deu ein hariik. Ez, ardi ilek garbittu ta arreoako preparau bai; arreoako koltxoiak itteko ta, koltxoiak itten laundu ta, hori bai.
-Nola preparatzen zan?
-Ba garbittu... Tiña edo ontzi haundi bat bagendun, han sartu eta beratzen eukitzen gendun, zeatio zikiña, kaka atzekalden eta nola eukitzen zuen, garbittu eta sekau ondo. Eta geo makillekin jo, harrotu ta ya koltxoian sartu.
-Hori nun egiten zenduen, etxean bertan?
-Bai, ganbaran.

### 1.5. Garia eta artoa errotara eramateko komeriak

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Aiastui, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-027/019
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:28:30. **Bukatu**: 00:29:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Urretxun, kalean, errota zegoen, eta hara eramaten zituzten garia eta artoa ehotzera. Zakuak oso astunak izaten ziren, eta bidean eramateko arazoak izaten zituzten.

**Transkripzioa**
-Errotarik bazenduen inguruan?
-Bai, Lizaratzu kalen, Lizaratzu, bai. Oseake Aizpurutxu aldea dao.
-Eta harea eramaten zenduen?
-Bai. Hautza eaman, iyo ta geo ekartzen gendun, ta han sokalde baztarren hantxe eukitzen gendun zakua. Bat artona eta bestia gariña.
-Zein juten zan jeneralen ehotzera errotara?
-Ba eozein, eozein motiko edo eozein neskatilla. Libre gendena.
-Astoarekin?
-Bai. Batzutan itten ziun aldamen batea hola eroi eta izin altxatu, izin zuzenduik zakua ibiltzen giñan. Eta deskuidon biden basarrin baten gizonen batek [altxatzen baziun] gustora ikusten gendun, zeatio haek

indar gehiao; berriz'e jarri ondo, lotu sokekin ta ipintzen ziun. Bai, txiki-txikitatio...

### 1.6. Burutik zakua hartuta euria zenean

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Murua, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: URR-033/002
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:02:35. **Bukatu**: 00:03:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gaston Balerdi, Izaskun
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena**: Baserri ona zen Kaminpe. Abere asko zuten, eta klase guztietatik. Lan asko egin behar zen eta ez zegoen erraztasunik arropa aldetik eta. Euria zenean buruan zakua. Gaur bizimodua guztiz aldatuta dago.

**Transkripzioa**
- Baserria haundia al zan?
- Bai, bai, basarri ona zan. Baiña oso leku onen zeon, karrilletik bertan ta kamiñoa bertan zeukan, bai. Sail haundik, bai, bai. Ya etxea zaharra zan baiño sail haundik zen. Ganau asko egoten zan, mendiko ganaua eta ardi, ta behor, ta etxen behiak idik eta txerrik eta konejuk, danetio eoten zan.
- Danetio e? Lana're ingo zenduen.
- Bai hoixe, bai hoixe eitten gendula lana baserrin. Ordun ez zeon gaur bezelako kontuik. Gaiñea erreztasunik gaur bezela ez zeon baserrin lana eitteko´re bat bea. Ez erropaik, ez soiñeku, ez oiñetakoik, ta ezer'e ez zeon. Hantxe, segi lanen.
- Erropa, ze eramaten zenduen?
- Ze erropa eramaten gendun? Bueno, ba askotan burua zakutik, zakua burutik tapatzeko, o ardi zai edo ibiltzen ziñenen.
- A bai, e? Zakuk, e? Klaro, hor xiraik eta ez zien egongo.
- Zaku fin xamarrak. Xiraik eta ez zeon ordun. Ordun ez zeon holako kontuik. Ene, oso [...] kanbiauta dao.

### 1.7. Itulan... diru truk?

- **Hizlaria(k)**: Errasti Loiti, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: URR-039/003
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:02:53. **Bukatu**: 00:04:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Umetan, Beain baserrian bizi zenean, bizimodu gogorra zeukaten, baserriko lanetan aritu behar izaten baitzuten; itulan, besteak beste. Antzuolan, bizilagun batek diru truk itulan egiteko eskatzen zion, baina gutxitan ordaintzen zion.

**Transkripzioa**
- Nolakoa zan zure bizitza Beaiñen bizi ziñenen ta umetan ta?
- Aii. Oso gogorra batzutan, beste batzutan biuntxoua. Ittulan, badakizu zer dan ittula?
- Zer da ittula?
- Ittulia zer dan? E... labratzeko makinariya behien aurren xuxen jutia, behera, ez behera ta ez gora. Ittulan. Nik... e... hona etorri baiño lehen, Antzuolan, hiru bizitzako baserriya zan eta bizitza baten zeuden neskazahar-mutilzaharrak. Ta mutilzaharrak esaten zian: “Etorri hai -esto... puxkat hasteko zea, ittula- bost zentimo emango diñat /emangoñat/”; ta juten nitzan ta geo bost xentimoik ez zian ematen.
- Ta ez zizun behin ere ematen?
- Ez zian ematen. “Bai, atzo esan ziazun bost xentimo ta ez diazu eman, ez naiz jungo”. Eta “Bai, etorri hai” esto ta, berriz’e jun ta halako egunen baten ematen zian bost xentimo, kobrezko bost xentimo hori ta,“tira para adelante”.
- Ta listo?
- Bai, holaxe.

## 2. Aisia

### 2.1. Aizkolaritzan hasi zenekoa

- **Hizlaria(k)**: Yurrebaso Lizarralde, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-026/007
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:12:41. **Bukatu**: 00:14:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Aizkoran aritzeko, Keixetak lagundu zion Ramoni. Gogoan du nor izan zuen lehenengo lehiakide. Garai hartan, apustuetan dirua jokatzen zuten.

**Transkripzioa**
- Urrestillan zein zan?
- Keixeta famatua. Handik etorri nintzan jokatzea.
- Keixetan etxera jun eta.
- Bai, han euki nittuen.
- Eta zer preparazio?
- Gobernau ta. Aizkolarie izendakoa zan fenomenoa Keixeta. Ta harek preparatzen nittun, harek ipintzen zian egurra ta. Ta gero handik Zumarragara, jokau gendun, Zumarragara jokatzea.
- Zure lehenengo aurkarie zein izan zan?
- Bitoriano. Hil zan, Jauregialzo, Leturikoa.
- Nola akordatzen zera apustuarekin?
- Nik ondio mundu hontanizan dedan egunik haundiña zan neetzako hua. Arkalen teman ibltzen giñan ba bi auzok, bi auzotakok kuadrillak, kuadrillak eta gu're bai ta, teman beti ibiltzen giñan, ta. Ta nere donporan hartu dean pozik haundiña hari irabaztea hartu nuen.
- Dirurik jokatzen zan?
- Bai. Bueno!

-Zer diru jokatu zan?
-Garai hartako bi milla pezta. Oin dala..., esango dizut zenbat urte dian. Hirurogeita bost urte dia. Ointxe gaiñea, eneron zan. Ointxe hirurogeta bost urte.
- Dirua zeinek jartzen zuen?
- Dirue kuadrillak. Nik ez nuen lagun faltaik, e. Agiñeta basarritar danak sozio behar. Batek hogei duro ta besteak beste hogei duro eta besteak beste hogei duro ba... Hala pasau zuen, sozio behar.
- Nun jokau zuen?
- Urretxuko frontoian

### 2.2. Latasa aizkolaririk onena

- **Hizlaria(k)**: Yurrebaso Lizarralde, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-026/015
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:25:23. **Bukatu**: 00:26:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Lan luzeak eta motzak zeuden aizkolaritzan; bera lan motzetan zen trebea, Latasa luzeetan. Latasa zen aizkolaririk onena baina ez zuen lagun arterako balio.

**Transkripzioa**
-Normalen lan luzeak ala motzak?
-Nik lan motxa; horreatik nitzan rapidoa. Nik lan motxetan jeneralen.
-Baziñeten lan luzetan ibiltzen ziñatenak batzuk, lan motzetan bestek, desberdinduko ziñeten. Lan luzetan zein zen ordun puri-purin zeona?
-Latasa nere denporan onena. Latasa. Neretzako izan dan aizkolaririk onena hue izen zan.
-Zertan bereizten zan hura, zer zeuken bestek ez zeukena?
-Bestek ez zeukena? Makinia. Baiña munduko aizkolaririk onena baiño ez zan oso..., ez zala esan nahi det. Gu hola ezibizio bat edo festa bat eittea juten giñan eta benga juerga, "eta benga!, afaldu bihar diau", eta harek beti aitzakia: "Nik badut jun biharra" eta, naparra zan eta "nik badut jun biharra, mutillak lanian dazkat eta kanbiona kargau behar due" eta ez dakit zer eta. Beti hanka, beti hanka.
-Lagun arterako ez zan ordun?
-Keba! Ez boda batea etortzen zan, danok jubilatu, iñona etorri ez eta. Omenaldi bat edo hola baldin bazeon, nada! Era un... Aizkolaria fenomenoa baiño hola. Eta ez zan, ez zan sekula sartzen. Beti "a su aire". Eta gu berriz kuadrillan eta bueno...

### 2.3. Apustu gogoangarri batzuk

- **Hizlaria(k)**: Yurrebaso Lizarralde, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-026/017
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:27:35. **Bukatu**: 00:29:02

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Ramonek jokatutako apustu onena gogoan du: 1953an jokatu zuten Azkoitian. Jende asko joan zen hura ikustera. Beste zenbait apustu kontatzen ditu.

**Transkripzioa**
-Ramon, zein da zuk gogoratzen dezun apusturik onena?
-Neuria? Azkoitin jokau gendun Txurrukak eta nik.
-Txurruka?
-Txurruka, bai. Motrikokoa zan. Haundiya gizona, ehun eta kilo, uno noventaytres alturia, ehun kilo ingurukoa, por ahí.
-Noiz jokatu zenduen?
-El año cincuenta y tres.
-Azkoitin bertan?
-Azkoitin. Kriston apustue jokau gendun, puf!, eta nei galtzea tokau hiru-lau golpegatio.
-Ze jokau zenduen edo ze apustu zan?
-Apustu fuertea, garai hartaako kategorikoa. Frontoia jendez bete ta kanpoan geau zan jendia. Nik jokau nun apustuik onena jokau nun Txikito de Arruizekin aizkoran eta korrika. Onena, esan nahi det hola famatuena. Bost milla laun, Tolosako plazea dana bete. Ta aizkoran lan gutxi zeon eta korrika "ocho kilometros", klaro. Ta aizkoran kendu nion denpoa puxkat baiño lan txikin asko kentzeik ez dao. Gero irabazi in zian. Korrika pasau nittun, larogei buelta eman behar, "ocho kilometros", eta larogei buelta eman behar eta "en la vuelta setenta y uno" pasau ta aurrea, ta oin egon hai hor!". Hua korrikaria zan ni aizkolaria bezela.
-Bi aziotara askotan jokatzen zenduen?
-Ez. Nik izan dean aizkena ta aurrena.

## 3. Familia eta harremanak

### 3.1. Ipinarrieta baserriaren egitura

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Aiastui, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-027/011
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:14:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- **Laburpena**: Ipinarrieta baserriaren egituraz hitz egiten du: ukuilua, arditegia, sukaldea, ganbara, dorrea... Etxeak hiru gela zituen; eta han moldatzen ziren denak (13 senideko familia).

**Transkripzioa**
-Ikuilua nun gelditzen da, azpian?
-Bai, eta handik beherago maillan, berriz, arditeia. Baiño etxen gaiñekalden, baakizu, beti terrenoa altugo, ta azpikaldetio bajugo, eta artaia dao azpikaldetio; haren giañen sokaldia; ta sokalden gaiñen

ganbara. Ta ganbaratik gaiñea gero torria.
-Torre hortan zer dao bertan?
-Ezer ez. Hasi torria goittik eta behera libre.
-Makina bat jolas egingo zenduen hainbesteko etxean.
-Jolas itteko denboraik ez zeon. Beti lana.
-Hamahiru izateko etxea behar zuek haundie.
-Bai, baiño leku gutxin sartzen giñan. Oso leku gutxin. Pentsau hiru habitazio zeuzkala bakarrik danantzako. Oin gehiao.
-Nola moldatzen zineten lotarako ta anai-arrebak?
-Bueno, ba neskak leku baten eta motillak besten eta aitton-amonak beste baten. Bueno, zea, aitta-amak. Ta zeakin, amona jeneralen ba umekin.

### 3.2. Baserritarren eta kaletarren arteko aldea lehen

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Aiastui, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-027/025
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:36:29. **Bukatu**: 00:37:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Dotrina ikasteko, baserritarrak eta kaletarrak bereizi egiten zituzten. Lehen alde handia egiten zuten haien artean. Baserritarrei burla egiten zitzaien lehen.

**Transkripzioa**
-Neska ta mutil alkarrekin?
-Eskolan? Bai. Danak.
-Dotriñan'e bai?
-Baita. Gu basarritarrak juten giñan bikarion etxea; bestek elizan edo eskolan edo ikasiko zuen.
-Egiten zan diferentzia hori baserritarrak eta kaletarrak?
-Bai, bai, bai. Gaur kaletarra ta basarritarra ya berdin ikusten da baiño. Len oso desperdiña zan, oso desperdiña.
-Antzematen zenduen, burlaik edo egiten zitzaizuen?
-Ba, "caseras" betik. Eta nere gizonak ohitturea zun esateko "caseras y con honra". Edo "caseros" igual da, "con honra". Ta ni oin, ordun ez, ordun bajezia iruditzen zatan neuri're besten alden, ezta. Baiño gaur ez, gaur esaten det basarritarrak kalen edozer gauza ein deikela, baiño kaletarrak basarrin ez.

### 3.3. Lehengo jolasak eta errespetua

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Aiastui, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-027/027
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:38:11. **Bukatu**: 00:39:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gaston Balerdi, Izaskun

- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Eskolatik irteten zirenean, jolasean aritzen ziren, tximilikuartotan (ezkutaketan), besteak beste. Osabak txistu egiten zuenean, ordea, denak etxera joaten ziren ziztu bizian; halakoa zen errespetua garai hartan. Etxera joatean, merienda jaten zuten gustura.

**Transkripzioa**
- Ta eskolatik ertetzen gendun bostetan eta ixkutaketan ibiltzen giñen, txibilikuartotan esaten gendun. Ibiltzen giñen ta...
- Txibilikuartotan, zer zan. Ze jolas zan hori?
- Ba hori, ixkutaketan, txibilikuartotan esaten gendun, ixkutaketan zan. Eta osaba, han, lehenengo basarrin osaba, ta haren umek'e ba jolasen. Harek txistu eitten zon etxetio eta izkutauta genden lekutio aide danok ertenda, bakoitza bere etxeta. Bildur haundiya gendigun. Ta egunen baten konturau be etortzen bazan, harek makillekin edozeiñi ematen zion, e? Ze errespetoa sartzen zon harek. Ta gero etxea juten giñan eta etxen eukitzen gendun merienda, katillukara esne. Lehen, lurrezko katilluk izaten zian, eta oindio nik esne-zopak, ze gustora jaten giñuzen. Illaran danak, eta gaur, txikiena apartatzen ibiltzen die baiño guk haundiena apartatzen ibiltzen giñan. Ta aldatzea kuartoa juteakon, mahai gaiñian zeonai, taka, behatza sartuko gendiun, haundienai. Ta pentsau ze mika giñan, hura ez zon beste batek jango. Haundienai sartzen gendiun behatza, pasadizon aldatzea juteakon koartoan. Bai.
- Bakoitzek berea.
- Bai, hoixe.

### 3.4. Josten eta sukaldean aritzen jakitearen garrantzia etxean

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Aiastui, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-027/031
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:44:44. **Bukatu**: 00:47:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gaston Balerdi, Izaskun
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena**: 13 anai-arreba izanda, arropak konpontzea eta sukaldean aritzea eguneroko lana izaten zen amarentzat. Etxeko neska guztiek ikasi zuten josten eta sukaldean aritzen. Etxetik kanpo ikasi zuten josten, Villar Álvarezekin. Emakume horrek bazeuzkan josteko eta puntua egiteko makinak. Sukaldean aritzen ere etxetik kanpo ikasi zuten Isabelek.

**Transkripzioa**
- Bai, bueno, zaharragoa. Aman denbora guztiya jana ipintzia eta erropa konpontzia zan. Pusketak ipintzen, galtzerdik'e konpontzen... Dana. Aman denbora guztiya jarritta, konponketan.
- Josten neska danak ikasiko zenduen?
- Danok, eta koziñan'e bai. Ez zeon gure etxen josten ta koziñan ikasi be ezkontzeik.
- Eta etxen ikasi zendun ala etxetik kanpora josten?

- Ez, etxetik kanpora ikasten gendun.
- Nun ibili ziñeten josten ikasten?
- Ba, Villar-Alvarez, soltera bat zan ta harek eukitzen zittun hamar neska, holaxe jun ta ez kobrau ta ezer ez, e? Jun ta, ba, hoixen, nola, baten hilbantzea dala, besten sobrehilatzea dala, ba, holaxe hasi ta segi, ahal dezun arte.
- Eta Ixabel, nun erakusten zun Villar-Alvarez honek? Urretxun?
- Bai. Urretxun, aber nun esaten dizuten... Ba oin Labeaga kalia dan lekun. Bai.
- Josteko makinak eta baziren ordun?
- Bai, bazeukan. Bat, e? Danantzako bat zan, e? Eta gero bere koiñatak aldamenen bertan makina bat zeukan, zea itteko, puntu itteko, jersek eta itteko. Ta harek bere alabak ebaltzen zittun han, puntu itten ta. Ta erakutsi harek'e eitten zuen, egun baten izebakin josten, beste egun baten, amakin puntu eitten. Bi neska, txandan jartzen zittun, eranak. Eta beste baten bazkari ipintzen. Haren dana etxen erakutsi zien. Zala preparauta jun zien neska haek. Gaurkoa oso desberdiña da.
- Eta zuek kozinan nun ikasten zenduen?
- Ba, nik ez. Ni hotelen eon nintzan eta nere ahizpa Dioni´re bai. Baiño bestela, Iburretanen, Zumarran. Ondio´re badago Iburreta hori. Bai, jatetxe ona zan, ta, hortxe, nere ahizpak hor ikasi zuen.

## 4. Politika

### 4.1. Gerran anaiek pasatako estutasunak

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Aiastui, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-027/020
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:29:31. **Bukatu**: 00:31:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gaston Balerdi, Izaskun
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: 1936ko abenduaren 28an jaio zen. Gerra garaian, etxeko anaia zaharrenek etxetik alde egin zuten. Babesteko, Bergarara joaten ziren. Orduko komeriak kontatzen ditu Isabelek.

**Transkripzioa**
- Ixabel, ez dizut galdetu ze urtetan jaio, noiz jaio ziñen zu.
- “Treinta y seis”.
- A, oaintxe galdetu behar nizun, errotak itxitako garai hura ezautu ote zendun eta
- Zea, egun xelebrekoa, inuxente egunekoa, “veintiocho de diciembre”.
- A bai?
- Bai.
- Oseake ordun zuk gerra ondorengoa ezautu zendun baiña...
- Ez, ez, ni gerraten jaio nintzan.
- Baiño esan nahi det zuk ez daukazula...
- A, ez, ez, ez
- Ez dezula akorduik eukiko
- Nere anai zarrenak eta bai. Zeatio gerraten ihesi jun zian. Bazetoztela billa eta basarritar danak Bergara, gaua Bergaran in zuen, ta atzetik tiroka. Eta Bergara jun eta apaiza zeon hamengo bat eta harek esan emen zien

baserritar bati, emaiezue sapaian lo itteko hoiei zeatio persona zea dia, ezaunak dia ta persona onak dia. Ta, klaro, gehienak han juntau men zian baiño bat falta men zan. Eta esan men zuen Deskargatik aurrea hortxe bota izengo zuela tirokin hura, lagun hura . Baiño ez, txapela ez dakit zer erori ta txapel billa eo, nik ez dakit zer. Hortan aparta izengo zan, ta gauez etorri etxea eta atzea juten ziala, zea, eguna zabaltzeako Bergara berriz´e. Ta, hori akordatzen dia gure anai-arreba, bi zaharrenak.

### 4.2. "Nazionalak" sartu zireneko estualdiak

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Murua, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: URR-033/007
- **Iraupena**: 0:04:59. **Hasi**: 00:09:43. **Bukatu**: 00:14:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gaston Balerdi, Izaskun
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra denboran, etxetik hurbil dagoen zubia bota zuten dinamitaz milizianoek ihesean. Etxera etorri zitzaizkien dinamitatzaileak, leherketa entzungo zutela esanez. Anaia aurrera joan zen "gorriekin". Milizianoek etxetik atera eta aurrera eraman nahi izan zituzten, baina Deskargako lehenengo baserrian geratu ziren, eta laster itzuli ziren etxera.

**Transkripzioa**
- Ta aittau dittuzu lehenago, gerrako kontuk. Anaia nola egon zan kanpon, ta zuk nola bizi izan zendun gerrako garai hori? Nola gogoratzen dezu?
- Guk, hemen ez da ezer pasau. Hor goyan bi tiro bota zittuen, bai, eta gero, berriz, tiro horik bota ta hemen bi lagun edo hil zittuen.
- Herrin bertan?
- Bai, bai. Ta gero gerrea, hori, hasten ari zala, Nazionalak ba ete zetozen, ta Argixao bakizu nundik daon? Gure basarriya aurretik pasau zien, ta soldau ta danak, ezta? Eta han zubi haundi bat dago, Urretxu ta Legazpi dibiditzen dittuna, kamiñua, kamiñua baiño. Han jarri zittuen bonbak. Azpin errekea dao. Zan, aspaldi ez naiz jun ni, pena ematen dit eta. Aspaldin jarri zittuen bonbak, eta horik, han bonbak ipiñi zittuenak jefek zian, hantxe gure basarrin goian bizi zian bi gizon. Bat zan Baskotako fatoria eta bestia, mozua zan. [...] Baskotakok, zuk ez dezu ezagutu, [...]. Eta harek esan zien gure amai eta etorritta, sapayan azpiyan jartzeko, ez zitzaten ezer´e pasauko. Tiro haundi bat bota behar zuela ta.
- Haiek abixun etorri zien?
- Bai, gure etxea etorri zian. Eta gu, ni, ahizpa ta ni, ba jun giñan han Benta. Zuk ez dezu ezautu han etxia, oin zea dao han, garajia edo ez dakit zer daon. Han Benta-etxe bat zan eta han bizi zian Goldenekok eta beste famili bat [...] Gero Eibarrea jun zian tabernia jarri zuen han ta. Gero, gero e? Ta amak esan zigun, umek txikik zeuzkien ta, "kasoiezue ume hoiei, erak etxea jaso pixkat ein arten". Gizon haiek jun zian ta gure anaya´re haikin jun zan, aurrea, gorrikin. Eta gero ba, guri etorri zitzekun han, bi, hola, gu nexka koxkorrak, gu biyok, bi ahizpa... Ahizpa ta ni.
- Baserrin zendetela etorri zitzaizuen bat?
- Guri ez, baiño han zeren andrai, gizona jun egin zitzaten andrai. Guk aurrea jun behar gendula, gorrikin, "nada, nada, aquí tenemos el camión y

fuera. Ahí adentro y adelante vosotras también". Ta hor andra batek esan zion, ba gurekin zeonak, pues zela jungo giñan ume haik danak eta, gizon danak han jun ziala, han ziala, junda. "Nada, nada, a fuera" . Ta bat, Goldeneko hori, pixkat frente jarri zan, ezetz. Ta holaxe, "si no" umia zaukan, Juan Mari ezagutzen dezu? Goldenekon, e, hori mutil koxkorra, urte beteko mutil koxkorra zeukan. "Si no sales, pun te voy a hacer" ta bota eingo zion gaiñea! Beharko erten! Ta halaxe kamiñon jun giñan aurrea.
- Ta noa nahi zizuen eraman ba, aurrera?
- Ba, gorrikin. Haik Milizianok zian, gorrittakok zian haik, han zebiltzenak. Ya azkeneko ta zean zen, hor Argixaotik ya tirok aitzen zian. Bazetozela Nazionalak, entenditzen? Eta gero, ba, jun egin behar ba gu´re aurrea. Ta gu biden gindoazela kamiñon, hortxe, ba, Benta hori zan lekutik pixkat aurreatxon, kriston tirua. Guk atzea etorri nahi ta "ez", bueno ba, klaro ezin giñan etorri, ezta? Gure [...] Ta hala, Deskarga aldea, lehenengo basarriya zan ezkerreta, ta hangok, tiroa aittu zuen harek´e ta, ba gu han ikusi giñutzienen ba, zer pasatzen zan. Ta esan zuen iñok, lagatzeko sartzen haik aurrea eraman nahi zuela ta. Ta halaxe hango aitta erten zun eta esan zien Miliziano horiei, familikok giñala ta lagatzeko han zeatik gure danak aurrea junda ziala ta. Ta haretxek salbau giñuzen, hantxe geatu giñan gu. Haien, jun zianan andrak eta ahizpa ta ni.
- Ta Deskargako baserrin geau ziñeten ordun zuek?
- Bai, lehenengo basarrin, Deskarga bea, ta hantxe. Fermiñene zon izena. Bota in zuen gero. Eta gero handik ordubetera o hola, gure aitta ta ama ta erten emen zuen aber zer zea, eta ez guren, ez Bentan, Benta zan beste etxia, ez Telleri, ta iñun ez zeon iñorre. Ta, ze pasa ote zan. Ta gure aitta hori Deskarga aldea. Pozik ikusi gendun guk aitta bazatorrela gure billa ta esan gendion "baiña aitta zela? ez dakizu zer asko ze pasau dan, tirua", "aittu deu tirua, tiro haundi bat bota due eta... Ala! Oin etxea juteko esan digue Milizianok, ertetzeko esan". Han sapai azpin eoteko esan zienak "ya podéis venir". Baiña aitte larri aurrea, zeatik militarrak ya bertan zian. Ta hoixe izan zan hemengo zea.

### 4.3. Urretxun bederatzi pertsona hil matxinatuek

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Murua, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: URR-033/008
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:14:42. **Bukatu**: 00:17:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gaston Balerdi, Izaskun
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Salbakonduktoa behar zuten herrira joan izateko. "Nazionalek" bederatzi lagun hil zituzten herrira sartu zirenean. Izendatu egiten ditu. Nazionalistak izateagatik hil zituzten. Senarrak bi gizon ikusi zituen Legazpi aldean bide bazterrean hilda.

**Transkripzioa**
- Bai, eta gero ba kalea etortzeko gu, Ipiñarrieta [...] nun zan bakizu, ezta? Ba han salbokontuktoa eskatzen ziguen, Eibarren eitten zuen.
- A bai? Ta salbokonduktoa, hori nola eskatzen zuen?

- Salbokonduktoa hartu behar izaten gendun.
- Zer zan hori, salbakonduktoa?
- Ba, karnetan, "por ejemplo" e? Ba holakoxe bat. Ta gero ba, handik egun gutxitta sartu zian ta hemen beatzi lagun hil zittuen. Hok sartu zianen. Ba hemen Urretxun bertan Benantzio Eguren, gero sekretarion semia Belaustegi, Martin Zabaletanekoa hiru, Gabilondo lau, [...] Aranburu bost, beste bat Morenitana sei. Eta gero bestek hemengok zian, baiño oin ez naiz akordatzen ia oin zeintzuk zian bestek. Beatzi lagun hil zittuen.
- Eta nun hil zittuen, hemen, herrin bertan?
- Ez, iñok ez zittuen gehiago ikusi.
- Ez e? Ikusi´re ez.
- Ezer ez. Erak jakingo due noa eraman zittuen edo ze in zien.
- Eta, eraman zittuenen ta, ikusi zuen nola eramaten zittuen?
- Hoixe ez dakit zela eramango zittuen. Horik gauen edo halakon baten eramango zittuen edo. Bat zan Benanzio Eguren hori, ba beste lanik ez zon eitten horrek, ehiz txakurra eukitzen zon, ta jaietan. Nazionalistak zian ba, horik. Ta horreatixek hil zittuen horik. Danak zian horik nazionalistak. Ta ordun nazionalistak gorrik baiño okerrago tratatzen zittuen, e? Bai, bai. Hoixe. Ba hoixe izan zan. Ta hura zea, oso gogorra izan zan beatzi lagun hemen hil zittuenen. Zeatik gizonak izan zian pake oso, iñokin ezertan sartu ez zian gizonak.
- Bai, e? Nazionalistak izateagatik?
- Nazionalistak zian, bai.
- "O sea que" egon zan pena momentu bat.
- Hombre, hoixe. Hola, gizonak hola eraman ta hiltzia? "Hombre". Ta hemen gehiaotan pasau zan. Gure anaiak behorrak eukitzen zittuen, asko gaiñea, ta juten zian ikustea. Aizkorrin ibiltzen zian udan, ta erak bizikletan goizen zijoztela kamiño baztarren billau zittuen bi gizon hilda.
- Nun, Aizkorrin?
- Kamiñon, Legazpiko biden. Legazpiko biden, bai. Eta haik´e ba, Legazpikok ez zian. Beste nunbaitekok izanda, hortxe etorri, ta hil egin zittuen ta kitto.

## 5. Ohiturak eta bizimodua

### 5.1. Eskolan gutxi ibili ahal izandako

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Aiastui, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-027/022
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:31:29. **Bukatu**: 00:34:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gaston Balerdi, Izaskun
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan oso gutxi ibili zen Isabel. 9 urterekin, neskame joan zen. Santa Barbarako eskolan ibili zen, eta oinarrizko gauzak ikasten zituzten. Eskola partikularrera don Mateorengana joaten ziren esnea banatzen aritu ostean; han nola ikasten zuten azaltzen du.

**Transkripzioa**
- Ixabel, eskolan ibili al ziñan?
- Oso gutxi.
- Gutxi.

- Beatzi urtekin jun nintzen neskame. Eamaten gendun esnia Urretxuko bi apaizei, kapilla. Eta galdetu zion Don Santiagok aber baratzui-zopia eitten nekin ta baietz esan nion, eta esan zian “ordun zu gure amana jun behar zea”. Eta halaxe jun nintzen.
- Bere amana neskame bialdu zizun.
- E?
- Neskame bere amana.
- Bai.
- Baiña aurretik eskolan nun ibili ziñen?
- Han, Santa Barbaran.
- Santa Barbaran eskola zan.
- Bai. Otoitzak eta lehenengo letrak eta hori danak etxen ikasten zian. Geo harutza jun eta komuniokin in behar gendunak bai, zeiñek baiño zeiñek altuo, leihoa zabalik nola eoten zan, ba aitzen zan gure etxetik, Mendizabaletio eta otoitz egiten, hola, “gure aita” ta, fuerte-fuerte. Jartzen giñen hola, korrotxon, eta danok. Eta gero, "sumar, restar, multiplicar, dividir" eta ya kalea. Esne partittu goizen lehenengo eta gero eskolara. Ordubete partikularrea juten giñan, igurdin (eguerdian). Don Mateo zan, maixua guria, ta asko nahi ziun, zeatio nola bazekin, denbora gutxi gendukala, eskolarako. Ta erderaz oso gutxi gendekiun, ta klaro, irakurtzen genduna ba ez gendun ulertzen. Eta heldu lepotik holaxe eskukin, eta sartzen zigun, esplikatzen zigun danak. Eta motillak esaten zun " bai, emakumea lepotik heldu eta ia musu emanen hor" ibiltzen zala, baiña ez. Eta gure lehengusu bat eon zan Ezkiotarranen urte askon, tabernan, neskame. Ta hua bakizu nola gertatu zon? Don Mateok nola taberna jun behar zon, ba aber,” txikito batek balio do, hainbeste xentimo”. Eta esate bateako, “hamar txikitok, zenbat xentimo da?” Eta dana tipo horta. Lehenengo ba hoixe, sumatzen bezela eta geo kentzen. Eta ondo, gero han hainbeste urte egin zittun.
- Eta nun erakusten zizuen Don Mateok zuei?
- Ba Urretxun, eliza ondoko eskola baten. Bai.
- Ze eskola?
- Erdalduna, erdalduna zan. Ba eskola ordun ez zan, zea, ez lehenengoik eta ez bigarrenik, eta holako zeaik bate ez.
- Baiño gaurko eskola dan toki berdiñen? Ez. Nun zan ordun eskola?
- Ez, ez, ez. Ba ordun zan elizan gaiñekalden etxek badare, esate baterako, alkatea bizi dan lekun? Ba hortxe zan eskola bat. Baiño ibiltzen giñen ba hogei urtekok eta hamar urtekok, danok alkarrekin. Ez zeon zeaik.

### 5.2. Anaia zazpi urtez soldadu

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Murua, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: URR-033/004
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:04:38. **Bukatu**: 00:05:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gaston Balerdi, Izaskun
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena**: Anaia zazpi urtez egon zen soldadu. Lehenengo "gorriekin" joan zen, eta gero berriz "nazionalekin" gerrara eta soldadu. Extremadura aldean ibili zen, eta urik ere ez omen zuten izaten.

**Transkripzioa**
-Ta gero gaiñea gerratia tokau zitzekun, ta anaia eon zan zazpi urten gerran.
- A bai? hori kontauiazu ba, nola izan zan
- Ba trentaiunoko kintoa zan, lehenengo gorrikin jun zan, hemezortzi urte zeuzkala. Ta gero handik etorri zanen, ba ya kintak'e harrapau zuen ta Extremadura parte hori dana ibili zon, bai. Bai, ta oso gaizki gaiñea. Ez uyik, han oin ur asko emen dao baiña, ordun behintzat, ez zeon tantanik´e esaten zuen. Abanzatzen zijozela uye eskatzen men zien ta iñok ez emen zien uyik ematen. Halakoxe paraje exkaxa. Oin han´e ekarri men zuen uye, hemen bezelaxe. Baiño ordun garai hartan oso gaizki ibili zien. Oso gaizki. Gaixotuta gure anai hori. Ba, tifus. Ta arbolan [...] baten kalenturakin ez dakit zenbat denboran han ibili emen zan ta guri ez zigun ezer abixau.

### 5.3. Trukuman sasimedikua

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Murua, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: URR-033/006
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:07:47. **Bukatu**: 00:09:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gaston Balerdi, Izaskun
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena**: Trukuman sasimedikua oso famatua zen. Hark sendatu zuen aita enplastoen bidez. Medikuak ez zekien zer egin.

**Transkripzioa**
- Kuranderok esan dezu, kurandero bat zeola.
- Bai ta harek eztarrittik, gure amak esaten zon, nik ez... Umea nintzen ta ez naiz [...], hola, eztarrik bi soplatak, holaxen duron, zillarrezko duroa ikusiko zendun? Holako bi soplata bota zittula eztarrittik.
- Bota in zittun?
- Ta harek salbau. Berok eta ahon ez dakit zer jartzen zien eta hurak soltau zianen ba bueno, aitta hobetu.
- Ta kuranderok bazeuzken bere erremediok?
- Bai, bai, Trukuman oso famatue zan garai hartan. Gero hura´re hil zan baiño, bai, oso, oso. Harek, zeakin, nik ez dakit ze enplasto, hortxe Goldenekoen amak eitten zion enplastok, eta beste belarren batzun uyak eta, haekin. Oin indizio bat ipiñi ta "ya está" baiña, antibiotikon bat eman ezkeo baiño, ordun ez penizilinaik eta ezer ez zeon.
- Ezer ez zeon, e? Baiño eongo zan kuranderoz aparte, eongo zan medikua, herriko medikua?
- Bai Don Joxe hori mediku ona zan hemen, hura. Gero Oñatibia, gero etorri zan. Baiño guk ordun hori gendukan, Don Jose Albisua. Albisu.
- Ta zein zeon hobe ikusita, medikua, edo kuranderoa?
- Ba, horrek ez zion zeaik hartzen, mediku horrek. Mediku ona zan, baiño ezin zion azertau hura zela kendu. Ta harek zijon bezin pronto esan zion. Zauzkala bi soplata ta haiek botatzen ez bazittun itto egingo zala.
- Eta nola ba zeuzken hor hoiek?
- Eztarriye itxi barrutik, bai. Barrua juteko zea eta arnasia hartzeko zea itxi, bai. Eta gero handik aurrea, gero ondo [...].
- Ondo sendau zan?

- Ondo geatu zan gero, bai.

## 6. Ekonomia eta industria

### 6.1. Urretxu inguruko lehengo tailerrak

- **Hizlaria(k)**: Mendiaraz Larrañaga, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-031/012
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:19:26. **Bukatu**: 00:20:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak
- **Laburpena**: Madaia lantegian ibili zen garaian, beste hainbat tailer zeuden Urretxun; haien izenak eta langintzak aipatzen ditu.

**Transkripzioa**
-Zu Madaian zenbiltzan garai hartan hemen inguruan tailler asko zegon?
-Bai, tailler hamen Urkia, Rodriguez, Alkorta, Sarralde, Aparicio, Rojo Zaldua, Zumarragan Orbegozo. Taillar asko.
-Gehienbat zertara dedikatzen ziren?
-Askok eiten zuen ba ballestak-eta kotxeendako. Orbegozok ba dana "accesorios de.." iturrindako ta, tuberik eta kodok eta gauza hoiek. Eta Apariciok berriz bonbak lenengo, solduxkako bonbak, bueno, gerrako bonbak. Eta gero ba accesorios de automoillanak, "llaves fijas, llaves estrellas" eta. Eta forja ere bai.

### 6.2. Danbolin motordunak egiteko ideia

- **Hizlaria(k)**: Mendiaraz Larrañaga, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: URR-031/020
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:35:55. **Bukatu**: 00:38:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- **Laburpena**: Danbolinak egiteko ideia nola bururatu zitzaion azaltzen du. Pixkanaka, ezaguna egin zen telebistarako grabatu zuen elkarrizketa bati esker.

**Transkripzioa**
-Eta poliesterrakin hasi zinan hartan etorri zitzaizun burura danbolinaren kontu hau?
-Bai. Baiña jubilau barik neon eta esaten nun, ni ez noa oin hastea danboliñak eiten zeatik ez det eingo ezer. Eta ia jubilau nintzanen... Ni jubilau baiño lehenao semiak lana billau zuen eta jun zien. Nik bi semekin neon lanean, eta gero erek lana billau zuenen beste taillar batzutan, jun zien. Ta nik esan nien: bueno, zuek ikusi, gustoa baldin bazaete, nik ordun

laga ingo det. Ta gustora zeren erak eta lagatzea noa. Lagatu nion ta jubilau nitzan. Ta jubilau nintzanen ordun ba astie neukan ta hasi nitzan poliki-poliki honek egiten, baiño lelengo hasi nitzan ba, lelengo urten eingo nitun hamar bat edo, hamar-hamabi. Ta etorri zien, este..., Aizpurua nola da hori, Gabiriko Euskal Telebistan dabilena.
-Andoni.
-Andoni. Andoni ta bestea Jpxe Mari Gabiri. Horrek etorri zitzatan behin eta. Zer Juanito, tanboliñak egiten dituk eta. Bai. Ikusi ein bihar diau. Etorri zien. Hau grabau ein behar degu. Ta ordun bai, ordun taillarrea etorri zien eta ein gendun prozeso dana. Txapea zeon, kurbau, zulok ein ta danak ein giñutzen, eta kamarea hartzen. Eta gero gaztaiñak erre ein giñutzen. Ta gaztaiñak erreta zein ein zuen, Donostira eaman ta gero han jan zituen segitun Andonik eta danak. Eta telebista ematen. Eta ordun jenteak ikusi zunen lelengo aldiz haure hasi zien danak hoska, baiña nola harek ez zuen ein propagandaik, ezin zeikien propagandaik ein. Ta esan zuen... hemen danboliñak ikusi dezue eiten, ta zeiñek iten due horrek ba? Urretxuko Juanito batek, Juanito dauke izena. Emango al diazu mesedez telefonue, ta. Halaxe eman zuen, batzuk etortzen zien telefonoz deitu. Baiña nik ez neukan emateko. Ez neukan eta. Urte hartan oso gaizki ibili nitzan. Ta gero hasi nitzan ba denboreakin poli-poliki eiten eta zeoze aurreratzen nun eta ordun ondo.

## 7. Iritziak

### 7.1. "Orduan erregeak baino hobeto bizi gera"

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Murua, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: URR-033/003
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:03:50. **Bukatu**: 00:04:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gaston Balerdi, Izaskun
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Soineko bakarra zuten jaiegunetarako. "Orain, orduan erregeak baino hobeto bizi gera" dio.

**Transkripzioa**
- Bueno, nik esaten det oain baiño noraiño aillau behar ote deu, esaten det nik. Guk ordun eukitzen gendiun "veintiuno", entenditzen diazu? Soiñekua baldin bazeon "veintiuno" esaten gendion, zeatik ez gendukan besteik.
- Nola veintiuno?
- Bat. Kanpoa, kalea juteko ta hola, ba jaietan ta behintzet, bat. Ta asten behin, asko ez. Ordun ez zan bate diruik . Bueno, oin bezela, ene, oin bizi gea erregek ordun baiño hobeto bizi gea. Lan eitten duenak eta jubilauta garenak eta. Horik. Horik lanik ez daukienak haik erak jakingo due zer [...]. Baiña guk garai hartatik askotan esaten diogu, gure ahizpa ta biok hemen eoten gea, ta gure aman bizimodua ze izan zan, lana besteik ez zon ein ta diruik ez zon ikusten.

## 8. 101L

### 8.1. Euskal "pedigria" ez izatearen gatazka

- **Hizlaria(k)**: Maia Soria, Jon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Erref**: URR-063/006
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:12:58. **Bukatu**: 00:14:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  101L » Integrazioa » Integraziorako bideak eta arazoak
- **Laburpena**: Gurasoei ez die inoiz entzun baztertuta sentitu zirenik, baina egia da etorkinen inguru batean bizi zirela. Semeek, aldiz, gehiago bizi izan dute "desberdin" sentitzearen gatazka.

**Transkripzioa**
Nik ez diet inoiz entzun zailtasunak o retxazoa izan dutenik, edo... Klaro, ai gera hitz egiten leku bat, non kanpotarrak zian maioria, ezta? Kanpotarrak ziran gehiengoa, eta horrek asko aldatzen du dena, ezta? Gaztelera da nagusi. Klaro, Euskal Herria da, baina gaztelera nagusi, espainiarrak nagusi, ezta? Ordun, ba, hor integratzea... zentzu horretan, ez da hain zaila. Ezta? Igual klima, o... baina hizkuntza aldetik ez daukazu arazorik, ze... ze Etxeberri auzoan, adibidez, eta oro har, ezta? Eta gehiago bai. Gu bigarren hirugarren belaunaldia geranak, ba, klaro, ya ikastolara jun geranak eta, ba, "eusko label"ik ez izatea, ezta, euskal pedigria ez izatea, abizenak, hizkuntzan ere ba gaitasun gutxiago kasu askotan... Eta gero ba gatazka politikoaren distortsio horrekin ere bai, ezta? Español dena txarra da, euskalduna dena ona, txuri ala beltz. Eta hor ya nik uste det guk izan ditugula konflikto identitario haundiagoak edo, gure baitan, igual, ezta? Hor nola kokatu, nola situatu... guri gehiago gertatu zaigula igual beraiei baino.

### 8.2. Bertsolaritzan bere lekua bilatzen

- **Hizlaria(k)**: Maia Soria, Jon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Erref**: URR-063/012
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:27:09. **Bukatu**: 00:29:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  101L » Integrazioa » Integraziorako bideak eta arazoak
- **Laburpena**: Zumaian bertso-eskolan hasi zen. Ez zuen familia erdaldunekoa zen bertsolaririk ezagutzen eta desberdina sentitzen zen. Ez zeukan orduko bertsolarien perfila. Dena arrotza egiten zitzaion eta bere buruaren onarpen prozesu bat egin behar izan zuen.

**Transkripzioa**
- Zumaian hasi zinen bertso-eskolan eta bertsolaritza, bertso mundua, bada oso-oso euskalduna.
- Bai.
- Erabat euskalduna dan...
- Bereziki.
- ... eremu bat. Eta hor oraindik desberdinago...

- Bai, nik ez nun ezagutzen nire moduko inor. Bai, zentzu horretan, "bicho raro" bat sentitzen nintzan. Gero gu ba rockaren kulturatik gatoz eta ez ginen orduko bertsolari perfil hura ezta? Gure euskera ere ez, gure unibertso imaginarioa ere ez... dana zan desberdina gurekin. Eta ba ez nuen ezagutzen bertsolaririk erdaldunen semea zenik. Alaba ez det esango, ze ez zegoen neskarik ni hasi nintzenean. Eta, ordun, ba, bueno, horrek ere ba eramaten nindun ba tapatzera, ezta? Igual gurasoekin erderaz hitz egitea beste bertsolarien aurrean... iruditzen zitzaidan desonra bat bezala bertsolaritzarentzat, ezta? Ez nun inoiz ikusi bertsolari bat, ez nun inoiz entzun, gazteleraz hitz egiten. Eta ni izatea hori ba... bff. Ordun, bai, hori dana izan zan, ba, prozeso bat nere barruan ere bai, hori dana nola eraman, ba, onartu arte, ezta? Baina kostata, oso-oso kostata. Dena arrotza zitzaidan: konbertsazioak, hitz egiteko moduak... dena.

### 8.3. Gasteizen Euskal Herri anitzago bat ezagutuz

- **Hizlaria(k)**: Maia Soria, Jon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Erref**: URR-063/013
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:29:03. **Bukatu**: 00:31:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  101L » Kultur aniztasuna
  101L » Integrazioa » Integraziorako bideak eta arazoak
- **Laburpena**: Jonen ustez, askotan Euskal Herria estereotipoen bidez idealizatu egiten dugu, baina herri txiki eta oso euskaldunez aparte, badago beste Euskal Herri anitz bat. Gasteizera Euskal Filologia ikastera joandako urteetan hori ezagutu zuen. Bertsolaritzari dagokionez, hurbilago sentitzen zituen hango bertsolariak. Esperimentatzeko ere libreago sentitzen ziren han.

**Transkripzioa**
- Gasteizko urteak inportanteak izan ziren, ez? pixka bat Zumaiatik beste leku anitzago, bueno, irekiago batera joatea eta... eta antzeko beste batzuk aurkitzea, ez, zure bidean edo...
- Bai, hor euskaldun bezela ya, ezta? ere bai. Ba herri txiki batetik ertetzea eta hiria ezagutzea. Beste Euskal Herri bat, ezta? Euskal Herria idealizatzen degu, baita ere estereotipotan. Euskal Herria esaten degunean, esaten degu, ba, burura etortzen zaigu Zumaiako kostaldea, Azpeiti, Ordiziko feria, Txindoki, Arantzazu.... Eta ez da hori. Ez da hori bakarrik. Euskal Herria gauza asko dira. Abetxuko da, Los Llanos, El Regato, Luchana, Txantrea... Euskal Herria Baionako periferiako auzoak... Gauza asko da Euskal Herria. Ta denak dira berdin Euskal Herri. Eta Gasteizen ba hori deskubritu nun, ezta? Beste modu batzuk euskalduna izatekoa: euskaraz egiten zuten beltzak, gorbata janzten zuten euskaldunak... Nik inoiz ikusi ez nituen gauzak, estereotipo asko puskatzen zizkidatenak ere bai. Rocka, beste taberna batzuk...
- Bertsolari izateko beste modu batzuk, ez?
- Bai, han, ba, eremu erdaldunean libertate gehiago, egia esanda. Eta kulturalki ere afinidade haundiagoa hangoekin, ba, igual Goierrin baino, ezta? Hurbilago sentitzen nitun haiek. Eta libreago sentitzen ginen esperimentatzeko. Hori Hernanin ezin gendun egin. Bertso tramak-eta asmatu genitunean, eta, ba, forma berriak eta gure hizkuntza berri

horrekin eta, ba, leku tradizionalagotan zaila zan gu onartzea, baina leku hoietan.... inork zapaldu gabeko lurrak ziran, ezta, oraindik, bertsotan, eta hor libreagoak ginan.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Hizkuntza marrokiarra eta arabiarraren ezberdintasunak (101-242/002)

Khalila Marokoko Fraita herritik Markinara bizitzera joan zen familiara txikia zenean. Euskara, gaztelera, marrokiarra eta arabiarra hitz egiten ditu. Arabiera, hizkuntza estandarizatu bat da. Gurasoekin eta senarrarekin marrokierraz hitz egiten du, eta anai-arrebekin gazteleraz

### 2. Bere aita, Marokotik Euskal Herrira (101-242/003)

80. hamarkada amaieran, Khalilaren aita Euskal Herrira etorri zen lanera. Garai hartan ia ez zegoen etorkin marrokiarrik ez eta gaur egungo laguntza edo erreztasunik. Urte batzuen ostean, familia ekarri zuen. Khalilak 3 urte zituen. Aita hasieran Ordizin bizi bazen ere, Markinan finkatu zuen etxebizitza, familia ekartzeko.

### 3. Alfonbrak saltzen: etxez-etxe, merkatuan eta dendak (101-242/004)

Khalilaren aita Euskal Herrira heldu zenean, ez zegoen lan askorik eta galtzerdiak erosi eta saltzen hasi zen, etxez-etxe, tabernaz-taberna... Gero alfonbrak saltzen hasi zen. Familia ekarri zuenerako, merkatu batzuetan alfonbrak saltzen zituen eta gerora, denda batzuk ireki zituen.

### 4. Alfonbrak saltzen: etxez-etxe, merkatuan eta dendak (101-242/005)

Zazpi anai-arreba dira, haietatik bi txikienak Euskal Herrian jaioak. Oporretan Marokora joaten ziren. Markinara heldu zirenean, Khalilaren familia eta beste familia bat ziren etorkin bakarrak eta oso ondo hartuak izan ziren. Bizilagunen laguntza handia jaso dute beti.

### 5. Euskararen garrantzia etorkina izanda edo ez (101-242/006)

Anai-arreba nagusiek A ereduan ikasi zuten eta gainontzekoek D ereduan. Euskaraz jakitea abantaila bat dela uste du Khalilak. Euskararekiko duen ikuspegia azaltzen du.

### 6. Euskal identitatearekin identifikatua (101-242/007)

Khalila, euskalduna sentitzen da baina batzuetan kanpotarra dela sentiarazten dute. Euskal identitatearekin identifikatzen da. Euskara, gaztelera eta marokierra modu naturalean ikasi ditu.

## 7. Euskal Herriko herri ezberdinetan bizitzen (101-242/009)

Markinan, Durangon, Eibarren, Ordizian, Lazkaon, Urretxun eta Zumarragan bizi izan da. Ez zuen familiako negozioarekin jarraitu nahi eta haur hezkuntzako goi zikloa ikasi zuen Ordizian.

## 8. Kanpotarra eta euskalduna izatearen "arazoa" (101-242/010)

Zumarraga eta Urretxun ez da horrenbeste euskara entzuten kalean. Khalila euskaraz egiten du baina batzuetan bere burua mugatzen du, pertsona batzuk ez direlako ongi sentitzen berak euskaraz dakielako eta haiek ez.

## 9. Lehenengo hitza euskaraz, aurreiritziak apurtzeko (101-242/012)

Buruan zapia eramatea bandera bat eramatea bezalakoa da eta horrek aurreiritziak sortzen ditu., nahiz eta hitz egiten hasi orduko aldendu. Lehenengo hitza euskaraz egitea asko lagundtzen dio hasierako aurreiritziekin apurtzeko.

## 10. Bihotzean herrialde bakoitzeko zati bat (101-242/013)

Etorkinen eta bertakoen arteko elkarbizitza aurreratu dela uste du Khalilak. Askotan, "kanpotar" bezala azaltzen du bere burua, baina bera ez da horrela sentitzen.

## 11. Ramadan-a, purifikazio hilabete bat (101-242/015)

Euskal Herriko eta Marokoko festak eta ohiturak ospatzen dituzte. Marokoko jaiak erlijioarekin lotuta daude. Ramadan-a zer den azaltzen du. Purifikazio hilabete bat da, bizitzan zerbait aldatzeko: besteei lagundu, elikaduran hobetu...

## 12. Ohitura marokiarrak: errezuak, arkumearen jaia, halal elikagaiak... (101-242/016)

Bost aldiz errezatzen dute musulmanek. Meka-ra begira errezatzen dute, alfonbra baten gainean. Arkumearen jaia ere ospatzen dute. Halal elikagaiak. "Halal" hitzak onuragarria esan nahi du.

## 13. Zapia eramaten hasteagatik lanean baztertua (101-242/018)

Ez du beti zapia eraman eta ipini zuenean, arazoak izan zituen lana aurkitzeko. Aurretik lan egindako denda batean ez zioten lana eman, nahiz eta langileak behar zituzten. Orain ospitalean lan egiten du eta ez du inoiz arazorik izan.

## 14. Islamofobia eta txiroen aurkako arrazakeria (101-242/019)

Etorkinen jatorriaren araberagatik baino, erlijioagatik arrazakeria gehiago edo gutxiago dagoela uste du. Musulmanen aurkako arrazakeria handiagoa izan da. Txiroen kontrako arrazakeria leku guztietan dago.

## 15. Bizikidetza ekimenak (101-242/020)

Familiarekin parte hartu du herrian antolatutako auzotarren arteko afarietan. Bizikidetzako ekimen gehiago behar dira.

## 16. Hitz batzuk marokiarrez (101-242/023)

Hitz batzuk marokiarrez

## 17. Koronabirusa dela eta, gurasoak ezi ikusi (101-242/024)

Khalilaren gurasoak Marokora bueltatu ziren anai txikienarekin. Faltan botatzen ditu eta koronabirusarekin ezin izan zidra ikusi.

## 18. Seme-alaba euskaldunak (101-242/025)

Khalilaren seme-alabek euskaraz ikasten dute eta lagunak euskaldunak dituzte. Etxean, saiatzen da haurrei euskaraz egiten. Jolasak, lo kantak... euskaraz egiten ditu.

## 19. Integratzea ez da jatorrizko herrialdeaz arnegatzea (101-242/028)

Integrazioa era natural batean egin beharko litzake gizartean onartuak izateko. Etorkinek lan asko egiten dute integratzeko. Integratzea ez da jatorrizko herrialdeaz arnegatzea.

## 20. Korrikaren lekukoa eramaten (101-242/031)

Markinan bizi zirenean, Korrika pasa zeneko argazki bat erakusten du. Lekukoa eraman zuen eta ilusio handia egin zion.

## 21. Herriko bizimodua Zumarragara joan aurretik (101-247/003)

Herriko bizimodua. Aita eta anaiak etxetik kanpora lana egiten zutenez, diru faltarik ez zuten izan. Horrez gain, etxerako behiak eta zerri pare bat hazten zituzten urtero. Goserik ez zuten pasa, hala ere, oso umetatik hasten ziren etxeko zereginekin laguntzen.

## 22. Hamasei urterekin Zumarragara lanera (101-247/004)

16 urterekin etorri zen Zumarragara. Bere arreba bizi zen ordurako hemen, bere senarra Orbegozora lanera etorri zelako eta haren bitartez lortu zuen Manuelek ere Orbegozon lana baina ez zuen gustuko ez zuelako ezer ikasten bertan. Eguzkia zeritzon lantegian izango zuen ikasteko aukera eta bertan egon zen erretirora bitartean.

## 23. Euskara ikasi beharra musean jolasteko (101-247/005)

Zumarragara heltzean egin zuen kuadrillan kanpotarrak eta euskaldunak zeuden. Euskaraz pixka bat ikasi zuen, museoan jolasteko.

## 24. Zumarraga-Urretxuko trena (101-247/006)

Bere emaztea Aizpurutxoko tren geltokian bizi zen. Ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten. Urretxura joan ziren gero bizitzera. Haurrak euskaldunak dira.

## 25. Euskaraz hitz egitea debekatuta (101-247/007)

Aizpurutxora heldu zenean lagun euskaldunak egin zituen baina euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen.

## 26. Maleta janariz betea (101-247/008)

Zumarragara etorri aurretik, Zamoran ari zen ikasten. Hasieran bakarrik sentitu zen baina gero lagunak egin zituen. Lehengusu batek egin zion egurrezko maletan, amak janaria sartu zion (txorizoak, urdaiazpikoa, babarrunak...). Tren aldaketa batean maleta zabaldu eta janari guztia erori zitzaion.

## 27. Herriko etxean landetxea dute (101-247/009)

Herrira ahal zuen denetan joaten zen, ehiza garaian batez ere. Landetxe haundi bat daukate eta familia osoa joaten dira.

## 28. Enpresako nagusiarekin harremana (101-247/010)

Manuelen arreba bat Urretxun bizi zen eta beragatik etorri zen. Inoiz ez zaio lanik falta izan. Eguzkia enpresan lan egin zuen urte askoz. Nagusiarekin harremana.

## 29. Klandestinoki makinak pasatzen (101-247/011)

Belgikan lanean egon zen aste batzuz bere nagusiarekin. Garai hartan ezin ziren makinak pasatu herrialde batetik bestera baina kontaktuak zituztenez, klandestinoki pasatu zituzten hainbat kamioi eta bestelako etxeko tresnak.

## 30. Poteora oso azkar ohitu zen (101-247/012)

Oso azkar ohitu zen poteora. Ez zegoen besterik egiteko. Apopilo zeuden lagunak zituen.

## 31. Urretxu eta Zumarraga nolakoak ziren boom industrialaren hasieran (101-247/013)

Boom industrialean, Urretxun etxebizitza falta handia zegoen. Auzo eta etxe berriak eraiki aurretik herria nolakoa zen kontatzen du Manuelek.

## 32. Urretxu nola joan zen handitzen (101-247/014)

Igandetan, dantza egoten zen plazan. Golden aretora ere joaten ziren. Urretxu nola handitzen joan zen kontatzen du (auzo berriak, tabernak...).

## 33. Emaztea, Aizpurutxoko tren geltokian lanean (101-247/015)

Bere emaztea Extremadurakoa da. Aizpurutxoko tren geltokian langile bat behar zuten eta berari eman zioten lanpostua.

## 34. Euskaraz ez jakiteagatik ez dute inoiz baztertu (101-247/016)

Aizpurutxon bizi zirenean zituzten lagun guztiak euskaldunak ziren eta gehienak baserritarrak. Askotan barkamena eskatzen zioten euskaraz hitz egiten zutelako beraien artean, baina Manuelek esaten zien e zegoela ezer barkatzekorik eta haien hizkuntza euskara zela. Askotan ulertzen zien baina gero ez zekien nola erantzun.

## 35. Seme-alaba euskaldunak (101-247/017)

Manuelen seme-alabek modu naturalean ikasi zuten euskara Aizpurutxon eta Azkoitiako eskolan. Azkoitian denek euskaraz hitz egiten zuten.

## 36. Bazterketarik ez (101-247/018)

Urolako trena itxi zutenean, Urretxura bizitzera joan ziren denerako autoa behar zutelako. Ez dute inoiz bazterketarik jasa eta oso ondo integratu da, nahiz eta euskaraz ez jakin.

## 37. Aiton-amonak, Zamora eta Extremaduratik Zumarragara (101-248/004)

Pelloren aiton-amonak, Zamora eta Extremadura utzi eta Euskal Herrira joan ziren lan bila. Zumarragako tren geltokian ezagutu ziren, aitonak bertan egiten zuelako lan. Ezkondu eta Zumarragan bizitzera joan ziren.

## 38. Udan beti herrira (101-248/005)

Pelloren amaren lagunek askotan inbidia zuten, beste herri bat zuelako berak. Udan herrira joaten dira beti. Pellorentzat, deskonektatzeko modu bat da. Lagunak ditu han.

## 39. Euskararen erabilera: unibertsitatean, kalean, etxean... (101-248/006)

Unibertsitatean euskaraz ikasten du eta euskaraz hitz egiten du, baina Urretxu-Zumarragan duen kuadrilan gazteleraz hitz egiten dute. Etxean, euskaraz eta gazteleraz hitz egiten dute.

## 40. Euskaraz hitz egiteak esklusibitatea ematen du (101-248/008)

Gainzuri ikastetxean egin zituen ikasketak, euskaraz. Euskaraz hitz egiteak esklusibitate bat ematen du. Umetako eta gaztetako lagunekin gazteleraz egiten du, nahiz eta denek eusakraz ikasi duten.

## 41. Ama euskara ikasten ari da (101-248/010)

Pelloren aita irakaslea da. Aitarekin euskaraz hitz egiten du eta ama ikasten ari da.

## 42. Udako herria, Villanueva de las Peras (101-248/011)

Udan aitonaren herrira joaten dira, Villanueva de las Peras-era. Izenaren hiru gezurrak kontatzen ditu.

## 43. Aitonari esker dira familia euskal bat (101-248/013)

Pelloren familia euskalduna izatea, aitonari eskertu behar zaio, seme-alaben ikasketak euskaraz izatera bultzatzeagatik.

## 44. Aitona harro, familia euskalduna delako (101-248/017)

Aitona, pozik eta harro dago bere seme-alabak eta iloba-ilobek euskaldunak direlako.

## 45. Valladolid-etik Antzuolara (101-254/003)

Higuera de la Serenan jaio eta Valladolid-en hasi zen. Hamazazpi urte zituenean, familiarekin Antzuolara bizitzera joan ziren eta ezkondu zenean, Zumarragara joan zen. Euskal Herrira zergatik etorri ziren azaltzen du. Ezkondu aurretik, torlojugintzako lantegi batean lan egiten zuen Bergaran.

## 46. Telefono-etxean lanean (101-254/004)

Ez zitzaion gustatzen Valladolid-en bizitzea eta oso pozik aldatu zen Antzuolara. Herrian oso ondo hartuak izan ziren. Herriko telefono-zerbitzuan lan egitea eskaini zieten ahizpei. Lana nolakoa zen kontatzen du.

## 47. Euskara iaksteko aukerarik eta denborarik ez (101-254/005)

Anak ez zuen behar izan euskarara hurbiltzea eta gainera ez zuen denborarik. Ahizpa txikienak aukera izan zuen. Baina argi zuen seme-alabak euskaldunak izango zirela.

## 48. Udan, Valladolid-eko herrira (101-254/006)

Antzuola bizitzera joan zirenean, lana izan arren oso soldata baxua zuten. Valladolid-era udan eta oporretan bueltatzen ziren.

## 49. Seme-alaba euskaldunak ditu (101-254/007)

Seme-alaben klasekideen gurasoekin harremana egin zuten eta gaur egun, lagun-talde hori mantentzen dute. Seme-alabak euskaldunak izatea nahi zuen. Senarra Segoviakoa du.

## 50. Seme-alabak haien artean beti euskaraz (101-254/008)

Haurrak ikastolan zeudenean, Anak haien artean euskaraz egitera behartzen zituen, nahiz eta berak ez ulertu. Hitz asko ikasi zituen orduan.

## 51. Jubilatuen etxean euskara ikasten (101-254/015)

Ana euskara ikasten hasi zen pandemiaren aurretik. Astean bitan joaten da eta oso pozik dago. Hitz egitea asko kostatzen zaio baina ulermena hobeagoa du.

## 52. Euskara, integratzeko funtsezko tresna (101-254/018)

Inoiz ez du pentsatu bere aurrean euskaraz aritzea errespetu falta bat dela. Euskara, integratzeko funtsezko tresna dela uste du.

## 53. Pozik eta integratua Zumarragan (101-254/020)

Ez da inoiz baztertua sentitu kanpokoa izateagatik. Zumarragan kanpoko jende gehiago zegoen eta hasieran haiekin harremandu arren, bertako lagunak egin zituzten seme-alabak ikastolan hasi zirenean.

## 54. Urretxu eta Zumarraga (101-255/002)

Sei urterekin Urretxutik Zumarragara joan zen bizitzera. "Bihotz bakar herri", Urretxu-Zumarragari buruz.

## 55. Gerraostean, Extremaduratik Valladolidera eta handik Antzuolara (101-255/004)

Gorka Hermosak, bere amaren gurasoak Extremaduratik Urretxu-Zumarragaran nola heldu ziren kontatzen du.

## 56. Aiton-amonak, Euskal Herrira oso ondo moldatuak (101-255/005)

Urretxun bizitzera ondo moldatu ziren, batez ere gerraostean Extremaduran eta Valladoliden klaseen arteko ezberdintasun handia zegoelako eta Euskal Herrian ez. Aitona Antzuolan oso ondo sentitzen zen, lagun euskaldunak zituen...

## 57. Aita Segoviatik Euskal Herrira nola heldu zen (101-255/007)

Aita, Segoviatik Euskal Herrira 13 urterekin zumarragara lanera nola heldu zen kontatzen du.

## 58. Seme-alabak euskaldun bezala heztea; Ikastola (101-255/008)

Gorkaren amaren arrazoiak, seme-alabak euskaldun bezala hezitzeko. Ikastolei buruzko ikuspegia.

## 59. Eskoletan industriako immigrazioarekin sortutako "txoke kultural"-a (101-255/009)

Eskoletan industriako immigrazioarekin sortutako "txoke kultural"-ari buruz hitz egiten du Gorkak. Gurasoak euskaldunak ez ziren eta baserritarrak ziren ikasleek, arrazakeria mota antzekoa jasaten zuten besteengandik: batzuek kanpotarrak zirelako eta besteak ez zekitelako ondo gazteleraz.

## 60. Abizen erdalduna izateagatik burlak jasotzea (101-255/010)

Gorka da guraso kanpotarrak dituen bere kuadrilako bakarra. Umetan, abizenagatik burlak jasotzen zituzten.

## 61. Ikastolan, hizkuntzagatik banatuak (101-255/011)

7-8 urte zituen arte ez zen oso ongi moldatzen euskaraz hitz egitera. Ikastolan, euskaldunak ziren ikasleak besteengandik banatuak zeuden eta besteak euskaraz trebatzen ziren heinean, beste gelara pasatzen zituzten.

## 62. Gaztelera, bihurri eta "makarren" hizkuntza (101-255/012)

Etxeko sukaldeko giroa eta musika gaztelerarekin identifikatzen ditu eta ikastolako garaia euskararekin. Ikastolako lagunen artean euskaraz hitz egiten zuten baina 14-15 urterekin gazteleraz hitz egiten hasi ziren, bihurri eta "makarren" hizkuntza zelako. Urte batzuetara kontzientzia politikoa hartu zuten eta euskaraz bakarrik hitz egiten dute gaur egunera arte.

## 63. Musika klasikotik punkera (101-255/013)

Musika ikasten 8 urterekin hasi zen eta hasieran musika klasikoa entzuten zuen umetan eta gero punkia. Akordeoia jo arren, ez zuen musika herrikoia jo nahi eta beti musika bere gustuetara moldatu du.

## 64. Akordeoia aukeratu zuen musikatresna bezala (101-255/014)

Musikagintzan nola hasi zen. Arpa aukeratu nahi zuen tresna bezala baina ez zegoenez, akordeoia aukeratu zuen.

## 65. Euskal folkloreak eta punkiak garrantzia handia du bere musikan (101-255/015)

Musika munduan, minoria baten barruan bizi izan dela sentitzen du. Euskal folkloreak eta punkiak pisu handia du bere musikan.

## 66. Politika eta herri-nortasuna (101-255/016)

Politika eta herri-nortasunaz hitz egiten du.

## 67. Hizkuntzaren arkeologian, euskara altxor bat da (101-255/017)

Kantabrian bizi arren, alabei euskaraz hitz egiten die. Euskararen ezberdintasuna beste hizkuntzekin alderatuta. Altxor bat da.

## 68. Euskaldunak, ijitoak eta juduak (101-255/018)

Euskara daukanak, euskalduna da. Euskaldun, ijito eta juduak berdintasunak.

## 69. Euskalduna eta "el pueblo"-koa (101-255/019)

Gurasoen jatorrizko herriekin kontaktu oso zuzena du. Kuadrila du han ere. Hangoa dela ere sentitzen du.

## 70. Aiton-amonen ohiturak (101-255/020)

Aiton-amonen herriko ohiturak mantendu dituzte: hitz egiteko era, esamoldeak, gastronomia, izakera... Hegoaldeko jendea irekiagoa da.

## 71. Gurasoek euskara ikasteko zailtasunak (101-255/023)

Gaztetan, gurasoei euskaraz ez ikastea leporatzen zien baina ulertzen du orduko egoerako baldintzak ez zirela gaur egunekoak. Orain konturatzen da nahiz eta euskaraz ez ikasi, esfortzu asko egin zutela ere seme-alabak euskalduntzeko.

## 72. Gurasoen esfortzua seme-alabak euskalduntzeko (101-255/024)

Gurasoek esfortzu handia egin zuten Gorka eta bere arreba ikastolan sartzeko eta euskalduntzeko. Beste herrialde batera doan edozein saiatu beharko litzake hango hizkuntza ikasten.

## 73. Euskal musikariekin harremana (101-255/026)

Euskara, koadrilarekin erabiltzen du beti. Bidaiatzen hasi zenean ez zen herrira horrenbeste joaten eta bere proiektuak euskal munduarekin lotzeko beharra izan zuen. Jon Maiarekin harremana.

## 74. Hezurbeltzak proiektuaren sorrera (101-255/027)

Jon Maia, Jesus Prieto "Pitti" eta Gorka Hermosak sortutako proiektua da Hezurbeltzak.

## 75. Hezurbeltzak proiektuaren indarra (101-255/028)

Jesus Prieto "Pitti" eta Jon Maiari buruz hitz egiten du. Proiektuaren izenaren jatorria, Euskal Herrira kanpotik etorritakoei deitzen zieten ezizenetatik (hezurbeltzak, koreano, maketo, belarri motzak...) hartuta dago. Proiektuak pisu handia izan du Gorkaren bizitzan.

## 76. Akordeoiaren historia (101-255/030)

Akordeoiari buruzko historia kontatzen du.

## 77. Akordeoia Euskal Herrira nola iritsi zen; Zumarraga (101-255/031)

Akordeoia Euskal Herrira nola iritsi zen.

## 78. Akordeoia, jende xumearen musika tresna (101-255/032)

Akordeoiaren ibilbidearen ikerketetaz hitz egiten du. Jende xumearen musika tresna.

## 79. Trikitixa edo akordeoia, infernuko musika tresna (101-255/033)

Trikitixa edo akordeoia, infernuko musika tresna.

## 80. Jose Mari Iparragirre (101-255/034)

Gorka, Iparragirreren kale berdinean jaio zen eta berarekin lotutako proiektu bat egin zuen.

## 81. Castelfidardo herriko akordeoiak (101-255/035)

Castelfidardo herrian egiten dira munduko akordeoien %90-a. Castelfidardo saria jaso zuen Gorkak.

## 82. Akordeoiarekin irabazitako sariak (101-255/036)

Irabazi dituen sari ezberdinez hitz egiten du. Orkestra sinfonikoarekin sortu zuen obra bat kontatzen du.

## 83. Musikari famatua (101-255/037)

Zelanda Berriko mutil batek bere pieza bat ikusi zuen eta partiturak eskatu zizkion lehiaketa batzuetan parte hartzeko eta guztiak irabazi zituen. Ondoren, epaimahaikideak haien jatorrizko herrietara gonbidatzen hasi ziren Gorka.

## 84. Bere piezak interneten daude eskuragai (101-255/038)

Gorkak berak sortutako piezak libreki jarri ditu interneten eta mundu osoko musika-eskoletan erabiltzen dira.

## 85. Gorka Hermosa musika-eskola Italian (101-255/039)

Italian, bere izena daraman musika-eskola bat dago

## 86. Familia Urretxura nola iritsi zen (101-256/002)

Urretxun jaio zen Jon. Ama Extremaduratik etorri zen eta aita Zamoratik. Ama 4 urterekin iritsi zen Urretxura, familia guztiarekin. Igartzako baserri abandonatu batean egon ziren bizitzen lehendabizi, geroago Etxeberri auzora joan ziren; bertan auzokide gehienak etorkinak ziren. Aita berriz 16 urterekin etorri zen Zumarragara, anaia batekin, eta Orbegozon hasi zen lanean. Anaiak inprenta bat jarri zuen. Beste anai-arrebak ere Euskal Herrira etorri ziren, gurasoak Zamoran geratu ziren. Jatorrizko herrietan ez zegoen lan askorik, Euskal Herria berriz momentu horretan industrializazio betean zegoen, Orbegozo eta Patricio Echeverria bezalako lantegi handiekin. Gerraren eragina jasandako familia zen Jonena, eta beldur horrek ere bultzatu zituen alde egitera.

## 87. Etorkin uholdea (101-256/003)

50-60 hamarkadetan, 2.000 biztanle inguru izatetik 12.000 izatera pasa zen Zumarraga. Trena faktore garrantzitsua izan zen, ondo komunikatuta baitzegoen. 4 biztanletik bakarra zen bertakoa, uholde modukoa izan zen. Etorkinen bizitza kasuala.

## 88. Etorkinen "guettoak" (101-256/004)

Etxeberri auzoan gehienbat etorkinak bizi ziren. Ghetto modukoa zen, Francoren garaian eginiko etxeekin. Nola izendatzen zituzten: "Casa baratas", "Mundo mejor", "Manchurria", "Poblado", "Catanga"... Herrien kanpoaldean egoten ziren langile auzoak ziren. Integrazioa asko zailtzen zuen. Gainera diktadura garaia zen, euskal hizkuntza eta kultura zapalduak zeuden. Klasismo askoko garaia ere bazen. Asko txaboletan ere bizi ziren, bere aitona adibidez. Lurrari oso lotuta jendea zen. Askok ez zuten jasaten lantegietako esplotazio bortitza eta jatorrizko herrira bueltatzen ziren.

## 89. Euskal "pedigria" ez izatearen gatazka (101-256/006)

Gurasoei ez die inoiz entzun baztertuta sentitu zirenik, baina egia da etorkinen inguru batean bizi zirela. Semeek, aldiz, gehiago bizi izan dute "desberdin" sentitzearen gatazka.

## 90. Euskara ikasteko aitaren ahalegin handia (101-256/007)

Umetan ikastolara joan zen eta beraz euskaraz egin zituen ikasketak. Baina hortik kanpo gazteleraz bizi zen. Kalean asko ziren etorkinen seme-alabak eta gazteleraz egiten zuten; etxean ere gazteleraz egiten zuten, batez ere amarekin. Aitak Jon jaio aurretik euskara ikasi zuen. Langile mugimenduan hasi eta abertzale giroan murgildu zen aita, eta hortik etorri zitzaion euskararekiko kontzientzia. Amaren aldetik berriz errepublikanoak ziren eta hona etorritakoan "zapaldutako bandoan" kokatu ziren, euskaldunenean. Garai hartako giroan euskara ikasteko aitaren ahalegina handia izan zen. Gau eskoletan ibili zen. Etorkin askok euskalduntasuna borroka politikoaren bitartez deskubritu zuten.

## 91. Bi Euskal Herri (101-256/008)

Bertako askok kanpokoa mehatxu gisa ikusi izan du. Aurreiritzi asko egon dira bi aldeetatik. Oraindik banaketa horrek irauten duela uste du, batez ere politikoki. Kanpotarrak izendatzeko hitzak. Garai hartako eta gaur eguneko inmigrazioan gauza batzuk errepikatu egiten dira, batez ere klasismoa.

## 92. Zumaian nortasun gatazkaren hasiera (101-256/011)

Umea zela Urretxutik Zumaiara aldatu zuten bizilekua. Zumaian ez zegoen hainbeste etorkin, herri euskaldunagoa zen, ikastolan hitanoa erabiltzen zuten... Han hasi zen Jonen nortasun gatazka. Bere familia nondik datorren eta zer egin duen ulertu behar izan du bere burua onartzeko eta lotsatu ordez harro sentitzeko.

## 93. Bertsolaritzan bere lekua bilatzen (101-256/012)

Zumaian bertso-eskolan hasi zen. Ez zuen familia erdaldunekoa zen bertsolaririk ezagutzen eta desberdina sentitzen zen. Ez zeukan orduko bertsolarien perfila. Dena arrotza egiten zitzaion eta bere buruaren onarpen prozesu bat egin behar izan zuen.

## 94. Gasteizen Euskal Herri anitzago bat ezagutuz (101-256/013)

Jonen ustez, askotan Euskal Herria estereotipoen bidez idealizatu egiten dugu, baina herri txiki eta oso euskaldunez aparte, badago beste Euskal Herri anitz bat. Gasteizera Euskal Filologia ikastera joandako urteetan hori ezagutu zuen. Bertsolaritzari dagokionez, hurbilago sentitzen zituen hango bertsolariak. Esperimentatzeko ere libreago sentitzen ziren han.

## 95. Bere identitatearekin adiskidetzen (101-256/014)

25 urte ingururekin hasi zen bere identitatearekin adiskidetzen.1997an Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusirako klasifikatu zen eta hori prestatzen ari zela, Bertolt Brecht-en hausnarketa bat irakurri zuen. Orduan lehen aldiz bere familia etorkin bezala ikusi zuen.

## 96. Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean (101-256/015)

1997ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean sartzea oso garrantzitsua izan zen Jonentzat. Bertan botatako azken agurrak, bere familiari izandako integrazioa eskertuz, oihartzuna izan zuen. Bertsoa kantatzen du. Momentu hori inflexio puntu bat izan zen. Etorkinen gaiarekin lotutako lanak, hitzaldiak... etorri ziren gero. "Riomundo" nobelan bere familiaren historia kontatzen du.

## 97. Euskara, integraziorako bidea (101-256/016)

Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen. Bere ibilbide guztia dago euskarari lotua. Euskarari dena zor diola sentitzen du. Integraziorako bidea dela pentsatzen du. Euskaldunok etorkinen harreran lehen lerroan egon beharko ginatekeela uste du. Integrazio politiketan euskara ez da oso kontutan hartzen.

## 98. Euskal Herriaren irudi estereotipatua (101-256/017)

Euskaldunen migrazioak aztertu izan ditu Jonek. Euskal Herriari buruz eraikitako irudia ez dela erreala uste du. Historikoki herri irekia izan gara, itsasoaren bitartez batez ere.

## 99. Euskaldunak ere emigranteak (101-256/018)

Euskaldunak ere emigranteak izan gara eta garrantzitsua da gure historia jakitea. Ezagutza hori izango bagenu, gaur egungo etorkinak hobeto hartuko genituzke.

## 100. Jonen hitzaldien harrena ona (101-256/019)

Ikastetxe edo elkarteetan hitzaldiak eman izan dituenean harrera beti oso hunkigarria eta esker onekoa izan da. Nahiz eta gehienek ez duten euskara ikasi, oso harro daude beraien bilobek ikasi dutelako.

## 101. "Karidadeko Benta" (101-256/020)

2003an "Karidadeko Benta" musika taldea sortu zuen. Bertsoa zegoen oinarri moduan. Doinuak beste lurralde batzuetatik hartzen zituzten, batez ere Mediterraneo aldekoak. Letretan ere ikusten da kultur aniztasuna.

## 102. "Hezur Beltzak" (101-256/021)

"Hezur Beltzak" musika taldea ikuskizun batetik sortu zuen Jonek. Bertan ezagutu zituen Gorka Hermosa eta Jesus Prieto 'Pitti'. "Hezur beltzak" izena nondik datorren. Kanpotarrei deitzeko beste modu batzuk.

## 103. Lorca eta Lauaxeta (101-256/022)

Lorca eta Lauaxetaren arteko lotura. Lauaxetak Lorca miresten zuen eta bere poemak euskaratu zituen. Frankismoan fusilatu zuten. Lorca berriz andaluziarra eta republikanoa zen, fusilatu egin zuten baita ere. Antzekotasunak.

## 104. "Abuelari" olioa (101-256/024)

Eltziegoko "Abuelari" olioaren aitabitxia izateko proposamena egin zioten. Kontzeptua, izena, eta abar aukeratzen utzi zioten. Bere amonaren familiari olibondoak kendu zizkiotela gogoratu zen eta polita iruditu zitzaion "omenaldi" hori egitea.

### 105. "Kantu bat gara" proiektua (101-256/026)

"Kantu bat gara" proiektuan berak egindako kanten letrak bildu nahi izan zituen. Liburua, diskoa eta kontzertuak sortu dira hortik.

### 106. "Gazta zati bat" dokumentala (101-256/027)

"Gazta zati bat" dokumentalean euskal gatazka desberdin tratatzen zen lehen aldiz. Erabakitze eskubidearen gaia denon artean berdintasunean jorratu beharraz hitz egiten zuen.

### 107. Euskarak nolatan biziraun duen (101-256/029)

Euskarak biziraun du batzuetan borrokatzeagatik eta bestetan elkarbizitzen jakiteagatik. Garai bakoitzera egokitzen jakin du. Herriak mantendu du bizirik. Hala ere, etorkizunerako erabaki handiak hartu beharra dagoela uste du, pedagogiarekin eta legeekin.

### 108. Euskararen "basamortua" (101-256/030)

Euskararen ezagutza handituz joan da baina erabileran hutsune asko daude, "basamortu" bat dago aisialdian. Pedagogia handia egin behar dela uste du eta hizkuntza politiketan erabaki sendoak hartu.

### 109. Agustina 'La coja' maistra (URR-016/002)

Mojenean ikasi zuen, baina lehenengo Agustina 'La Coja' maistrarekin ibili zen. Baserrian jaio zen Maria, baina zazpi urte zituela joan ziren kalera. Aita fabrikan hasi zen lanean.

### 110. Gazterik umezain (URR-016/005)

Oso gazterik hasi zen umezain. Haurdun zegoen emakume bati egiten zizkion errekaduak eta umea edukitzen zuenean bera zaintzen geratzeko izan zen. Baina, emakume hura hil egin zen erditzean. Hala ere, umea zaintzen geratu zen Maria.

### 111. Hurtado de Mendoza familiaren neskame (URR-016/007)

Lehenengo Urretxun egon zen neskame eta gero Aizkoitira joan zen, Hurtado de Mendoza familiaren etxera. Lau urte egin zituen bertan.

### 112. Mahaia zerbitzatzen (URR-016/008)

Donostiako kondesa bat etortzen zitzaien Azkoitiko etxera bazkaltzera urtean behin. Ondo jantzita joan behar izaten zuten: zapatilak, eskularruak eta amantala. Zerbitzatzeko modua asko zaindu behar izaten zuten. Mahaia prest zegoenean ondokoa esan behar izaten zuen: "los señores están servidos".

### 113. Gerran etxea arakatu zutenekoa (URR-016/009)

Gerra Azkoitiko etxean pasatu zuen, neskame. Behin, etxea arakatzera sartu ziren. Geratutako kontatzen du.

### 114. Zigorrak erromerian dantza egiteagatik (URR-016/011)

Urretxuko frontoian egiten zuten erromeria. Urretxukoa amaitzen zenean Zumarragakoa hasten zen. Dantza askea eta lotua egiten zuten, baina apaizari ez zitzaion gustatzen eta zigortu egiten zituen.

### 115. Tarteka Hotel Urolan mahaiak zerbitzatzen (URR-016/013)

Gerra amaitu zenean bueltatu zen Urretxura. Orduan otzara fabrikan hasi zen lanean. Zenbaitetan, mahaiak zerbitzatzen joateko baimena hartzen zuen fabrikan. Hotel Urolan ere egon izan da Maria mahaiak zerbitzatzen.

### 116. Iruñara ezkon-bidaian (URR-016/017)

Hiru urtez ibili zen senarrarekin ezkondu aurretik. Urretxuko elizan ezkondu ziren, Don Juan apaizarekin. Iruñara joan ziren ezkon-bidaian.

### 117. Gizona treneko paketeak banatzen (URR-016/019)

Senarrak tren-geltokian egiten zuen lan, trenean zetozen paketeak banatzen. Zaldiarekin eta gurdiarekin ibiltzen zen. Kanpoko jende ugari egon zen orduan herrian eta pakete asko jasotzen zituzten.

### 118. Kanpoko jendea etxean apopilo (URR-016/023)

Sasoin batean, kanpoko jende ugari etorri zen herrira. Herritar batzuek apopilo hartzen zituzten etxean.

### 119. Bareak batu behar baratzean (URR-016/027)

Alkortarenean neskame egon zenean, baratzeko bareak batu behar izaten zituen. Batutako erakutsi egin behar izaten zuen.

### 120. Etxeko morroia (URR-016/029)

Gerra garaian miseria handia zegoen. Sasoi hartan, mutil kozkor bat hartu zuten morroi baserrian. Aurreko etxean, sukaldeko harrian egiten omen zuen lo mutil hark. Behin, gari meta bi erre zituen nahigabe.

### 121. Maisu erdalduna eskolan (URR-017/003)

Azpeitiko eskola nazionalean ibili zen Inazio. Maisua erdarduna zen. Eskolan erdaraz egin behar izaten zuten, baina kalean ez zen erdararik entzuten. Kapilara joan behar izaten zuten dotrina ikastera.

### 122. Parrokoarengana dotrina galdetzera (URR-017/004)

Komunioa egiteko dotrina jakin beharra zegoen. Parrokoak galderak egiten zizkien. Behin gertatutako anekdota kontatzen du.

### 123. Erromeria Bar Navarron (URR-017/007)

Avenidako Bar Navarron erromeria egiten zuten soinuarekin. Azkoitiko Kandidok jotzen zuen soinua.

### 124. Dantza lotua debekatuta Azpeitian (URR-017/009)

Azpeitian gogorrak ziren dantza lotuarekin. Gazteak dantzan helduta ikusiz gero, kongregaziotik botatzen zituzten. Behin, alkateari idatzi zioten Loiolatik dantza lotua debekatzeko eskatzeko.

### 125. Esaera zaharrak (URR-018/002)

Esaera zaharrak aipatzen ditu.

## 126. Santa-eskearen inguruko kontuak (URR-018/003)

Santa-eskaleak ez ziren bere etxera joaten, baina Ezkiora eta inguruko baserrietara bai. Gabon eskean ere ibiltzen ziren, baina helduak bakarrik. Orduko eta oraingo eskearen arteko ezberdintasunak. Inguruko baserrietako santa-eskaleek, Josepiren etxean uzten zituzten zapatak eta abarkekin joaten ziren eskera. Bueltako garaian aldatzen zituzten berriz ere oinetakoak. Pasoko etxea zelako egiten zuten bere etxean.

## 127. Legazpitik Eitzagara garoa eramaten (URR-018/004)

Garoa Legazpi ingurutik Eitzagaraino eramaten zuten; bide luzea egiten zuten oso preziatua baitzen.

## 128. Garotako kontuak (URR-018/005)

Orduko etxeko janaria aipatzen du, esnea etab. Behi bat zuten etxean eta garoa ekartzeko gurdiz moldatzen ziren. Pasadizo bat kontatzen du.

## 129. Intxaur-saltsa eta konpota (URR-018/006)

Etxeko intxaur eta esnearekin intxaur-saltsa egiten zuten eta errezil-sagar eta aranekin konpota.

## 130. 1919an Elorriagazpi baserrian jaioa (URR-018/008)

Bere burua aurkezten du, 87urte dauzka. 1919ko irailaren 17an jaioa, Zumarragako Elorriagazpi baserrian. Aita Zegamakoa eta aita bertakoa zituen. Aita Kuban egondu zen gerran.

## 131. Urretxun Agustinaren eskolan ibilitakoa (URR-018/009)

Senitartea hiru anaiek eta berak osatzen dute. Eskolan Urretxun ibili zen, Agustinaren eskolan. Dotrina zen orduko ikasketa nagusia. Agustina irakaslearen pelukera lanetan jarduten zuen eskolan. Mojetan ere ibili zen, baina denbora gutxian.

## 132. Ardizain Izazpi mendian (URR-018/010)

Ardizain egoten zen Izazpi mendian eta egunero jaisten zen etxera. Diru gutxi ordaintzen bazuten ere, berak arkumeak prestatu eta aitak saltzen zituen. Ardiak ibiltzeko terrenoak erostea gustatzen zitzaion aitari.

## 133. Elorriaga baserriaren kokalekua (URR-018/011)

Elorriaga baserriaren kokalekua eta ingurua aipatzen ditu.

## 134. Garia eta artoa ereiten zituzten (URR-018/012)

Aldapa handiko ingurua dauka baserriak eta soroa lantzeko gaizki ibiltzen ziren. Garia eta artoa egiten zuten baina gariak diru gehiago ematen zien.

## 135. Ogia egiten etxean eta Sagaspen (URR-018/013)

Ogia etxean egiten zuen eta baita inguruko baserri batean ere, Sagaspen.

## 136. Gazte-denboran etxean lanean (URR-018/016)

27 urtera arte, ezkondu arte, etxean aritu zen lanean. Ama gazterik hil zen eta etxeko lanak eta anaien zainketa bere esku geratu ziren.

## 137. Lixiba egitera errekara (URR-018/017)

Lixiba errekan egiten zuten: lehenengo, barrika batean egosi eta askan egiten zuten. Errekaren kokapena aipatzen du. Esaera zaharra.

## 138. Erromeriara, Atxurtzara eta Oletara (URR-018/018)

Udan, Atxurtzara eta Oletara joaten ziren erromeriara. Orduan mendi bidea zen dena eta oinez jaisten ziren kalera. Baita mezara ere.

## 139. Senarra Ezkiokoa (URR-018/020)

Senarra Ezkiokoa zen, baina etxetik gertukoa. Auzoko mutilen inguruko kontuak.

## 140. Senarra Bartzelonan eta Mahonen soldadutzan (URR-018/022)

Senarra soldadutzan Bartzelonan eta ondoren Mahonen egon zen. Soldadutzatik etxera itzuli behar zuenean belauna hautsi zuen zalditeriako zaldi batekin istripua izanda. Lagunak lizentziatu egin ziren eta berak, berriz, ospitalean egon behar izan zuen 40 egunez. Oso trebea omen zen zaldi gainean. Erdaraz ez zekien askorik.

## 141. Gernikan, Bilbon eta Santanderren gerratean (URR-018/023)

Soldadutzatik bueltatu eta hamabost egunera, gerrara joan beharra izan zuen. Gernikako bonbardaketa mendi batetik ikusi zutela kontatzen omen zuen. Gernikatik Bilbora eta handik Santanderrera bidali zuten eta han preso egon zen.

## 142. Gerra ondoren zazpi urtez nobiotan (URR-018/024)

Gerra ondorenean exera itzuli eta beste zazpi urte pasa zituzten nobiotan. Ez zuten diru askorik ezkontzeko, ordura artean senarra morroi eta bera baserrian aritu ziren lanean.

## 143. Ezkondu ondoren Eitzara bizitzera (URR-018/025)

Ezkondu ondoren, senarra, Paulo, lantegian hasi zen lanean eta Eitza auzora jaitsi ziren bizitzera. Josepik gustuko zuen aldaketa, kaletik gertuago zeuden. Eitzako baserrian, behi bat eduki zuten etxerako esnea ateratzeko. Senarra lantegian eta Josepi etxeko lanetan eta baratzean aritzen zen.

## 144. Eitzan denak euskaldunak (URR-018/032)

Eitzan garai hartan denak euskaldunak ziren. Baserriak, ganadua eta inguruko jendea aipatzen ditu.

## 145. Antiotik astoan plazara saltzera (URR-018/033)

Gaztetan plazara saltzera jaisten zen Antiotik astoan. Etxera petrolioa eramaten zuen kandiletan; ez zuten ez argirik ezta urik ere. Aitak jarri zuen gerora.

## 146. Eramandadea, deskalabruetan laguntzeko (URR-018/034)

Antion ermandadea zeritzona egiten zuten auzokoen artean. Ganaduren bat gaixotu edo hiltzen bazen edota deskalabruren bat pasatuz gero, laguntza modura, ordaina ematen zitzaion. Ermandadeko partaideen aipamena.

## 147. Argi zentrala Aizpurutxon (URR-018/036)

Argindarra anaiak jarri zuen etxean. Zentrala Aizpurutxon zegoen eta handik eramaten zuten baina askotan argi gabe egon ohi ziren. Zentralen izenak.

## 148. Petrolio kinkaiez egindako argia (URR-018/037)

Udaran ez zen urik egoten eta turbinarik mugitu ezin zenez argi gabe geratzen ziren. Petrolio kinkaiekin egindako argiz baliatzen ziren. Kristalezko hodi baten barruan petrolioa jarri eta metxaz su ematen zitzaion.

## 149. Medikua etxez etxe (URR-018/039)

Medikua etxez etxe ibiltzen zen eta ordaindu egin behar izaten zen. Izendatu egiten ditu medikuak eta pasadizo bat kontatzen du.

## 150. Gerra aurreko maisua (URR-021/002)

Sei urte zituela hasi zen eskolara. Maisu erdalduna zuten. Maisu ona zen, baina gogorra. Gerra sartu zenean, maisutza utzi egin behar izan zuen, gorria zen eta.

## 151. Eskola gutxi, baina dotrina ondo ikasi behar (URR-021/003)

Hamaika urte zituela, gau-eskolara hasi zen Felipe. Hala ere, neguan baino ez zen joaten, etxean lagundu beharra zegoen eta. Dotrina ondo ikasi behar izan zuen komunio handia egiteko.

## 152. Hamabost urte zituela morroi (URR-021/006)

Hamaika urte zituela eskola utzi eta ardiak zaintzen ibili zen. Hamabost urte bete zituenean morroi joan zen izekoren baserrira. Ganadua zaintzea zen bere betebeharra. Ondoren Aparizion hasi zen lanean, gerra sasoian bonbak egiten.

## 153. Soldadu Ferrolera (URR-021/007)

Gerra amaitu zenean, hainbat langile kaleratu zituzten Aparizion, tartean Felipe. Morroi egon zen soldadu joan behar izan zuen arte. Ferrolera joatea tokatu zitzaion, itsas armadara.

## 154. Udan Zumaiako hondartzara (URR-021/008)

Udan, trena edukitzen zuten Urretxutik Zumaiara joateko. Hondartzara joaten ziren mutikotan. Hamar zentimo kobratzen zuten bainujantzia alokatzea.

## 155. Soldadu itsas armadan (URR-021/009)

Ferrolera 110 gipuzkoar joan ziren soldadu. Lehenengo, sei hilabete pasatu zituen kuartelean eta gero itsasontzira. Itsasontzira sartu zen lehenengoan zorabiatu egin zen.

### 156. "Caminero, poco dinero" (URR-022/003)

Aita bidezaina zen, bideak egiten aritzen zen. Dena eskuz egiten zuten. Bidezainek alfer-ospea zeukaten. "Caminero, poco dinero" esaten zen orduan. Bideak egiteko, zer lan izaten zituzten azaltzen du.

### 157. Gurasoen nondik norakoak, Urretxura iritsi arte (URR-022/004)

Gurasoak Alegian bizi ziren, baina hezetasuna zela-eta, arazoak izan zituzten, eta etxez aldatu ziren orduan. Gurasoak, jatorriz, baserritarrak ziren.

### 158. Urtean zehar Urretxun, eta udan baserrian (URR-022/006)

Asunek 3 urte zituela joan zen bere familia Urretxura bizitzera, bidezainen etxera. Eraikin hartan, beste 3 familia bizi ziren. Baratzeak eta oilategia zeuzkaten, eta ama aritzen zen lan horietan. Udan, Asun baserrira joaten zen; eta han zer lan izaten zituen aipatzen du: iturritik ura ekarri, itulan egin, ganadua zaindu... Orduan, komeriak izaten zituen, "kale-umea" izateagatik.

### 159. Baserriko lanetan, komeriak (URR-022/007)

Uda baserrian igarotzen zuen, eta hango lanetan aritzen zen. Ur bila joatea gustatzen zitzaion gehien. Ura oso goxoa izaten zen. Ganadua zaintzeko, komeriak izaten zituen.

### 160. Osabaren maldizioak (URR-022/008)

Uda osaben baserrian ematen zuen, eta osaba batek errieta egiten zion, "kale-umea" zela esaten. Haren maldizioak gogoan ditu.

### 161. Umore on aparteko osaba (URR-022/009)

Osaba oso umoretsua zen, pertsona gutxi bezalakoa. Harekin gustura egoten zen Asun. Irratia zeukan osabak, eta Radio Pirenaica entzuten zuten han.

### 162. Erdaraz ez jakiteagatik pasatako estutasunak (URR-022/011)

Mutilak maristen eskolara joaten ziren; neskak, gurutzeko alabenera. Klasean, 40 bat ume izaten ziren; dena erdaraz ikasten zuten, eta Asuni oso gogorra egiten zitzaion hori, ez baitzekien erdaraz. Behin, leihotik salto egin zuen, zigortuta haserretu zen batean.

### 163. Erdaraz ez jakiteagatik pasatako lotsak (URR-022/012)

Euskaldunei "habla en cristiano" esaten zieten lehen. Beraiek beti lotsatuta egoten ziren. Herri txikietan ez zen horrelakorik gertatzen, eta haietan ez dute ulertzen beraiek pasatakoa.

### 164. Euskararen aldeko "pirulinak" (URR-022/013)

Beraiek, etxean, beti euskaraz egiten zuten. Aitak "pirulin" batzuk jartzen zizkien zintzilik; eta erdaraz hitz egiten ez bazuten, oparitu egiten zizkien.

### 165. Etxean, errespetua eta bizimodu lasaia (URR-022/014)

Etxean, errespetu handia zegoen. Orduko eguneroko bizimodua nolakoa zen azaltzen du. Santa Ritari fede handia izan diote etxean.

## 166. Erdaraz jakiteagatik, besteak baino azkarragoak? (URR-022/015)

Umetatik hona, erdaldun kopurua hazi egin da Urretxun, asko. Erdaldunak beraiek baino espabilatuagoak balira bezala portatzen ziren.

## 167. Erdaraz ikasi zuen lehenengo kanta, Seguran (URR-022/016)

Umea zenerako, bazeuden erdaldunak Urretxun; baina Seguran eta Zegaman, ez. Seguran ikasi zuen Asunek lehenengo kanta erdaraz, eta oraindik gogoan du.

## 168. Lehen, latina; orain, ingelesa (URR-022/017)

Lehen, mezak latinez izaten ziren. Arratsaldean, bezperetara joaten ziren. Gaur egun, latinaren ordez, umeek ingelesa ikasten dute.

## 169. Greba zenean, euskaldunak kartzelara (URR-022/019)

Grebak erdaldunek antolatzen zituzten; baina, kartzelara, nazionalistak eramaten zituzten. Gizon batzuek beraien kabuz joaten ziren kuartelera, bai baitzekiten atxilotu egingo zituztela. Beraiek beti izan dute garbi euskaldunak zirela.

## 170. "En aquí, ez; aquí" (URR-022/021)

Baserriko osabak gutxi egiten zuen erdaraz; baina, Asunek akatsen bat egiten zuenean erdaraz, zuzendu egiten zion.

## 171. Gose garaia izanda ere, jatun txarra (URR-022/024)

Beraiek, etxean, ez zuten goserik pasa, gurasoek beti izan baitzuten lursailen bat, hango uztari esker bizitzeko. Asun ez zen jatun ona umetan.

## 172. Lehen, irain gehiago euskaraz (URR-022/026)

Lehen, hitzik itsusiena eta gogorrena "alua" zen. Orduko irainak aipatzen ditu: txotxolo, txepel, ñaño, oilo... Gaur egun, hitz eta esapide horiek galdu egin dira. Euskara eta erdararen arteko itzulpenei buruzko iritzia ematen du.

## 173. Lehenengo trajea estreinatu zuenekoa (URR-022/031)

Lehenengo trajea ahizpak egin zion, eta 17 urte zituela estreinatu zuen. Dantzan aritzen ziren ordurako, eta etxera ailegatu zen batean, zapatak zurituta zeuzkala konturatu zen; izan ere, mutilarekin dantzan ibilita, zapaldu egin zion, itxuraz.

## 174. Zumarragako eta Urretxuko musika-bandak (URR-022/032)

Urretxun dantza lotuan ibiltzen ziren; Zumarragan eta Urretxun musika-bandak zeuden, baita Tilili musika-taldea ere. Beraiek Zumarragara joaten ziren, hango bandak oso ondo jotzen baitzuen. Prozesioak zirenean, gustura joaten ziren haiek ikustera.

### 175. Lehen, gutxiago garbitu arren, usain txarrik ez (URR-022/039)

Lehen, dutxarik ez zeukaten. 13 urterekin ezagutu zuen lehenengo dutxa, baina dutxa hotza zen hura. Lehen, ez zuten beraien burua garbitzeko ohitura handirik izaten, baina ez zen halako usainik igartzen. Etxean, simaurra izaten zuten, baina ez zien molestatzen.

### 176. Eskolara bidean, gizonen komentarioak entzun behar (URR-022/040)

Legazpira bizitzera joan zirenean, 13 urte zituen Asunek. 15 urtera arte ibili zen eskolan. Eskolarako bidean, gizon mordoa egoten zen, eta haien komentarioak entzun behar izaten zituen egunero.

### 177. Donostiara, ume-zaintzaile (URR-022/042)

Eskolan ibili zen 15 urtera arte; gerora, josten ikasten aritu zen; eta Donostiara joan zen lanera, aberats batzuen etxera, ume-zaintzaile. Han, zer lan izaten zituen aipatzen du. Etxe hartan, erdaraz hitz egiten zuten, baina etxekoandrearen aitak bazekien euskaraz.

### 178. Toxikomanoei laguntzen ibilia (URR-022/046)

Lehen, toxikomano gehienek heroinarekin izaten zuten arazoa. Garai hartan, HIESa etorri zen; esaten zutenez, laborategian sortutako gaitza zen hura. Asun toxikomanoak zaintzeko zentro batean egon zen Borja herrian, eta han sukaldeko lanez arduratzen zen. Jendeari sendatzen laguntzeko, zer egiten zuten aipatzen du.

### 179. Auzoko baserriak (URR-023/002)

Auzoan zazpi etxe zeuden. Izenak esaten ditu.

### 180. Feria osteko askariak tabernan (URR-023/003)

Urretxun hilean behin egiten zuten feria, lehenengo asteartean. Auzoko guztiak batzen ziren feriarako eta ondoren askaria egiten zuten tabernan. Gizarraldeneko tabernan batzen ziren eta Kortaberrirenean.

### 181. Santa Luziak Urretxun antzina (URR-023/007)

Lehenago, Santa Luziak Urretxun ospatzen omen zen. Burdina handi bat jarri zuten herrian astoak lotzeko. Egunero jaisten ziren baserritarrak astoarekin esnea partitzera, baita eurak ere.

### 182. Esnea saltzen herrira (URR-023/008)

Etxeetara saltzen zuten esnea. Bezeroek astero-astero ordaintzen zieten. Marmitak erabiltzen zituzten esnea partitzeko, neurri ezberdinetakoak. Berrogeigarren hamarkada inguruan hasi ziren esne-saltzaileak ("letxeroak").

### 183. Izotzaldiaren eraginez jatekorik ez behientzat (URR-023/011)

Behin izotzaldi itzela egin zuen eta behiak jateko gabe geratu ziren. Belar ondua eta pentsua ematen zieten. Orduan esne gutxiago ematen zuten behiek.

### 184. Esne litroak berrogeita bost zentimo (URR-023/013)

Berrogeita bost zentimo inguru balio zuen esne litroak Zesarea gaztea zenean. Txakur txikiak eta handiak kobrezkoa ziren, beltzak. Erreala ere erabiltzen zuten orduan. Erreal biko txanponak zuloa edukitzen zuen erdian.

### 185. Jai egunean dendara (URR-023/015)

Esnea partitzen irabazten zuten diruarekin dendara joaten ziren asterako behar zituzten gauzak erostera: kafea, azukrea, arroza, xaboia... Urretxuko Goiko Kaleko dendetara joaten ziren eurak. Jai egunean kobratzen zieten asteko esnea bezeroei eta orduan joaten ziren dendara.

### 186. Amak eta Zesareak baserriaren ardura (URR-023/016)

Anaiak fabrikan hasi ziren lanean eta orduan amak eta Zesareak hartu zuten baserriaren ardura. Bost-sei behi zituzten eurek. Lan asko egin behar izan zuten amak eta berak.

### 187. Behien gaitzak (URR-023/017)

"Txiza-gorria" izeneko gaitza harrapatzen zuten behiek. Zesarea umea zenean behiek "lanparoia" ere edukitzen zuten, birikietako gaitza. Behiak hiltzen zirenean, lurperatu edo erre egiten zituzten.

### 188. Ogia etxean bertan egiten zuten (URR-023/019)

Soroa ere asko zeukaten. Garia eta artoa, esaterako, urte osorako hartzen zuten. Ogia etxean bertan egiten zuten. Lehenengo orea egiten zuten, aurreko labesuko berantzagia ("beantzaie") erabilita. Zortzian behin egiten zuten ogia, sei bat ogi.

### 189. Errotaren funtzionamendua (URR-023/021)

Errotak nolakoak ziren azaltzen du: goitik aleak botatzen ziren eta beheko harriak eiho egiten zituen uraren indarraz. Errotariak irina hartzen zuen lanaren truke.

### 190. Abarkak, artilezko galtzak eta abarka-sokak (URR-023/024)

Abarkak jantzita joaten zen Zesarea esnea partitzera. Artilezko galtzak erabiltzen zituzten, abarka-sokekin lotuak. Abarka-sokak etxean egiten zituzten. Haria ere etxean bertan egiten zuten, kardekin.

### 191. Zumarragako azoka (URR-023/025)

Zumarragako azokara etortzen zen abarka saltzailea Azkoititik. Azoka horretan, oilaskoak, barazkiak, arrautzak eta frutak saltzen ziren. Oihalak ere saltzen zituzten. Zumarragako udaletxe azpian egiten zen azoka eta farmazia dagoen lekuan.

### 192. Jaietako arropak (URR-023/026)

Jaietarako zapatak janzten zituzten. Orduan bekatua zen neskek prakak janztea. Goitik blusa janzten zuten, txanbra. Eskoteak Zesarea ezkondu eta gero hasi ziren. Beltzez ezkondu zen bera. Orduan, besoak ere estalita eramaten zituzten.

## 193. Etxeko lanetarako arropak (URR-023/028)

Etxean jantzia erabiltzen zuten emakumeek eta oinetan apretak. Buruko painelua ez zuten beti erabitzen; amantalera, ostera, bai. Hamaika bat urte zituela egin zioten lehenengo amantala. Mutilek prakak eta alkandora janzten zituzten.

## 194. Aitak ez zuen neskentzako eskolarik nahi (URR-023/030)

Eskolara eta mezetara oinez jaisten ziren. Eskolan bederatzietan sartzen zen eta lehenago esnea partitu behar izaten zuen. Aitak ez zuen eskolarik nahi neskentzat, eskola asko ikasiz gero kalera joango zirela esaten zuen eta.

## 195. Zazpi urte zituela neskame (URR-023/034)

Zazpi urte zituela neskame joan zen, umeak zaintzera. Goizetan eskolara bialtzen zuten Zesarea, esnea partitu ondoren. Umeak lo zeundenean, egurretara bialtzen zuten. Bizkarrean hartuta ekartzen zituen egurrok. Batzuetan berandu heltzen zen eskolara eta etxekoandreak etxera bueltatzeko agintzen zion.

## 196. Hilean ogerleko bat (URR-023/035)

Gauetan sukaldea jaso behar izaten zuen Zesareak eta goizerako kafea egin. Goizetan, txahalei ura eman behar izaten zien. Hilean ogerleko bat irabazten zuen. Urtean azkenean ematen zizkioten hamabi ogerlekoak.

## 197. Komunio txikia eta komunio handia (URR-023/036)

Lehen, lehenengo komunioa zazpi urte zituztenean egiten zuten eta beste bat hamarrekin; komunio txikia eta komunio handia. Azken honetarako prestatzeko, neskame lanak utzi egin zituen Zesareak.

## 198. Ura eta argia aspalditik etxean (URR-023/039)

Beti ezagutu ditu ura eta argia etxean. Aita mutil koskorra zenean jarri zuten ura etxean. Lehenago, amadreak etxe ondoko errekatik ekartzen zuen ura eta bertan garbitzen zuen arropa. Santa Kurutze atzean jaiotzen zen erreka hura.

## 199. Soroa laiatzen (URR-023/041)

Soroan laian ibiltzen ziren Zesarea eta ama. Zapatu arratsaldean jai hartzen zuten fabrikan eta orduan baserriko lanetan laguntzen zuten mutilek eta aitak. Artoaren lurra baino ez zuten laiatzen; gariarena, ostera, goldatu.

## 200. Baserriaren egitura (URR-024/005)

Etxaburubekoa baserria nolakoa zen. Bi solairuko bizitza zen. Baserriak ez zuen mandiorik, eta bizkarrean hartuta igo behar izaten zuten "bildutako genero guztia".

## 201. Abereen zainketa lanak (URR-024/006)

Ganaduari azpiak zenbatero egin, aldatu... Simaurra ateratzeko, ukuilu-aitzurra edota zitz-aitzurra erabiltzen zuten.

### 202. Behiak (URR-024/007)

Esnetarako lau-bost behi zituzten. Idi faltan, behiak uztartzen zituzten lurra lantzeko. 16 litro esne ematen zuen behia "behi ona zen" dio Areizagak.

### 203. Lurra lantzea (URR-024/008)

Idi faltan, behiak uztartzen zituzten lurra lantzeko. Hiru hektarea inguruko soroak zituzten. Lehen, "gaztaina sastraka ugari" omen zen Etxaburubekoa inguruan.

### 204. Laian, bost urterako (URR-024/009)

Laian nola egiten zuten, noiz... Generalean, hiru lagun aritzen ziren. Bost urterako gurasoen erdian hasi zen Felipe laian, laia bakarrekin. 12 urterako hasi zen bi laiarekin.

### 205. Lurra goldatzea (URR-024/010)

Lurra nola goldatzen zuten. Golde txikia: nolako tresna zen deskribatzen du. Lur jasotzea.

### 206. Lur jasotzea (URR-024/011)

Lurra goldatu ondoren, lur jasotzea egin behar izaten zen. Etxaburun gurdiarekin egiten zuten. Legazpin beste hiru lagunekin ibilia da lur jasotzen. Sorobarrenean otarra lurrez bete, eta bata bestearen jarraian ilaran jarrita, otarra bizkarrean elkarri pasatuz, gora jasotzen zuten lurra.

### 207. Etxaburu inguruko lurrak (URR-024/012)

Etxaburubekoa inguruko lurrak, "goseak". Narrosko markesak Etxaburu erosi zuenean Feliperen birraitonari lurrari buruz esandakoa. Ez zuten lurrik ureztatzen.

### 208. Pago-hostoa eta otea, abereentzat (URR-024/013)

Lurra lantzea: lehen ez zen ongarririk erabiltzen. Abereen jana: pago-hostoa biltzera joaten ziren basora. Kimatzea. Ote sailak. Otea bildu, etxera eraman eta puntzoi batekin txikitzen zen. Gero, ganaduari ematen zitzaion jateko.

### 209. Pagadiak eta Irimo aldeko txondorrak (URR-024/014)

Mendian dena pagadiak ziren. Inguruko lurretan lehendabiziko pinua Feliperen osaba batek sartu zuen. Egurra saldu egiten zuten. Irimo "txondor-zuloz josita" zegoen. Felipe mutikoa zela, bi txondor erre omen ziren Irimon. Ataungo basomutilak ibiltzen ziren ikatza egiten. Antzuolako mugan, zazpi txondor batera ezagutu omen zituen: Ikazkiñeta esaten zioten leku hari.

### 210. Txondorrak eta ikatza (URR-024/015)

Txondorra nola egiten den. Mandazainak ibiltzen ziren ikatza kargatu eta Zumarragako tren-geltokira eramaten. Ikatza zakuka saltzen zen.

### 211. Egurra, diru-iturri (URR-024/016)

Pagoa aizkoraz ebakitzen zuten. Su-egurra saltzeko izaten zen. Pago tonelada, 25 pezetan ezagutu zuen Felipek. Haritz toneladak, berriz, 20 pezetan. Pagoa garbiagoa eta biziagoa da sutarako.

## 212. Irimoko harria (URR-024/018)

Irimoko harriaren famaz hitz egiten du. Larregiko harrobiari buruzko kontuak.

## 213. Egurra eta mandazainak (URR-024/019)

Egurra eta labrantza ziren baserriko bizibidea. Egurra toki batetik bestera emateko baziren kableak, baina mandoarekin garraitzen ziren gehienean enborrak. Enborrak mandoei nola kateatzen ziren azaltzen du. Mandazainak nafarrak izaten ziren.

## 214. Idiak eta uztargilea (URR-024/020)

Urretxun ia baserri gehienetan zeuden idiak. Azpeitiko, Tolosako eta Asteasuko uztargileak joaten ziren Urretxura uztarriak egitera. Uztargileak idien neurriak hartu eta egun guztia pasatzen zuen uztarria egiten. Pago egurrarekin egiten ziren uztarriak. Erak, kopetakoak...

## 215. Ferratzailea (URR-024/021)

Bar Ixabelen azpian zegoen ferratzailea. Aitak mutikotan bidaltzen zuen behiak ferratzera. Abereak nola ferratzen ziren. Burdinazko ferrak.

## 216. Ijitoak (URR-024/024)

Baserriz baserri ibiltzen ziren ijitoak. Normalean, eskean ibiltzen ziren, eta lapur fama "ikeragarria" zuten. Astoekin tratuan aritzen omen ziren.

## 217. Burgos aldeko galbahegileak (URR-024/025)

Baziren etxez etxe galbaheak saltzen eta konpontzen ibiltzen ziren gizonak. Burgos aldekoak omen ziren, eta mandoa "ondo kargatuta" edukitzen zuten.

## 218. "Parageroak" eta zorrontzaileak (URR-024/026)

Etxez etxe lapiko ipurdiak konpontzen aritzen ziren "parageroak". Galizia aldetik etortzen ziren "parageroak". Zorroztaileak.

## 219. "Trapu zaharra, pote zaharra!!" (URR-024/027)

Lehen, "estimazioa zuen" trapu zaharrak. Etxeko trapu zaharrak eta ardi ileak hartzen zituen traperoak. "Etxekoandre!! Trapu zaharra, pote zaharra!! Todo bueno..." esaten omen zuen Carrillo izeneko trapero batek.

## 220. Larrua eta abarkak (URR-024/028)

Behiaren larruarekin abarkak egiten ziren. Larruari kare bizia bota eta harekin lehortzen zen. Zurdazko abarka-sokak. Larruzko eta gomazko abarkak.

## 221. Morroi eta Aparizionean lan egindakoa (URR-024/029)

15 urterekin Legazpiko Zelanda baserrira joan zen morroi. Izeba eta osaba zituen han. Bi urte egin zituen morroi. Gerrara ez joateagatik, etxera bueltatu eta Aparizionean hasi zen lanean. Hiru errelebotan egiten zuten lana: egunean, 1.000 bonba egiten zituzten.

## 222. Zumarraga-Urretxuko lantegiak (URR-024/030)

Zuma lantegiak: Busca, Mendizabal, Agirre, Legorburu... 1915ean, Eguzkia burdin lantegia jarri zen martxan. Serralde fundizioa, Aparizio, Orbegozo...

## 223. Emakume asko Aparizio lantegian (URR-024/031)

Emakume askok egiten zuen lan Aparizioneko lantegian. Haien eginkizunak zein ziren aipatzen du Felipek. Gerra denboran zen, eta askok bikotea frontean zuten.

## 224. Baserriko lanak eta lantegikoak (URR-024/032)

Morroi egon zen denboran ikasi zuen bizikletan ibiltzen, baina ez zuen bizikletarik erosi gero. Baserritik oinez joaten zen Aparizioneko lantegira: 20 minutuko bidea zuen. Eguerdietan, etxera bueltatzen zen bazkaltzera, eta, tarte horretan, behien azpiak ere egiten zituen lanera joan aurretik.

## 225. Bidegintzan ibilia (URR-024/033)

1946an hasi ziren auzoko bidea egiten. Zazpi urte behar izan ziren bidea bukatzeko. Felipe bide-lanetan aritu zen. Zer lan egiten zuen eta zenbat irabazten zuen aipatzen du. Lan-tresnak: dinamita, pikatxoia eta pala. Auzotarrek dirua eman zuten bidea egiteko. Iraberriko errekatik ateratzen zuten losa "kañuk" egiteko.

## 226. "Orduak jo du!" (URR-024/037)

Gerra denboran, kaleko emakume asko joaten zen Feliperen baserrira gari-azaoak egitera. Arratsaldeko hiru pezeta eta merienda ematen zien Feliperen amak. Emakume batekin izandako pasadizoa kontatzen du.

## 227. Gari-jotzea (URR-024/038)

Gari-jotzea eskuz egiten zen. Ganbaran egiten zuten gari-jotzea. Auzolanean egiten zuten. Auzoko batzuen etxera joandakoa bi igandetan gari-jotzera: lanak egiten eta gero, albergan garbitzen ziren.

## 228. Hiru urte eta erdi soldadutzan (URR-024/040)

Hiru urte eta erdi egin zituen soldadu Ferrolen (Galizia). Gosea pasatu zuten. Gerra ondoreneko aurreneko soldaduak ziren, eta diziplina handia zegoen. Cervera barkuan ibili zen: 800 lagun egon ziren barkuan, nolako kainoak zituen... Hiru egunetik behin guardia egin behar izaten zuen.

## 229. San Juanak (URR-024/049)

Santa Barbarako erromeriak. Bi soinujole joaten omen ziren. San Juanetan, etxe bakoitzean egiten zen sua, eta Santa Barbaran zuhaitza ipintzen zen. Suaren esanahia.

## 230. Eskola osteko jolasak (URR-025/014)

Eskola bukatutakoan, etxera itzultzen ziren azkar, laguntzera. Orduko jolasak gogoan ditu: tortolosak, kanikak...

## 231. Ogia etxean egiten zuten (URR-025/018)

Ogia etxean egiten zuten, eta nola azaltzen du.

### 232. Txerrikiak egiteko prozesua, eta janaria kontserbatzeko moduak (URR-025/019)

Etxean, janaria kontserbatzeko zer bide izaten zituzten azaltzen du. Txerria hiltzeko garaian, Maria laguntzen aritzen zen. Txerrikiak nola egiten zituzten azaltzen du.

### 233. Ardia erditzeko laguntza (URR-025/024)

Ardia erditzera zihoala, nola laguntzen zitzaion azaltzen du.

### 234. Artilezko koltxoiak (URR-025/029)

Koltxoiak artilezkoak izaten ziren; nola egiten zituzten azaltzen du.

### 235. Lehengo janzkera (URR-025/032)

Mutilek, burua babesteko, buru-berogarria erabiltzen zuten. Ohera joatean, ez zuten pijamarik erabiltzen. Kalean, azpiko gona beti erabiltzen zuten. Kalera joateko arropaz hitz egiten du.

### 236. Lutorako arropa prestatzen (URR-025/034)

Lutoa zenean, arropa tindatu egiten zuten. Zakuzko soinekoa ere ezagutu izan du Mariak bere etxean.

### 237. Nesken janzkera eta ikasketak (URR-025/041)

Neskek soinekoa erabiltzen zuten lehen. Elizara joateko, mahuka luzeak erabili behar izaten zituzten. Mariak Bergaran ikasi zuen sukaldean aritzen; trenez joaten ziren hara.

### 238. Lehengo janariak (URR-025/043)

Lehen zer janari klase prestatzen ziren azaltzen du.

### 239. Neskame zebileneko lan-baldintzak (URR-025/044)

Neskame ibili zen garaian zer lan-baldintza izaten zituen azaltzen du. Gutxi ematen zioten jateko.

### 240. Urola hoteleko lana (URR-025/046)

Urola hotelean neskame zebilela, egun osoan egin behar izaten zuen lan. Neka-neka eginda bukatzen zuen egun askotan.

### 241. Emakumeen kalbarioa lehen (URR-025/055)

Emakumeek gorriak ikusten zituzten lehen; banandu ezin zutenez, senar txarrak jasan behar izaten baitzituzten.

### 242. Morroi joan eta semetzat hartu (URR-026/005)

12 urte zituela, beste etxe batera joan zen morroi, eta han ondo baino hobeto tratatzen zuten; semetzat hartu zuten, eta ezkondu arteko bizimodua han egin zuen Ramonek.

### 243. Aizkolaritzarako egurra (URR-026/008)

Aizkolarien apustuetarako egurra edozein menditatik ekartzen zen hasieran; baina, gerora, Nafarroatik. Pagoa ekartzen zuten apustuetarako.

## 244. Apustuak eta Australiako aizkorak (URR-026/009)

Apustua jokatzeko, egurra erdibana eramaten zuten normalean, baina batzuetan bakarrak eramaten zuen dena. Aizkorak Errezildik eta Leitzatik ekartzen zituzten. Gerora, Australiako aizkorak azaldu ziren, eta askoz hobeak ziren horiek.

## 245. Ramonen lehenengo aizkora (URR-026/011)

Ramonek bere lehenengo aizkora gogoan du; baita zenbat balio zuen ere. Aizkora zorroztu egiten zuten; nola zorrozten zuten azaltzen du.

## 246. 'El hombre eléctrico' (URR-026/013)

El hombre eléctrico ezizena jarri zion Basarrik. Orduko apustuak nolakoak izaten ziren aipatzen du.

## 247. Apustuetako hiztegia (URR-026/014)

Aizkoraren munduko apustuetako hiztegia azaltzen du.

## 248. Apustuetako giroa lehen (URR-026/019)

Tolosako zezen-plazan jokatu izan ditu Ramonek apustu gehienak. Izan ere, nafarrak eta gipuzkoarrak elkartzeko erdigunea zen. Lehen, apustuetan, oso giro ona egoten zen, jendeak bizi egiten zuen festa hura.

## 249. Aizkolarien lehengo prestaketak (URR-026/021)

Aizkoran ibiltzeko, mendira joaten ziren entrenatzera, eta asko jaten zuten. Egunero lau txuleta eta arrautzak jaten zituen Ramonek. Ez zioten arrairik, frutarik eta barazkirik jaten uzten.

## 250. Aizkolariaren erakustailea (URR-026/022)

Aizkoran, erakustailea egon ohi zen, aizkolariari laguntzeko.

## 251. Aizkora-erakustaldiak (URR-026/024)

Tolosako aizkora-erakustaldiak gogoan ditu. Tolosan jokatutako apustuak aipatzen ditu. Aizkolaritza kirol pobrea omen da; orduan zenbat kobratzen zuten.

## 252. Basolanetan ere aritua (URR-026/027)

Basoko lanetan aritu izan da Ramon. Lan hura nolakoa zen azaltzen du. Orduko zuhaitz motak; altzariak egiteko erabiltzen zituzten. Egurra garraiatzeko moduak.

## 253. Aizkolarien lehengo entrenamenduak (URR-026/030)

Hainbat aizkolariren maisu izan zen Ramon. Aizkolariak apustuen aurreko bi asteetan entrenatzen ziren lehen; mendira ibiltzera joaten ziren, ez korri egitera.

## 254. Nora joan erabakitzeko moduari buruzko anekdota (URR-026/032)

Aizkolari zeneko garaian izandako anekdota kontatzen du.

## 255. Lehen ere aizkolaritzan (URR-026/034)

Lehen ere bazegoen dopina, baina Ramoni ez hartzeko aholkatu zioten. Baziren batzuk, baina, drogatuta joaten zirenak.

## 256. 2 familia eta 27 ume (URR-027/003)

Beraien etxean 13 senide ziren; eta, izebarenean, 14.

## 257. Belarra lantzen (URR-027/004)

Ipinarrieta baserrian jaio zen Isabel; belarra nola eta noiz lantzen zuten azaltzen du.

## 258. Belarra lantzeko aldeak Legazpin eta Logroñon (URR-027/005)

Belarretan aritzen zirenean, sega erabiltzen zuten denetarako, eta gustura. Logroño aldean, igitaia erabiltzen zuten. Isabelek hiru hilabete ematen zituen Logroñon, alergia zela-eta; han belarra nola lantzen zuten gogoan du.

## 259. Garia lantzen (URR-027/006)

Etxean sega erabiltzen zuten belarra lantzeko. Garia segaz ebaki, ilaratan jarri, bildu, sokarekin (edo gariarekin berarekin) lotu, eta metak egiten zituzten.

## 260. Garia pilatu osteko lanak (URR-027/007)

Garia pilatzen zutenean, baserrian gordetzen zuten. Geroago, makinan sartzen zuten, alea eta lastoa banantzeko. Auzolanean egiten zuten lan hori. Makina hura nolakoa zen azaltzen du.

## 261. Ipinarrieta baserriaren historia (URR-027/009)

Ipinarrieta baserriaren historia kontatzen du. Garai batean, jauregia izan omen zen.

## 262. 13 seniderentzako otorduak (URR-027/012)

13 senide izanda, otorduetan nola moldatzen ziren aipatzen du. Hamarretako eta merienda izaten ziren beraien otordu gustukoenak. Goizean goiz jaikitzen ziren, kafesnea gosaldu, lan egin, eta hamarretakoaren zain-zain egoten ziren. Hamarretakoan zer jaten zuten azaltzen du.

## 263. Artoa lantzeko prozesua (URR-027/013)

Ipinarrieta baserrian, soro handiak izaten zituzten. Artoa ereiteko, nola moldatzen ziren azaltzen du. Artoa udazkenean jasotzen zuten, heltzen zenean. Iluntzean, arto-zuritzen aritzen ziren, arrosarioa errezatuz. Artoa nola jasotzen zuten azaltzen du.

## 264. Artoa zuritu, lehortu, pilatu eta aletu (URR-027/014)

Artoa nola zuritzen zuten azaltzen du. Zuritutakoan, ganbaran zabaltzen zuten, lehor zedin. Lehortzen zenean, pilatu eta noizean behin aletu egiten zuten.

### 265. Etxeko abereak (URR-027/015)

Etxean hainbat abere zeuzkaten, eta haiek non egoten ziren azaltzen du. 120 ardi baino gehiago eduki izan dituzte.

### 266. Ardiei ilea mozteko teknikak (URR-027/016)

Gizonak arduratzen ziren ardiei ilea mozteaz. Nola egiten zuten eta hartarako zer tresna erabiltzen zituzten azaltzen du Isabelek.

### 267. Auzolanetako giroa (URR-027/018)

Lehen, auzokoen artean, elkarri laguntzen zioten. Auzolanak ohikoak ziren. Orduko giroaz hitz egiten du.

### 268. Eskola baino garrantzitsuagoa dotrina (URR-027/024)

Eskolara joaten hasi aurretik, etxean erakusten zizkieten oinarri-oinarrizko gauzak. Eskolarako material gutxi izaten zuten; dotrina, ordea, goitik behera ikasi zuten. Hasieran, eskolan ikasten zuten dotrina; gerora, bikarioaren etxean.

### 269. Eskola barruko materiala (URR-027/028)

Eskola etxetik gertu zeukaten. Eskola barrutik nolakoa zen azaltzen du: mahaiak, tintontziak, koadernoak...

### 270. Eskolako diziplina eta zigorrak (URR-027/029)

Eskolan maistrak izaten zituzten, eta diziplina gogor xamarra izaten zuten orduan. Orduko zigorrak aipatzen ditu.

### 271. Ganbarako jolasak (URR-027/030)

Jolasteko denbora gutxi izaten zuten, jaietan bakarrik. Orduan, ganbarara joaten ziren. Orduko jolasak azaltzen ditu.

### 272. Neskame han eta hemen (URR-027/032)

9 urte zituela, izebarengana joan zen neskame. Eta 14 urte zituela, Lazkaora joan zen, neskame hara ere: han zer lan izaten zituen azaltzen du. Gehien kostatzen zitzaion lana nagusiari bazkaria mendira eramatea izaten zen. Neskame zen garaian, soldataz gain, dirua handik eta hemendik lortzen zuen.

### 273. Eskola askorik ez, baina ausardia bai (URR-027/037)

Eskola askorik ez zeukaten, baina ausartak ziren. Osaba bat fraidea zen; eta anai-arrebak konturatu zirenean ez zeukatela eskola askorik, osabak fedea izan zuen beraiengan.

### 274. Hoteleko langile "ezkutuak" (URR-027/039)

Hoteleko lan-baldintzei buruz hitz egiten du. Asegururik gabe lan egiten zutenez, ikuskaria etortzen zenean, ezkutatu egin behar izaten zuten.

### 275. Lehengo orrazkerak eta janzkerak (URR-027/043)

Ile-apaindegira joateko ohitura bazeukaten lehen ere. Han nolako orrazkera izaten zuten aipatzen du. Komuniorako, janzkera berezia prestatzen zien amonak.

## 276. Mezara txandaka eta lana tranpekin (URR-027/045)

Mezara joateko, txandaka joaten ziren: ama goizean goiz, 6ak aldera, joaten zen, alaba bat edo birekin; hurrengo mezara, 8etan, beste senide batzuk joaten ziren. Igande goizetan, baserriko lanak aurreratzen zituzten; lana banatu egiten zuten, eta anaiak trikimailua asmatu zuen lana azkarrago bukatzeko.

## 277. Euskarako hitz berriak (URR-027/046)

Euskara, denborarekin, aldatu egin da. Hainbat hitz berri aipatzen ditu.

## 278. Idiak eta basolana (URR-028/005)

Idiak izaten zituzten baserrian, eta haiekin egiten zituzten labrantza lanak. Etxean lanik ez zegoenean, idiekin basora joaten ziren egurra ateratzera. Auzoko dozenerdi baserritako lau-bost idi-pare joaten ziren egurra ateratzera, basoaren tamainaren arabera. Etxeko basoak nahiz besterenak, jornalean, ateratzen aritzen ziren. Basolanerako idiak zituzten auzoko baserriak: Mendizabal, Zabaleta, Iturbe, Agerre, Begibakar, Ipiñarrieta, Kutxitxeo...

## 279. Baserri handiak eta txikiak (URR-028/007)

Baserri txikienetan, labrantza lanak behiekin egiten ziren. Baserri handiagoetan, berriz, idiekin: baserri horietakoek etxean lanik ez zegoenean, idiekin basolanak egiten zituzten. Gehinetan, baserri handi horiek baserritik bertatik bizi ziren; txikiagoek, baserriko lana lantegikoarekin uztartu ohi zuten.

## 280. Basolanerako gurdi motak (URR-028/008)

Euxebioaren aita basolanean ibiltzen zen. Basolanari buruzko azalpenak ematen dituzte. Tronko-gurdia, zaldi-gurdia... nolakoa zen eta nola gobernatzen zen azaltzen dute. Enborren tamaiaren araberako gurdiak erabiltzen ziren.

## 281. Egurra karriatzeko moduak (URR-028/009)

Egurra karriatzeko gurdien ezaugarriak. Egurra nola lotzen eta jasotzen zen gurdian. Txinga, eraztun bat duen burdinazko ziria: enborrak lotzeko sistema.

## 282. Basolanak (URR-028/010)

Basolanari buruzko azalpenak. Enborrak trontzaz mozten ziren. Pago motza, pago luzea eta haritza "bastante ezagutu dute" inguruetan. Lehen, pinudi oso gutxi zegoen.

## 283. Zuhaitzak eta egurra (URR-028/011)

Egur mota bakoitza zertarako erabiltzen zen. Haritz-egurra: eraikuntzarako, altzarigintzarako... Soberakinak, sutarako. Pago-egurra: altzarigintzarako, uztarriak egiteko... Pago motzaren adarrak, berriz, sutarako eta ikatza egiteko. "Haritza sutarako txarra ez, baina pagoaren pareko ere ez" dio Joxek.

## 284. Basomutil lana (URR-028/012)

Euxebioaren aita basomutil lanetan aritzen zen. Jornalari buruzko kontuak. Ordu eta neke askoko lana. Bide luzeak egin beharra.

## 285. Aurrekoneko soldata eta prezioak (URR-028/013)

Joxek eguneko 18 pezeta irabazten zituen Patrizio Etxeberria lantegian lanean hasi zenean. Mutikoa zela, baso erdia erreal bat kostatzen zen. Gero, hiru eta bost txakur handitan ere ezagutu zuen baso erdia.

## 286. Egurra uzteko jakineko tokiak (URR-028/014)

Basogintzari buruzko azalpenak. Basomutilek egurra non pilatzen zuten. Kamino ertzean baziren egurra uzteko jakineko tokiak: Joxeren baserri ondoan eta Deskargan, esaterako. Toponimia: Deskargabarrena baserri aurreari, "trongo ondo" esaten diote. Egurra nola kargatzen zen kamionean.

## 287. Egurra, zerrategira (URR-028/015)

Auzoan basolanean, egurra jasotzen, aritzen ziren gizonen izenak aipatzen dituzte. Zenbaitek basoko egurra erosi eta zerrategietara saltzen zuten egurra. Beste batzuk zerra jabeak izaten ziren.

## 288. Labrantza: artoa eta garia (URR-028/016)

Baserri inguruko lurrak nola antolatzen ziren azaltzen dute: gehiena soroa zen. Artoa eta garia "ezinbestekoak" ziren baserrian. Urte baten garia, eta hurrengoan, berriz, artoa erein ohi zuten, txandatuz.

## 289. Urte sasoien araberako soroko lanak (URR-028/017)

Artoa udaberrian erein eta udazkenean jasotzen zuten. Artoarekin batera babarruna ereiten zen. Udazkenean, artoa eta babarruna jasotakoan, lurrari buelta eman eta garia ereiten zen. Hurrengo urteko uztaila-abuztuan jasotzen zen garia. Garia jaso ondoren, arbia ereiten zen udaberrira arte. Eta arbia kendutakoan, artoa sartzen zen berriz. Etenik gabe aritzen ziren labrantzan.

## 290. Labrantzako lana eta tresnak (URR-028/018)

Garia eta artoa ereiteko goldearekin jiratzen zen lurra. Aurretik, berriz, laian egiten zen. Garia bildu ondoren, arbia ereiten zen "azalapain", lurrari buelta eman gabe. Baserriko hainbat tresna deskribatzen ditu: burdinarea, karramarroa, area, alperra, galtzua, pertika, "pertikilloa"...

## 291. Arbia (URR-028/019)

Arbia neguan biltzen zen, urtarril aldera. Lehenengo, arbi-hostoa biltzen zen; arbiaren burua egin gabe zegoelako. Sakuzko mantal batzuetan biltzen zituzten arbi-hostoak. Lan "gogorra" izaten zen.

## 292. Pagotxa (URR-028/021)

Garai batean, soroetan pagotxa ereiten zen. Animalien bazkarako izan ohi zen. Pagotxari buruzko azalpenak: nolakoa zen, nola eta noiz ebakitzen ziren, zer kolore zuten...

## 293. Alpapa (URR-028/022)

Garai batean, soroetan alpapa ereiten zen. Animalien bazkarako izan ohi zen. Alpapari buruzko azalpenak: motak, ezaugarriak, nola eta noiz ebakitzen ziren...

## 294. Simaurra (URR-028/023)

Simaurra erabiltzen zuten lurra ongarritzeko. Purina eta simaur solidoari buruzko azalpenak. Garoa, otea, orbela... basotik ekarri eta behien simaurrarekin nahastzen zuten ongarria ugaltzeko. Kortoloia nola egiten zen.

## 295. Baserriaren egitura (URR-028/026)

Baserriaren egitura. Bizilekua egutera aldera egoten zen. Ukuilua, atzealdera (iparraldera). Gainean, ganbara: belarrondoa, garoa iparraldera; alea (artoa, baba...), berriz, bizilekuaren gainean (eguteran).

## 296. Baserriaren egitura: ukuilua (URR-028/027)

Baserriaren egitura. Garai batean, baserri gehienetan ukuilua sukalde ondoan zegoen. Lehen, ganaduari garrantzia handiagoa ematen zitzaion: egunean hirutan ematen zitzaion jaten, zenbait baserritan askak sukaldera begira zeuden, askak nolakoak izaten ziren...

## 297. Ardiak, artegiak eta artxarak (URR-028/028)

Artegiak eta artxarak (ardientzako egurrezko askak) nolakoak ziren azaltzen dute. Garai batean, inguruko baserri denetan zauden ardiak.

## 298. Baserriaren egitura: ateak eta "mealiña" (URR-028/029)

Baserriaren egitura. Sarrerako atea nolakoa izaten zen: "ate erdikoa". Baserri askotan, erdian pareta bat egoten zen "mealiña" izenekoa. "Mealiña"ren funtzioa: suteren bat izanez gero, etxebizi erdia salbatzea. Normalean, "mealiña"k burnizko edo txapazko ate bat izaten zuen.

## 299. Baserriaren egitura: materiala (URR-028/030)

Baserriaren egitura. Etxebizitza zer materialez eginda egoten zen: harria, egurra, teilak... Teilatuaren formari buruzko azalpenak. Tximiniak: zenbat eta zer materialez egindakoak.

## 300. Fruta-arbolak (URR-028/032)

Inguruetako fruta-arbolak: sagarra, gerezia, arana, intxaurra, melokotoia, pikua... Melokotoia etxe guztietan zegoen, baina galdu egin zen.

## 301. Sagar motak (URR-028/034)

Sagarra etxeko kontsumorako eta ganaduari emateko izaten zen. Sagarra gordinik nahiz erreta jan ohi zen. "Orain baino sagar askoz gehiago jaten zen orduan" dio Betegik. Mendiko bazkaria: baba eta sagar errea. Hainbat sagar mota izendatzen dituzte: Errezil-sagarra, mokote sagarra, Deskarga-sagarra, sagar urdina, usa-sagarra, abade sagarra...

## 302. Fedeari lotutako ohiturak (URR-028/036)

San Juan Egunetan gurutzeak egiten ziren lizar-egur edo arantza zuriarekin. Sarrerako ate buruetan eta soro bazterretan jartzen ziren gurutzeak. Apaizak bedeinkatu ohi zituen lurrak.

## 303. Gari-meta edo "mutturioa" (URR-028/038)

Gari-meta eta "mutturioa" (gariarekin egiten dena). "Mutturioa" nola egiten den azaltzen du: doezenerdi gari-sorta edo lastazaorekin egiten zen.

## 304. Metak nola egin (URR-028/039)

Gari- eta belar-metak nola egiten diren azaltzen du Joxek. Meta bat egiteko pausoak: alkazia edo gaztain egurrezko meta-ziri bat sartzen da lurrean. Zoruan egurrezko ganbara txiki bat egiten da. Haren gainean belarra nola jarri behar izaten den azaltzen du. Bukatzeko, gainean ziri batzuk edo zakua jartzen dira.

## 305. Santa Barbarako eskola (URR-028/041)

Eskola garaiko kontuak. Santa Barbarako eskolan ibili ziren biak. Bost-sei urterekin hasi ziren eskolan. Eskola non zegoen eta nolakoa zen azaltzen dute.

## 306. Poltsikoak harriz bete (URR-028/042)

Eskola garaiko pasadizoa. Joxek eskuak poltsikoan ibiltzeko ohitura zuen, eta maistrak poltsikoak harri kozkorrez betetzeko esan zionekoa kontatzen du. Joxek irakasleari erantzun egin zion, eta hark zigortu egin zuen.

## 307. Hezetasuna, erlearen etsairik handiena (URR-029/002)

Estalpeko eta aire libreko erlauntzen arteko konparazioa. Estalpeko erlauntzen zer abantailak: eztia ez da bustitzen, egurrak gehiago irauten du... Erlearen etsairik handiena hezetasuna dela dio Joxek.

## 308. Erlauntzak, hegoaldera begira (URR-029/003)

Erlauntzak zer norabidetara begira egon behar duen: "ekialde eta hegoalde artean, eguzkia sortzen den aldetik hego aldera begira" egon behar du.

## 309. Erlategietako gaitzak I: lokea (URR-029/005)

Hezetasunak gaixotasunak sor ditzake erlategian. Loke gaitzari buruzko hainbat azalpen: gaitz kutsagarria da eta erlea gal daiteke. Lokea beste erlauntzetara ez hedatzeko zer egin behar den aipatzen du Joxek. Loke amerikarra eta europarra bereizten ditu.

## 310. Erlategietako gaitzak II: "pollo escayolado" (URR-029/006)

"Pollo escayolado" izenez ezagutzen den gaitzari buruzko azalpenak. Gaitz horrek "ez dauka arriskurik": ez da kutsagarria eta ez da erlea galtzen.

## 311. Erlearen jatorria eta motak (URR-029/008)

Erlearen jatorria. Erle-haztegiak atzerrian. Hainbat erle mota aipatzen ditu: apis mellifera mellifera (Gipuzkoan dagoen erlea), apis mellifera iberica...

## 312. Erleen ugalketa, bizi-zikloak eta motak (URR-029/010)

Erleen ugalketa prozesua eta bizi-zikloak. Erle motak: erregina (besteak baino luzeagoa), erlamandoa (besteak baino handiagoa) eta langilea (txikiena eta ugariena). Erle bakoitzaren eginkizuna zein den. Udaberrian, erlauntz batean erregina bat, 200-300 erlamando eta 20.000 erle langile egoten dira.

## 313. Erleak eta landareak (URR-029/012)

Erleak erlauntzatik ateratzen dira nektarra, propoleoa eta polena biltzera. Polena ematen duten hainbat landare: txikuri belarra, urritza, sahatsa (nektarra ere badu honek), fruta-arbolak (aranak, melokotoiak...), txilarra... Erlezain batek antzeman dezake eztia zer polen motarekin egindako den haren koloreari, usainari eta gustoari erreparatuta.

## 314. Erleen usaimena eta kea (URR-029/015)

Erleen usaimena: pertsonok urduri gaudenean usain batzuk askatzen ditugu, eta erleek horiek antzemanda erasotzera jo dezakete. Erlauntza zabaltzeko eta erleak uxatzeko kea erabili ohi da.

## 315. Erlezaintza: ke-auspoa (URR-029/017)

Erlezaintzan erabiltzen den ke-auspoaren irudiak. Pinu txirbila, pinu orria edota belarrondoa erabil daitezke kea egiteko.

## 316. Erlauntzetan sortzen diren produktuak (URR-029/021)

Erlauntzetan sortzen diren produktuak sei dira: eztia, argizaria, propoleoa, polena, "jalea reala" (erregina-jelea) eta apitoxina.

## 317. Eztia (URR-029/027)

Beste erlauntz baten irudiak. Neguan eztia jartzen die erlei erlauntzean, jan dezaten. Eztiak ez da iraungitzen, baina denborarekin propietate batzuk galtzen ditu.

## 318. "Realera", erreginaren kabia (URR-029/030)

Erlategiko irudiak. "Realera", erreginaren kabia (Iruditan: kanpora begira dauden bi punta). Erregina berria sortzeko arrazoiak: familia handia denean (beste familia bat sortzeko) eta erregina gaixotzen edo antzutzen denean.

## 319. Erlezaintzako tresnak (URR-029/034)

Erlezaintzan erabiltzen diren tresnak: espatula, alikatea, ke-auspoa, laukia, lamina, eskobila alanbrea...

## 320. Kalean jaioa, baina baserriko bizimoduan ibilia (URR-031/002)

Gaztea zela, oso garai gogorra tokatu zitzaion. Denboraldi luzeak pasatzen zituen osaba-izeben baserrietan. Eskolara oso gutxi joaten zen. Baserrian, zer lan egitea tokatu zitzaion aipatzen du. Gustura aritzen zen bera baserriko lanetan.

## 321. Eskola nazionaleko oroitzapen txarrak (URR-031/005)

Hainbat eskolatan ikasi zuen, eta 13 urterekin lanean hasi zen. Eskola nazionalean, diziplina gogorra zegoen. Eskola hura non zegoen azaltzen du, eta hara mutilak bakarrik joaten ziren; neskak mojen eskolara joaten ziren. Eskolara ez zuten uniformerik eramaten; eskolara sartzean, ilaran jartzen ziren, eta Cara al Sol abestu behar izaten zuten.

## 322. Fraideekin gustura ikasi zuen (URR-031/007)

Eskola nazionalean ibili ostean, Legazpin aritu zen ikasten Zumarragako fraideekin. Han gustura ibili zen. Maisuak erdaldunak ziren. Eskola garaiko zigorrak gogoan ditu. Eskolako ordutegia.

## 323. Negurin mezalagun ibili zen (URR-031/008)

Eskola nazionalean, fraideetan, eta Urretxuko eskolan ikasi zuen. Hura bukatutakoan, 12 urte zituela, Negurira eraman zuten mezalagun. Fraide sartzeko aukera eman ziotenean, baina, etxera itzultzea erabaki zuen Juanek. Negurin egon zen bitartean, zer egiten eta ikasten zuen azaltzen du.

## 324. Neguriko eskupekoak (URR-031/009)

Negurin egon zen bitartean, eskupekoa ematen zioten. Oso jende aberatsa joaten zen mezara.

## 325. Neguritik itzuli eta Madaia lantegira (URR-031/010)

Negurin urtebete egon zen mezalagun izateko ikasten. Etxera itzuli eta handik sei hilabetera hasi zen lanean Madaia lantegian. Han zer zeregin izaten zituen aipatzen du. Madaiako nagusiak eibartarrak ziren, baina Urretxun bizi ziren.

## 326. Madaiako lan-baldintzak (URR-031/011)

Madaian lanean aritu zen bitartean, baldintza onak izaten zituen. Orduan 2,25 pezetako soldata izaten zuten; eta astean behin kobratzen zuten. Gerora, soldata pixkanaka igotzen joan zen.

## 327. Orbegozon lanean aritu zenekoa (URR-031/013)

Madaian urtebete lanean eman ostean, Orbegozoren lantegira joan zen Juan. 1955ean, bere kontura jarri zuen galdaragintza- eta txapisteria-tailerra. Orbegozoren fabrika asko hazi zen Juan bertan lanean aritu zen garaian. Orbegozon zer lan mota egiten zituzten aipatzen du. Garai hartan, emakume ugarik egiten zuten lan fabrikan. Fundizioko lana gogorra zen batzuentzat; baina beraien lana galdarategian zenez, ez zen hain gogorra izaten.

## 328. Ema tailerraren sorrera (URR-031/014)

1955ean, txapisteria-tailerra jarri zuen beste bi lagunekin batera: Ema tailerra. Beraien tailerreko lan-prozesuaz hitz egiten du.

## 329. Beraiek sortutako tailerreko materiala eta lana (URR-031/015)

Tailerra 3 lagunen artean jarri zuten 1955ean. Tailerrean behar izaten zuten materialaz eta lan-prozesuaz hitz egiten du.

## 330. Tailerrean egiten zituzten hodiak (URR-031/016)

Tailerrean, hainbat neurritako hodiak egiten zituzten. Txapazkoak izaten ziren; materiala inguruko biltegietatik lortzen zuten. Txapa mozteko makineria berezia zeukaten.

## 331. Ema tailerraren sorrera eta lan-baldintzak (URR-031/017)

Juanek beste bi lagunekin sortu zuen Ema tailerra 1955ean; han aritu zen lanean 25 urtean. Garai hartako lan-baldintzez hitz egiten du.

## 332. Poliesterrarekin lanean hasi zenekoa (URR-031/018)

Juanek danbolinak egiten ditu; jarduera horretan nola hasi zen azaltzen du. 1980an, Ematik irten zenean, poliesterrarekin hasi zen lanean. Poliesterra lortzeko, nahasketa kimikoa nola egiten zuten azaltzen du.

## 333. Poliesterrarekin lanean (URR-031/019)

Poliesterrarekin lan egiten zutenean, hainbat pieza egiteko erabiltzen zuten. Haiek egiteko moldeak egurrezkoak izaten ziren.

## 334. Danbolin motordunak egiteko prozesua (URR-031/021)

Danbolinak egiteko materiala nola lortzen duen azaltzen du. Danbolina egiteko prozesua eta haren funtzionamendua pausoz pauso erakusten du.

## 335. Danbolin motordunen neurriak (URR-031/022)

Bi neurritako danbolin motordunak egiten zituen lehen; baina orain neurri bakarra sortzen du.

## 336. Danbolinak egiteko teknikak eta denbora (URR-031/026)

Danbolin motordunak egiteko, 7-8 ordu inguru behar izaten dira. Horretarako, lehengo teknikak erabiltzen ditu. Lehendik ere, Juan oso gaztea zenean, bazen danbolinak egiten zituen gizon ugari herrian.

## 337. Juanen asmakizunak eta eskulanak (URR-031/028)

Juanek eskulan ugari egin izan ditu: lehengo farol zaharrak, besteak beste. Ideia nola bururatu zitzaion azaltzen du.

## 338. Antzinako farol modernoak (URR-031/029)

Berak eskuz egindako farola erakusten du. Farol horiek nola funtzionatzen zuten azaltzen du. Juanek berrikuntza bat egin dio, denbora gehiago iraun dezan.

## 339. Artoa, garia baino gutxiago (URR-032/009)

Etxean, artoa eta arto-irina egiten zuten. Garia baino gutxiago landatzen zuten artoa. Artoa nola jaten zuten azaltzen du. Behin, ogia eta urdaiazpikoa lapurtu zieten.

## 340. Mutil koskorretako menuak (URR-032/010)

Lehen, egunero jaten zuten babarruna; eta, jaietan, garbantzuak, kalean erositakoak. Afaltzeko, katilu bat salda, esnea eta ura hartzen zuten. Urte batean, tomate pusketak botatzen zizkioten babarrunei; eta Eusebiok, hura jan baino, nahiago izaten zuen madari gogorrak jan.

## 341. Artoa, taloa eta ahia (URR-032/011)

Lehen, taloak egiten zituzten artoarekin; esnearekin nahastuta jaten zituzten. Artoa egosi egiten zen esnetan. Ahia oso ona izan ohi zen.

## 342. Baserriko jeneroa nahikoa ez zenean, estraperlora jo behar (URR-032/012)

Garia eta artoa edukita, ondo moldatzen ziren jateko. Kanpotik zer erosten zuten aipatzen du. Errazionamenduko jeneroarekin ez zuten nahikoa izaten, eta estraperlora jo behar izaten zuten askok. Estraperloko prezioak oso altuak izaten ziren. Olioaren ordez, seboa erabiltzen zuten batzuek.

## 343. Estraperloko olioa, dendetan salgai (URR-032/014)

Estraperloko olioa ia denda gehienetan egoten zen salgai, ezkutuan. Orduko anekdota kontatzen du.

## 344. Kaleko jendea baserrietara, goseari aurre egiteko (URR-032/015)

Estraperloan erosteko dirua nondik lortzen zuten azaltzen du. Urtean txerri bat eta bi ardi hiltzen zituzten. Baserrian, ondo moldatzen ziren jateko. Kaleko jendeak, ordea, komeria handiagoak izaten zituen, eta baserrietara joan behar izaten zuen.

## 345. Bideak egiteko, auzolana (URR-032/017)

Lehen, auzolana izaten zen; elkarri laguntzen zioten. Baserri inguruko bideak auzolanean egiten zituzten baserritarrek. Lan haren trukean, udalak jatekoa ematen zien baserritarrei (ardoa eta piku lehorrak).

## 346. Errazionamendu garaiko sistemaren kontraesanak (URR-032/019)

Errazionamenduari buruz hitz egiten du: legez, jeneroa entregatu egin behar izaten zuten baserritarrek, beraien lursailen tamainaren arabera. Urte batean, beraien etxean, baba gorria erosi egin behar izan zuten, udaletxeari eskatutakoa entregatu ahal izateko.

## 347. Txahala ezkutatzeko komeriak (URR-032/020)

Errazionamendu garaian, baserritarren txahalak kontrolatuta egoten ziren. Behin, aitari gertatutako anekdota kontatzen du.

## 348. Baserriari esker, aurrera errazionamendu garaian (URR-032/022)

Txerria eta ardiak hiltzen zituzten etxean, eta urte osoan horri esker moldatzen ziren. Baratzeko jeneroak ere laguntzen zien familia aurrera ateratzen.

## 349. Janaria kontserbatzeko moduak (URR-032/023)

Janaria kontserbatzeko, zer egiten zuten azaltzen du.

## 350. Bideak egiten zituztenei bazkaria eramaten (URR-032/034)

Santa Barbarako bidea egiteko, Hernaniko kuadrilla bat aritu zen lanean. Eusebiok bazkaria eramaten zien Etxeberritik; eta, horren trukean, 13 pezeta ematen zizkioten egunero.

## 351. Zapataria eta haren ondokoa balaz hil (URR-033/010)

Bi lagun hil zituzten tiroz Urretxun gerra heldu zenean; haietako bat zapataria, zapatak konpontzen ari zela. Haren ondoan gertatu zen beste lagun bat ere hil zuten.

## 352. Auzoko baserrien izenak (URR-033/013)

Auzoko baserriak izendatzen ditu. Orain gehienak galduta daude. Oso aldatuta dago egun auzoa.

## 353. Bizikletan kalera eta Antzuolara esnea edo arto-irina garraiatuz (URR-033/014)

Baserrian denetik hartzen zen, baina dirua batez ere esnea salduta lortzen zuten. Bizikletan eramaten zuen esnea kalera. Antzuolara ere bizikletan joaten zen taloa egiteko arto-irin bila. Oso arto-irin ona egiten omen zuten. Behorrarekin ere joan izan zen.

## 354. Santa Lutziatako feria eta bazkaria (URR-033/018)

Santa Lutziatan 15 bat gonbidatu izaten zituzten etxean. Egun horretako bazkaria nolakoa izaten zen kontatzen du. Flana nola egiten zuen. Gizonezkoak feriara etortzen ziren.

## 355. Urretxun harrapatutako behorra Mungian azaldu (URR-033/019)

Etxeko gizonak feriara joaten ziren kanpora: Agurain, Abadiño, Mungia... Behor asko hazten zuten etxean. Behin bi behor gazte harrapatu zizkieten. Gerora jakin zuten horietako bat Mungian zegoela. Jabearengana jo eta etxera ekarri ahal izan zuten arazo handirik gabe. Bestea ere berreskuratu zuten. Ijitoak izan ziren nonbait lapurrak.

## 356. Ahoko soinua jo eta dantzan (URR-033/021)

Kaminpen (beren baserrian) ere erromeria egiten zen Santa Lutzia egunean, ahoko soinua jo eta dantza antolatzen zen. Aitak eta bi anaiak zekiten jotzen.

## 357. Ezkontzak baserrian otordu, musika eta guzti (URR-033/022)

Bost ezkontza egin ziren gutxienez beren baserrian. Ganbaran egiten zen otordua. Menua zelakoa izan ohi zen kontatzen du. Musika ere bertan, sasofoi, danbor eta guzti. Trenetik agur egin omen zien lagunaren istorioa.

## 358. Ezkontza bazkariko menua (URR-033/024)

Eztei-bazkarian jan ohi zena zerrendatzen du. Arkumea nahikoa izaten zen beti. Aita oso dantzari ona zen. Soinujoleak.

## 359. Erromerietan pozik (URR-033/025)

Erromerietara asko joaten ziren. San Joan eta Antigua ziren berarentzat onenak. Pozik bizi ziren.

## 360. Santa Anastasia jaiak eta Urretxuko jatetxeak (URR-033/026)

Santa Anastasi egunean zezenak egoten ziren eta festa ederrak egiten ziren. Beraiek ez ziren tabernetara asko joaten. Orduko jatetxeen izenak esaten ditu.

## 361. Dotrina erdaraz, nahiz eta erdararik jakin ez (URR-033/028)

Mojatan ibili zen eskolan. Mojak "deabrua baino gaiztoagoak" omen ziren. Dotrina euskaraz ikasi zuen lehendabizi eta gero erdarazkoa ipini zioten. Ez zekien erdararik eta ezin izan zuen aurrera egin.

## 362. Erdaraz berandu ikasi zuten (URR-033/030)

Gurasoek ez zekiten erdararik eta anai-arrebek ere ez. Gero auzoan "Poblado Aparicio" egin zutenean ia denak erdaldunak etorri ziren eta harrezkero joan ziren erdaraz ikasten.

## 363. Bapore-makinen ikatz-biltegia etxe ondoan (URR-033/032)

Patricio Echeverriak beste karril bat ipini zuen Zumarragako geltokitik bere lantegira merkantzia eramateko. Beren etxe ondoan zegoen bapore-makinen ikatz-biltegia.

## 364. Trenak etxeko idi parea harrapatu (URR-033/034)

Norteko trenbideaz gain, Urola eta Vasco-Navarro-a zeuden herrian. Azken honek behin idi parea harrapatu zion aitari gurdi eta guzti. Pozik berari ezer gertatu ez zitzaionean.

## 365. Urolako trenean Zumaiara ilobekin (URR-033/036)

Pena hartu zuen Urolako trena kendu zutenean. Askotan joaten zen Zumaiara ilobekin txikiak zirenean. Oraindik asko akordatzen omen dira.

## 366. Etorkinen hasierak (URR-033/038)

Etorkin asko urrutiko baserri eta txaboletan hasi ziren bizitzen. Ezer gabe etorri zen Extremadurako familia baten kasua. Laborantzatik bakarrik ez omen dago bizimodu onik. Orain ur gaineko bitsetan bizi gara.

## 367. Erdara eta etorkinak (URR-033/039)

Euskaraz ez dela egin behar esan omen zien emakume nafar batek lagun batzuei. Berari esan izan balio lepora salto egingo zion. Harreman ona izan du, oro har, erdaldunekin. Etorkinei eta erdarari buruzko gogoetak.

## 368. Baserriko lan guztiak egin ditu (URR-033/041)

Ez du kanpoan lanik egin. Baserrian, denetik tokatu zaio. Artoa nola erein eta jorratzen zuten. Artzain lanak ere denak egin ditu. Behiak jaitsi, ostera, ez.

## 369. Zazpi hilabeteko egon arte medikurik ez (URR-033/043)

Zazpi hilabeteko egon arte ez zen medikuarengana joan. Gero emagina arduratzen zen. Etxean eduki zituen hiru seme-alabak.

## 370. Sakamantekasa eta katu beltza (URR-033/046)

Sakamantekasa-rekin eta katu beltzarekin beldurtzen zituzten. Trenbidea zuten hurbil eta kontuz ibili behar zuten.

## 371. Ahizpa ezkondu zenean, etxeko lanak bere gain (URR-034/003)

Etxaburuko umetako bizimoduaren oroitzapen politak dauzka. Baina, gerora, ahizpa ezkondu zenean, etxeko lanen zama bere gain gelditu zen. Bazkaria amak egiten zuen normalean. Seberianak 11 urte inguru zeuzkan sukaldean lanean hasi zenean. Etxean prestatzen zituzten janariak aipatzen ditu.

## 372. Eskolan, mojak irakasle; etxean, aita (URR-034/005)

12-13 urte zituela, Urretxuko mojetan aritu zen ikasten. Han ikasitakoak gogoan ditu. Aitak ere, etxean, asko irakatsi zien.

## 373. Baserritik basora edo kalera (URR-034/008)

Herrian, esnea saltzen zuten. Pilarika egunean, anaiak garotara joaten ziren. Eta Seberianak La Voz de España egunkaria ekartzen zien kaletik, mendira eraman zezaten. Esnea saltzeko, Seberiana bakarrik moldatzen zen; arrautzak Zumarragara eramateaz, ordea, ama. Esnea herrira jaisteko, bi asta-zestoz baliatzen zen Seberiana.

## 374. Lehen, gutunen bidezko komunikazioa ohikoa zen (URR-034/009)

Beraientzako gutunak denda jakin batzuetara iristen ziren. Lehen, gutun ugari jasotzen zituzten, edozein albisteren berri emateko bidea baitzen. Aitaren senide asko herritik kanpora bizitzera joandakoak ziren, lan bila.

## 375. Kanpora festetara joateko ohitura (URR-034/010)

Festak zirenean, hainbat festatara joaten ziren trenez: Errenteriara, Pasaiara, Bilbora... Orduko trenak aipatzen ditu. Izeba-osabak etxera etortzen zirenean, oso pozik egoten ziren.

## 376. Arropa gutxi, eta hura konpontzeko ohitura (URR-034/011)

Lehen, oso arropa gutxi izaten zuten. Martin Zabaleta tela-dendan erosten zituzten arropak. Amak arropak konpontzen zituen, baina egin ez.

## 377. Inguruko mendietan, egur gutxi (URR-034/013)

Seberiana pinuak botatzen ibili izan da. Pinua kalera saltzen zuten, gurdia bete-beteta. Jendeak sutarako erabiltzen zuen egurra. Inguruko mendietan egur gutxi zegoen.

## 378. Nahiago hotza pasa, besteren egurra hartu baino (URR-034/015)

Senarra Obanostik etorri zen; eta bere familiak ez zeukan diru askorik. Egur bila joaten ziren; eta, behin, harriak bota zizkieten, besteren lurretan ari baitziren egurra biltzen.

## 379. Inguruko mendi-festak (URR-034/016)

Festak zirenean, inguruko parajeetara joaten ziren. Orduko giroaz hitz egiten du. Egun jakin batzuetan izaten ziren mendi-festak.

## 380. Etxera joateko, hobe laguntzarekin bakarrik baino (URR-034/017)

Festetan, iluntzean, neska-laguntzea izaten zen. Seberianak beldurra izaten zuen etxera bakarrik bueltatzeko, batzuetan mutilak bidera atera izan zirela entzuna baitzeukan. Orduko bideak nolakoak ziren azaltzen du.

## 381. Bideak konpontzearen ordainak (URR-034/018)

Urtean behin, bideak konpontzen zituzten auzokoen artean. Ordainetan, ardoa, ogia eta pikuak ematen zizkieten.

## 382. Likore-fabrikako langileak eta salmentak (URR-034/020)

Likore-fabrikan egin zuen lan Seberianaren senarrak. Fabrika hartan jende ugarik egiten zuen lan. Likoreak trenez bidaltzen zituzten inguruetara: Eibar, Zumaia, iparraldea...

## 383. Urolako trena martxan zebilenekoa (URR-034/021)

Urolako trena martxan zebileneko garaia gogoan du. Trena bete-beteta etortzen zen goizean. Barazkiak tren hartan ekartzen zituzten. Getariatik arrain freskoa ekartzen zuten.

## 384. Arrainak eta ardiak etxean (URR-034/022)

Arraina jateko, nola prestatzen zuten azaltzen du. Ardiak ere jaten zituzten, baina artilerik ez zuten egiten; ardiaren ilea saldu besterik ez zuten egiten. Galtzerdiak eta jertseak, ordea, egiten zituzten.

## 385. Idimoko giro ona (URR-034/026)

Idimo inguruan jende asko bizi izan zen. Han giro ona egoten zen: hala nola, Gabonetan festak ospatzen zituzten, baliabide gutxirekin gainera. Baserritarrek harrera ona egin zioten Idimora kanpotik etorritako jendeari.

## 386. Elena farmazialariarenean neskame (URR-034/028)

Agineta aizkolariaren etxean 3 urtez neskame ibili ondoren, Elena farmazialariarenera joan zen Zumarragara. Etxe hartan dirua bazeukatenez, ondo jaten zuten. Hango lan-baldintzak aipatzen ditu.

## 387. Aste Santuan, herritarrak buru-belarri laguntzen (URR-034/033)

Lehen, Aste Santuan jardun espiritualak, misioak, prozesioak... izaten ziren. Haiei buruz hitz egiten du. Herrian, herritarren artean prestatzen zuten

prozesioa, eta lan handia egiten zuten horretarako. Lehen, apaizek lan gehiago egin behar izaten zituzten, eta oraingoen aldean oso desberdinak.

### 388. Prozesioetako ohiturak eta antzerkiak (URR-034/035)

Prozesioak nola antolatzen zituzten azaltzen du. Prozesioetako ohiturak eta antzerkiak. Prozesioa eta meza ikusi ostean, gizonak tabernara joaten ziren, eta emakumeak etxera. Ostiral Santuan, baserritar gehienak erromatarrez mozorrotzen ziren.

### 389. Prozesioen beherakada (URR-034/037)

Pixkanaka, prozesioen ohitura galtzen joan zen; arrazoiak aipatzen ditu.

### 390. Misioetako ohiturak (URR-034/038)

Aste Santua bukatzean, Misioak izaten ziren. Misioetako ohiturak aipatzen ditu.

### 391. Jesusen piztueraren eguna (URR-034/039)

Jesusen piztueraren egunean, aldareak ipintzen ziren herriko leku jakin batzuetan. Egundoko aldareak ziren haiek. Han egiten zen ospakizuna azaltzen du. Nahitaez joan behar izaten zuten hara; baina, pixkanaka, ohitura galtzen joan da.

### 392. Etxeko giroa eta irratiaren etorrera (URR-034/040)

Etxean, egunero errezatzen zuten arrosarioa; eta, geroago, bertso "berdeak" abesten zituzten. Irratia inguruetara iritsi zeneko anekdotak kontatzen ditu.

### 393. Etxaburu baserria eta inguruak (URR-034/041)

Auzoko jendearekin oso harreman ona izan zuten beraiek. Etxaburu baserria lehen nolakoa zen azaltzen du.

### 394. Etxea bi urtean ordaindu zuten (URR-034/042)

Ezkondu zen garaian, oraindik miseria zegoen; orduan hasi zen kontua aldatzen. Senarrak eta berak etxea erosi zuten, eta bi urtean dena ordaindu ahal izan zuten. Orduko jornalak eta gaur egungoak alderatzen ditu.

### 395. Euskararekiko jarrerak lehen eta orain (URR-034/043)

Lehen Urretxu nolakoa zen azaltzen du: txikia zen, denek ezagutzen zuten elkar... Erdaraz ez egiteagatik, barre egiten zioten Seberianari.

### 396. Erdaraz egiteagatik zigorra eskolan (URR-034/046)

Santa Barbarako eskolan euskaraz ikasten zuten; eta han, erdaraz hitz egiteagatik zigortu izan zuten Seberiana. Etxean euskaraz egitera ohitu da Seberiana, nahiz eta senarrak euskaraz ez jakin.

### 397. Beraien garaiko gaixotasunak (URR-034/050)

11 urte zituela, Seberianak barizela gogorra pasa zuen. Orduko oroitzapenak. Gaixotasun gutxi pasa zituzten etxean. Behin, amak besoa hautsi zuen, eta medikuari esker sendatu zen. Lehen, ez zeukaten klinikara joateko ohiturarik.

### 398. Bere aitona-amonen garaiko gaixotasunak (URR-034/051)

Aitona kutxa baten gainean operatu zuten, peritonitis zeukala. Hil egin zen. Amona pneumoniak jota hil zen. Gerora, beraien garairako, medikuntza aurreratu zen.

### 399. Baserrien arteko pike sanoak (URR-034/057)

Baserritarrak ez ziren elkartzen normalean; ingurukoak ingurukoekin bakarrik. Orduko kanta bat abesten du.

### 400. Aitaren izaera eta ikasketak (URR-035/003)

Aita eskolatua zen, Armeriako eskolan ikasitakoa. Baina, langabezia zegoenez, Paris aldera joan zen lan bila, 19 urte zituela. Aita gizon jatorra eta umila zen. Ama eta aita oso desberdinak ziren.

### 401. Aita, gerran, oso ondo hartu zuten Valentzian (URR-035/007)

Berak 4 urte zituen aita ezagutu zuenean, hura gerran egon baitzen ordura arte. Hainbat lekutan egon zen; besteak beste, Valentzian. Han, oso ondo hartu zituzten euskaldunak izateagatik. Orduko anekdotak kontatzen ditu.

### 402. Iragarki bati esker, etxera itzuli (URR-035/009)

Aita, gerran zebilela, hainbat lekutan izan zen: Bartzelonan, Valentzian... Aitak egunkaria irakurtzen zuen, komunean zegoen bitartean. Halako batean, iragarki bat ikusi zuen beraien bila zebiltzala.

### 403. Eskolako ikasgaiak eta aitaren "jornal base" (URR-035/011)

Lehen, ez zeukaten dirurik liburuak erosteko. Eskolan, entziklopedia erabiltzen zuten denerako. Gerra ostean, aitari "jornal base" jarri zioten zigor gisa; hau da, ezin zuen jornal hori baino gehiago kobratu, nahiz eta ordu gehiago lan egin. 14 urterako, Luziak bazekien josten, eta horretan aritu zen batean eta bestean.

### 404. Izeba jostunarengandik ikasitakoa (URR-035/018)

Ataungo izeba jostuna zen, eta hari begira egon ohi zen Luzia. Izebaren josteko makina berezia zen.

### 405. Errotan lanean aritu zeneko garaia (URR-035/019)

Errotan lanean ibili zen garaiko kontuak aipatzen ditu: orduko lanak, ohiturak... Hango ogia dendetan saltzen zuten; eta zaldiz eramaten zuten jeneroa.

### 406. Lehengo zapatak (URR-035/022)

Urtean, zapata pare bat erabiltzen zuen. Zapatak gomazkoak izan ohi ziren.

## 407. Moja ederra eta moja gaiztoak (URR-035/023)

Zumarragako mojekin ikasten ibili zen garaian, euskaraz egiteagatik zigortzen zituzten mojek ikasleak. Han bazen moja bat oso ederra eta dotorea zena; gainerako mojek inbidia handia zioten, eta bota egin zuten azkenean. Moja ugarik dirudunei egiten zieten kasu; eta diru gutxiago zuten ikasleak baztertzen.

## 408. Mendian topatu zuten gizonarekin bizitako anekdota (URR-035/026)

Gaztetako pasadizo bat kontatzen du: neska-mutilak mendian zebiltzala, gizon zahar bat etzanda ikusi zuten, mozkortuta. Orduko kanta gogoan du; barre izugarriak egin zituzten.

## 409. Aitaren jarrera kritikoa apaizekiko (URR-035/032)

Aitak erlijioa errespetatzen zuen, baina ez zuen sinesten apaizengan. Aitaren jarreraren nondik norakoak azaltzen ditu.

## 410. Etorkinak, arbi eskean (URR-036/001)

Goiko Kalen zer gorabehera izaten ziren. Etorkinak bizi ziren bertan, eta nolakoak ziren azaltzen du. Jende ona ziren etorkinak, lanera etorrikoak. Pasadizo bat kontatzen du: Luziaren aita soroan lanean zebilela etorkin batzuek arbia eskatu zioten jateko.

## 411. Lehengusuaren automobila (URR-036/004)

Luziaren lehengusu batek automobila zuen: "la cucaracha" esaten zioten. Herrian automobil gutxi zeuden garai hartan. Nolakoa zen azaltzen du. Garai hartako errepideak estuak ziren, noranzko bakarrekoak. Urretxutik Zumaiara arte bazen errepidea.

## 412. Igandetako Zumarragako azoka (URR-036/005)

Ez zegoen baserrietarako biderik. Igandetan, Zumarragan azoka izaten zen, eta Aginaga puntatik astoarekin eta oinez jaisten ziren baserritarrak kalera. Normalean, emakumeak joaten ziren herrira saltzera.

## 413. Zumarragako jauntxoak eta Urretxuko iturria (URR-036/006)

Igandetan, Zumarragan azoka izaten zen. Garai hartan, Urretxun ez zen azokarik egiten. Orduko Zumarragako jauntxoak zein ziren aipatzen du: Busca, Badiola eta Aparizio. Haien bizimoduari buruzko kontuak. Apariziok Urretxuko iturria kendu zueneko istorioa kontatzen du. Iturria nolakoa zen azaltzen du.

## 414. Zumarraga eta Urretxu arteko gorabeherak (URR-036/008)

Zumarraga eta Urretxu arteko pikeak. Luziaren ama sukaldari aritzen zen tabernan zer gorabehera sortzen ziren kontatzen du.

## 415. Argindarrik ez baserrian (URR-036/009)

Mañari baserrian bizi zireneko kontuak. Baserrian ez zuten argindarrik, eta karburoarekin edota petrolioarekin egiten zuten argia. Kinkeak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Aginaga aldeko baserrietan ba zen argindarra, baina sarri joaten omen zen.

## 416. Mañari ingurua (URR-036/010)

Beraientzako landu ohi zituzten lurrak, ez zuten auzolanik egiten. Etxe ingurura hurbiltzen ziren artzainak etxe barrura sartu ohi ziren, epelera. Etxe inguruak deskribatzen ditu: bideak, harrobia...

## 417. Estraperlo kontuak (URR-036/011)

Estraperlo garaiko kontuak. Herriko jendea Altsasura joaten zen Norteko trenean patata bila. Bueltakoan, ordea, inspektoreek arrapatu eta jeneroa kentzen zien. Emakume bati gertatutakoa kontatzen du.

## 418. Guardia zibilak eta etxe-ordeko gari-zakuak (URR-036/014)

Herrian zeuden guardia zibilekin zer harreman zuten kontatzen du. Lizatxu errotan neskame egon zen garaian, etxe-ordean estraperloko garaia ezkutatzen zuten lastoarekin tapatuta. Errekako urak hazita zetozen batean, gari-zakuak ateratzen ari zirela guardia zibilak agertu eta zakuak ateratzen lagundu zien. Haiek ez zekiten estraperloko garia zenik.

## 419. Lizatxu Errota eta Gerra Errota (URR-036/015)

Luzia Lizatxu Errotan egon zen neskame. Bazen inguruan beste errota bat: Gerra Errota. Bi errotariak anaiak ziren.

## 420. Jaunartzeko soinekoa (URR-036/018)

Jaunartzea lutoz jantzita egin zuen amonaren heriotza zela eta. Nolako soinekoa eraman zuen azaltzen du. Elizan binaka joaten ziren jauna hartzera. Amaieran, sakristian txokolatea eman zien.

## 421. Aitaren ogibidea, garraioa (URR-037/003)

Aitak zaldia zeukan, eta mandatari-lanetan aritzen zen inguruko herrietan. Gerora, Frantziatik kamioia ekarri zuen, eta harekin egiten zuen lan. Garai hartan, osaba zen inguruko taxilari bakarra.

## 422. Etxeko komunean, mugarria (URR-037/005)

Amaren jaiotetxea Azkoitiko lurren mugan zegoen. Lursail haien ezaugarriei buruz hitz egiten du. Etxearen barruan, komunean, dago mugarria.

## 423. "Koliko miserere" (URR-037/007)

Jexuxaren anaiak Txintxurretarenean jaio ziren, eliza parean. Anaia hura hil egin zen eztarriko infekzio baten ondorioz. Garai hartan, ordea, ez zekiten askorik gaixotasunei buruz, eta "koliko miserere" izena ematen zieten denei.

## 424. Etxean, garraiolari ugari (URR-037/008)

Aitak kamioia izan baino lehen, baziren herrian USA kamioi frantsesak. Aitona maitemindu egin zen kamioi harekin. Osaba taxilari-lanetan hasi zen, kanpotik etortzen zen jende aberatsa batetik bestera eramateko.

## 425. Zestoako uraren onurak eta kalteak (URR-037/009)

Zestoako ura gibelerako ona omen zen. Salgai egoten zen, baina amari kalte egiten zion.

## 426. Aitak kamioiarekin egiten zituen lanak (URR-037/010)

Zumarragan Urola hotela eta Paraiso hotela zeuden. Han, biltegi batean, zerealak egoten ziren gordeta. Aitak Arrasateko Santa Agedara kamioia janariz beteta eramaten zuen.

## 427. Mojak bizi ziren eraikinaren erabilera (URR-037/016)

Mojen eskolara joan zen Jesusa. Mojak bizi ziren eraikina nolakoa zen eta zertarako erabiltzen zuten azaltzen du.

## 428. Ama zaintzeagatik, eskola asko galdu (URR-037/018)

Eskola asko galdu zuen Jesusak, ama zaintzen geratzearren. Minak izaten zituenean, nola moldatzen ziren azaltzen du.

## 429. Etxeko lanak, Jexuxaren gain (URR-037/022)

Jexuxa arduratzen zen etxeko lanez. Eta, horregatik, eskola asko galdu zuen. Ama zaintzen ibili izan da beti Jexuxa; eta, azkenean, 87 urterekin hil zen hura.

## 430. Anaia, soldaduen txofer (URR-037/026)

Gerra garaian, anaia gerrarako deitu zuten; eta, txofer zenez, soldaduak batetik bestera eramateaz arduratzen zen. Soldaduak urte pare bat egon ziren herrian.

## 431. Bonbardaketa beldurgarriak (URR-037/027)

Bonbardaketak beldurgarriak izaten ziren. Zumarragan, hiru lagun hil ziren. Beraiek, etxean, bonbetatik babesteko, nola moldatzen ziren aipatzen du.

## 432. Errazionamenduari, "sorramiento" (URR-037/033)

Errazionamendua iristen zenean, erdaraz ematen zuten horren berri udaletxeko langileek. Aitak euskaraz egiteko, errieta egiten zuen. Lehengusu txikiak, oraindik erdaraz ez zekien, eta "sorramiento" deitzen zion errazionamenduari.

## 433. Ezkontza eguneko kontuak (URR-038/008)

Jexuxa Arantzazun ezkondu zen. Orbegozok, Jexuxaren senargaiaren nagusiak, ezkongaientzat automobila eta familiakoentzat autobusa jarri zien. Oñatitik Arantzazura bidean mareatu eta botaka egin zuen Jexuxak. Banketean, oilaskoa jan zuten. Fraideek organoa jo zuten elizkizunean. Ezkongaien urduritasunak...

## 434. Mojetan, erdaraz ez jakiteagatik, kaletarren barreak (URR-039/005)

Urretxura bizitzera etorri zirenean, mojetan ikasi zuen. Orduko maistren izenak gogoan ditu oraindik. Eskolan, erdaraz ez zekiten, eta kaletarrek barre egiten zieten horregatik. Urtebete atzeratu ziren ikasketekin, erdara ez zutelako ulertzen.

## 435. Jolastokiko jolasak (URR-039/008)

Jolastokian, hainbat jolasetan aritzen ziren: sokasaltoka, txuntxurruska, kalderonka, tortoloska...

## 436. Auzoko lagunekin batera eta bestera (URR-039/011)

Elizara joateko bidean, lokatz gutxi egoten zen. Auzoko lagunekin ibiltzen zen Pakita. Aitona batek errieta egiten zien, erdaraz aritzen zirelako. Igandetan, baserri inguruan gelditzen ziren; neguan, karta-jokoan aritzen ziren.

## 437. Posta-arduradunaren etxean neskame, oso gustura (URR-039/013)

Zumarragako posta-arduradunaren etxean aritu zen neskame-lanetan 8 urtez, harik eta ezkondu zen arte. Oso gustura egon zen han, etxekoandrea on puska zen. Igandetan, etxeratzeko ordua izaten zuten. Orduko kontuak aipatzen ditu.

## 438. Igande arratsaldetako planak (URR-039/014)

Igande arratsaldetan, neskame zebilela, zer plan egiten zituzten azaltzen du. Garai hartan, mutilekin ibiltzen ziren dantzan, baita lotuan ere, ez baitzegoen galarazita; inguruko beste zenbait herritan, ordea, bai.

## 439. Abestea gustuko (URR-039/016)

Abestea gustatzen zitzaien, eta paperetan edukitzen zituzten idatzita abestiak. Bertsoak ere kantatzen zituzten. `Maritxu, nora zoaz?´ abesten du.

## 440. Kanpotik etorritako jendearen zaletasuna musikarekiko (URR-039/017)

Mendira joatean, behiak zaintzean... abesten aritzen ziren. Herrira kanpotik etorritako jendea txaboletan elkartu eta musika jotzen aritzen zen; haiei begira, gustura egoten ziren Pakita-eta. Soinu-jotzaile onak atera ziren handik.

## 441. Etorkinekin harreman ona eta elkartasuna (URR-039/018)

Kanpotik etorritako jendearekin zuten harremana azaltzen du. Batzuk txabolatan bizi ziren; eta, elurte handia egin zuen batean, elurra pasa arte, amak etxera ekarri zuen familia haietako bat, babesean egon zitezen. Jende ona ziren etorkinak.

## 442. Ardiekin lanean aritutakoa (URR-039/019)

Artaldea zeukaten baserrian, 30-40 ardi inguru. Pakitarentzat, okerrena: udaberrian, ardien bila mendira joan behar izatea. Ardi bakoitzak bere izena izan ohi zuen: Pintto, Muturgorri, Muturbeltz...

## 443. Ardiak ondo jakin zein zen bere artaldea (URR-039/021)

Ardiak Idimo mendian egoten ziren; hango lursailak baserrien artean banatuta zeuden. Batzuetan, artaldeak nahastu egiten ziren; baina ardi bakoitzak jakin ohi zuen zein izaten zen bere artaldea.

## 444. Zazpikiarentzako esnea (URR-039/023)

Esne-behiak zituzten baserrian. Herrian bezeroak zeuzkaten, eta haiengana eramaten zuten esnea. Bezero haietako bati buruzko berezitasunak kontatzen ditu: zazpi hilabeterekin jaio zen haurra, eta harentzako esne berezia eramaten zuten, aurrera atera zedin.

## 445. Ogi-eskasia zenean, ogia izatearen balioa (URR-039/026)

Garia errazionatu egin behar izaten zuten urte osorako. Larunbatero egiten zuten ogia etxean. Garai hartan, ogi-eskasia handia zegoen, eta albaitariari eta bikarioari ogi txiki bat eramaten zieten; orduan, bi pezeta ematen zizkioten Pakitari.

## 446. Errotak itxita egon zireneko trikimailuak (URR-039/027)

Errotak itxita egon zireneko garaian, Aizpurutxora joaten zen Pakita, bizilagunarekin batera. Urolako trenean, batzuek ogiak leihotik bo tatzen zituzten, Guardia Zibilek ez harrapatzearren. Aizpurutxora joateko bideei buruz hitz egiten du.

## 447. Garia, artoa eta morokilak (URR-039/029)

Garia errotara eramatean, kutxaren arabera kalkulatzen zuten zenbat eraman. Artoarekin taloak egiten zituzten, eta hari esker ez zuten goserik pasatzen. Morokila jaten zuten; hura prestatzeko errezeta azaltzen du.

## 448. "Lehen, ume sanoak hazi egiten ziren; gaixoak, hil" (URR-039/030)

Jateko, beti babak izaten zituzten urdaiarekin. Udazkenean, gaztainak biltzen zituzten, eta jateko prestatzen zituzten. Lehen, ume sanoa hazi egiten zen; eta ume gaixoa, hil.

## 449. Garia eta artoaren prozesua (URR-039/031)

Garia eta artoa lantzeko prozesuaz hitz egiten du.

## 450. Garia jotzeko makina (URR-039/032)

Garia jotzeko, makina erabiltzen zuten. Auzolanean egiten zuten gari-jotzea; baina garbitu, bakoitzak berea.

## 451. Uzta onaren aldeko konjuruak (URR-039/033)

Uzta ona edukitzeko, konjuruak egiten zituzten: estola, ur bedeinkatua, errezoak... Apaizak bedeinkatzen zituen uztak.

## 452. Kanposantu ondoko elizako ijitoak (URR-039/035)

Kanposantu ondoko elizari buruz hitz egiten du; lehen, han meza ematen zen. Eliza haren estalpean, ijitoak egoten ziren; gerora, ijitoak aberastu egin ziren.

## 453. Eguraldia iragartzeko, animaliei begira (URR-039/036)

Eguraldia iragartzeko moduak aipatzen ditu: ardia behera etortzen zenean, eguraldi txarra omen zetorren; ardiak gauez mendian gora joaten zirenean, ordea, eguraldi ona.

## 454. Lehen, etxeko argindarraz ezin fidatu (URR-039/038)

Etxean, oso argi txarra zeukaten, Iraetakoa. Presa betetzen zenean, argindarra izaten zuten; baina, husten zenean, kandelekin ibili behar izaten zuten. Gerora, Iberduero sartu zen.

## 455. Bataioko anekdotak (URR-039/041)

Haurrak izandakoan, elizan sartzea izaten zen. Orduan, kandela bat eraman behar izaten zuten. Bataioan gertatutako anekdota kontatzen du.

## 456. Urretxu vs Zumarraga (URR-039/043)

Urretxu eta Zumarragaren artean, beti izan dira ika-mikak eta borrokak. Oso gaizki konpontzen ziren elkarren artean. Elkarri harrika ibiltzen ziren, errekaren alde banatan jarrita. Zumarragako Santa Ixabeletan, hala ere, hara joaten ziren.

## 457. Herriko eta inguruko festetan ibilitakoak (URR-039/046)

Santa Kruzetan eta Santa Luzietan, batzuetan, Legazpira joaten ziren. Baina, gehienbat, herriko bertako festetan ibiltzen ziren. Oso ondo pasatzen zuten. Pagamendira eta Elosura joan izan ziren erromerietara; orduko anekdotak kontatzen ditu. Oletako festetara ere joaten ziren.

## 458. Pauso gutxian, 4 herri (URR-040/003)

Deskarga auzoari buruz hitz egiten du, lehen nolakoa zen. Legazpi, Urretxu, Zumarraga eta Antzuolako mugak etxetik oso gertu dauzkate.

## 459. Santa Barbaran, euskaraz; kalean, erdaraz (URR-040/005)

Komunio txikia egin arte, Santa Barbarako eskolara joan zen; eta, komunio handia egin arte, kalera, Don Mateorengana. 14 urterekin, garai hartan, jendea lanean hasten zen. Santa Barbarako maistrak gogoan ditu; euskaraz egiten zuten eskola hartan. Kalean, ordea, erdaraz egiten zuten, eta hasieran komeriak izan zituzten ulertzeko.

## 460. Egun osoa herrian eman behar (URR-040/010)

Umetan, herrira goizez joaten ziren, autobusez. Eskolan bazkaltzen zuten, etxetik eramandako janaria janda.

### 461. Kaletarrekin harreman ona, burlak egon arren (URR-040/012)

Euskaraz egiteagatik ez zituzten zigortzen, beraiek ez baitzekiten erdaraz. Kaletarrek burla egiten zieten baserrikoei; baina, hala ere, ondo konpontzen ziren. Frontoian aritzen ziren pilotan jolasten.

### 462. Erlijioa oso presente beraien bizimoduan (URR-040/013)

Igandero, erromeria izaten zen Deskargan, eta jende asko etortzen zen inguruetatik. Dantza soltea egiten zuten. Garai hartan, dantza lotua debekatuta zegoen, bekatu zen. Luistarren kongregaziora hilero joan behar izaten zuten. Pagoetako kofradiara ere joaten ziren. Igandero, mezara joaten ziren; nahiz eta larunbatean gauez lan egina izan.

### 463. Erromeriako musika eta harremanak (URR-040/015)

Deskargako erromerian, Antzuolako Lazaro aritzen zen soinua jotzen. Dantza soltea egiten zuten; eta, neskak utziz gero, etxera laguntzen zituzten. Neskak erabakitzen zuen mutilekin noraino iritsi.

### 464. Bizi guztian Orbegozo lantegian ibilitakoa (URR-040/018)

Eskola bukatutakoan, Orbegozoren lantegian hasi zen lanean; eta han eman zituen ia 40 urte. Han izandako zereginak aipatzen ditu. Fabrikan gustura hasi zen lanean, diru pixka bat lortuko zuen pozarekin.

### 465. Gose garaiko menuak eta txerriak (URR-040/022)

Gerra ostean, ondo moldatu ziren janariarekin. Goserik ez zuten izan, baina luxurik ere ez. Orduko menuak gogoan ditu. Urtean, txerri bat hiltzen zuten. Txerria elikatzeko, ezkurrak biltzen zituzten eskolatik bueltan.

### 466. Esperantzaren arabera, medikua edo petrikiloa (URR-040/024)

Oñatibia aita-semeak ziren herriko medikuak. Inguruetako petrikiloa Trukuman azpeitiarra zen: medikuak etsitzen zirenean, harengana jotzen zuen jendeak.

### 467. Konjuruak, Elizakoak eta azken igurtziak (URR-040/025)

Lehen, konjuruak egiten zituzten uzta ona izateko. Urtero etortzen zen apaiza, bedeinkazioa botatzen zuen, eta trukean arrautzak ematen zizkioten. Norbait hilzorian zegoenean, Elizakoak izaten ziren: apaiza oinez etortzen zen, txilina jotzen. Norbait hiltzen zenean, olio santua ematen zioten gorpuari hanketan. Aitona hil zeneko oroitzapenak kontatzen ditu.

### 468. Sorginak eta Sakamantekas, beste garai bateko ipuinak (URR-040/029)

Sorginak garai batean ba omen ziren. Baina Eibarren eskopetak egiten hasi zirenean, denak desagertu omen ziren. Sakamantekas pertsonaiarekin, beldur handia sartzen zieten mutikoei.

### 469. Artoaren inguruko bizimodua (URR-040/031)

Etxera etorritakoan, arrosarioa errezatu behar izaten zuten. Askotan, artoa zuritzen aritzen ziren bitartean errezatzen zuten. Artoa zuritutakoan, Antzuolako errotara eramaten zuten, harekin arto-irina egin eta morokila prestatzeko. Gari-irinarekin, ahia prestatzen zuten.

### 470. Edozer zela eta, argirik gabe geratu (URR-040/033)

Lehen, argi txarra izaten zuten etxean; eguraldiaren eraginez, bata edo bestea zela, askotan argirik gabe egoten ziren. Baina, hala ere, konpontzen ziren. Gogoan du etxean izan zituzten lehenengo garbigailua eta telebista.

### 471. Nobillada onak Urretxuko jaietan (URR-040/036)

Urretxuko festak onak izaten ziren. Nobillada onak izaten omen ziren orduan. Toreatzaileak kanpotik etortzen ziren; baina, zezena hiltzeko, Kandido Mendizabali deitzen zioten. Jende asko joaten zen hura ikustera, eta oso giro ona egoten zen.

### 472. Antzuolara, irin bila (URR-041/001)

Mutikotan, irina ekartzen zuen estraperloan Antzuolatik. 10-15 kiloko arto- edo gari-zakuarekin joaten zen errotara. Behin, Antzuolatik bueltan zetorrela, auzoko neska bat eta bera arrapatu zituen guardia zibilak Deskargan. Orduan, Guardia Zibila Marianoren etxera joan zen: amak guardia zibilekin izandako elkarrizketa gogoratzen du. Etxean ehotzeko makina txiki bat ekarri zuen aitak, baina ez zuen irin ona egiten; errotakoa hobea izaten zen.

### 473. Auzo-eskolatik herriko eskolara (URR-041/008)

Santa Barbarako auzo-eskola bukatu, eta, 11 urterekin, kaleko eskolan hasi zen Paulo. Kaleko eskolan, ikasle batzuk ez zekiten gaztelaniaz, eta maisuak, berriz, ez zekien euskaraz. 14 urte betetzerako hasi zen Orbegozonean lanean. Lanetik ateratakoan gau-eskolara joaten zen.

### 474. Gau-eskola (URR-041/009)

Urretxuko elizaren goiko aldean, eskola nazionalak zeuden, eta han ematen zituzten gau-eskolak. Gau-eskola aparte ordaindu behar izaten zen.

### 475. Autobuseko gorabeherak (URR-041/011)

Askotan oinez egiten zuten kaleko joan-etorria. Aita ere lanera hala joan ohi zen. Etxean bizikleta bakarra zegoen hiru lagunentzako; gehienean, Marianok (seme zaharrenak) erabiltzen zuen. Autobusarekin "salbatzen" zirela diote, baina dirurik ez zuten izaten... eta orduan izaten ziren komeriak. Garai hartan, bi pisuko autobusa ibiltzen zen. Paulok kontatzen du nola ibiltzen zen autobuseko kobratzailearengandik ihesean.

### 476. Errepidea eta ibilgailuak (URR-041/012)

Baserria errepide ondoan zegoen, eta egunean hamar ibilgailu inguru pasatzen omen ziren. Garraiolari eta taxi-gidariak ibili ohi ziren normalean.

### 477. Bidea garbitzeagatik, propina (URR-041/013)

Neguan, elurra egiten zuenean, auzoko mutikoak zain egoten ziren norbait bidea garbitzeko laguntza eske joan eta propina jasotzeko. Ez zuten beti

propina jasotzen, baina jasotakoan hura poza! Negu batean, bide garbitzen 100 pezeta atera zituela dio Paulok.

### 478. Garai bateko elurteak (URR-041/014)

Garai batean, orain baino elurte handiagoak izaten ziren. Izagirretarren baserri inguruan bidea itxita egon izan zen 15 egunean elurragatik, eta hainbat egun pasatzen zituzten kalera joan gabe. Neguan, artzainak Bizkaira joateko ardiekin elurretan nola pasatzen ziren kontatzen dute. Mariano jaio zen urtean, 80 zentrimetroko elurra zegoen Deskargan.

### 479. Elurteak eta ganadua (URR-041/015)

Ukuiluan ez zuten urik, baina sukaldean bai. Etxearen egitura azaltzen dute: sukaldea eta ukuilua elkarren ondoan zeuden. Neguan, elurte handiak izaten zirenean, ezin izaten zuten ganadua kanpora atera; hortaz, behiak eramaten zituzten sukaldera ura edatera.

### 480. Argindarra, ura eta garbitokia (URR-041/016)

Mariano eta Pauloren ama Deskargara ezkondu zenean sartu zuten argindarra baserrian. Baserriko aitonak ez zuen nahi etxean argindarrik jartzerik, "etxeak su hartuko" zuelakoan. Gero, ura sartu zuten. Behin etxean ura zutela, errepidearen beste aldean garbitokia egin zuten.

### 481. Baserriaren egitura (URR-041/018)

Komuna ukuiluaren gainean zegoen. Zenbat logela eta nolakoak ziren aipatzen dute, baita bakoitzean lo zeinek egiten zuen ere. Neguan, sabaiko zirrikiztoetatik elurra sartzen zen logeletara.

### 482. Estraperloa eta errazionamendua (URR-041/021)

Gerraostean, ogi falta ezagutu zuten. Baserrian artoa edukita ere, errotak itxita zeuden. Errazionamenduko ogia, "txarra". Errazionamendua 50. hamarkada hasierara arte egon zen. Ogia salmenta librean jarri zenean, kiloko ogiak 5 pezetan balio zituen. Estraperloko prezioak aipatzen dituzte: ogi barra txikia 3 pezeta, litro olioa 18-20 duro...

### 483. Gose garaia eta jakien prezioak (URR-041/022)

Gerraostean, elikagaiak zer preziotan zeuden eta etxerako zer erosten zen aipatzen dute. Aitak egunean 10-12 ordu egiten zituen lanean, eta, hala ere, dendako gastuei aurre egiten lanak izaten ziren. Hilaren amaieran, aitak soldata kobratutakoan, ama dendara joaten zen zorrak kitatzera. Baserrian ez zuten jateko faltarik, baina kalean...

### 484. Purificación ez, Jone Garbiñe! (URR-042/002)

Izen euskalduna izateak Franco garaian ekarri dizkion eragozpenak ditu hizpide.

### 485. Irimoko gurutzeko "parapetoa" (URR-042/005)

Gerraostean, Irimoko (Urretxuko mendia) gurutzearen azpian Guardia Zibilak "parapeto" bat zuela kontatzen du. Baserrira joaten ziren sarri goseak, jateko zerbaiten eske eta eman egin behar izaten zieten.

## 486. Baserriaren errenta ez zen diruz ordaintzen (URR-042/008)

Aitaren arbasoak errentero izan ziren. Babarrunak, garia eta horrelakoak ematen zizkioten etxejabeari urtean behin. Aitari eman zioten baserria 16.000 pezetatan erosteko aukera eta ordutik hona familiarena da.

## 487. Babarrun "gozoak" prestatu zituenekoa (URR-042/010)

Baserritik bizi ziren. Jaki gutxi erosten zuten dendan. Olioa eta azukre zuria oso estimatuak ziren. Umetan aitarentzat babarrunak prestatu zitueneko anekdota kontatzen du.

## 488. Maiorazkoaren ezkontza ospakizunak hiru egunez (URR-042/015)

Maiorazkoa ezkontzen zenean hiru egunez luzatzen zen ospakizuna. Horrelako ezkontza luze batean lana egin eta mezetan lo hartu zueneko istorioa kontatzen du.

## 489. Arropa-garbigailua ezkontza opari (URR-042/017)

Ezkontza opariez ari da. Osaba batek arropa-garbigailua oparitu zien baina baserrian urik ez zutenez, baldearekin bete behar izaten zuten.

## 490. Garbiketa kontuak (URR-042/018)

Ezkondu zirenean ekarri zuten ura etxeraino. Orduko komuna nolakoa zen deskribatzen du. Lixiba nola egiten zuten kontatzen du.

## 491. Aitak fruta-arbolak txertatzen zituen (URR-042/019)

Aitak fruta-arbolak (sagarrak, madariak eta gereziak) txertatzen zituen bera gaztea zela. Hika egiten zien aitak. 

## 492. Tifusarekin gaixotu ziren ama ez beste guztiak (URR-042/022)

Tifusarekin gaixotu ziren etxekoak. Aita lau hilabetez egon zen gaixorik eta bizilagunek laguntzen zieten baserriko lanekin. Garai hartan elkartasun handiagoa zela dio.

## 493. Behi-esneaz gurina egiten zuten (URR-042/025)

Bost behi zituzten etxean esnetarako. Behi-esnearekin gurina nola egiten zuten kontatzen du. Gurina gozo-dendan saldu eta diru harekin gozokiak erosten zituen amak.

## 494. Dendako erosketak hilabetean behin (URR-042/028)

Hilabetean behin erosten zituzten azukrea, olioa eta horrelakoak dendatik baserrirako. Arrautzak ere eramaten zituzten dendara eta trukean txokolatea ematen zieten. Amari arrautza bat lapurtu zionekoa kontatzen du

## 495. Errenta ordaintzera Donostiara (URR-043/002)

Errentan bizi ziren baserrian. Urtean behin, Gabonetan, Donostiara joaten ziren ugazabei kapoi pare bat ematera. Bueltan bakailaoa ekartzen zuten, gabonetarako. Arrain gutxi jaten zuten orduan.

## 496. Zabaleta baserriak jauregi itxura (URR-043/003)

Euren baserriak, Zabaletak, baserria baino jauregi itxura dauka. Hiru bizimodukoa da eta behean egongela handiak ditu. Oraindik ere polit-polita da baserria. Seiehun bat urte edukiko ditu.

## 497. Baserriko maiorazkoa, aitaren ama (URR-043/004)

Gehienetan, baserrietako maiorazkoa gizona izaten zen, baina eurenean aitaren ama izan zen. Garai hartan, mutil asko Ameriketara joan zen artzain eta horregatik uste du Mirenek maiorazkoa aitaren amarentzat izan zela.

## 498. Ezkio-Itsasotik zumea moztera (URR-043/006)

Zabaleta baserriko bizitza batean bizi zirenek zumea lantzen zuten baserriko lursailetan. Ezkio-Itsasotik etortzen ziren mutil gazteak zumea moztera. Babak ekartzen zituzten etxetik eta Mirenen amak egosten zizkien.

## 499. Etxeko ganadua eta soroa (URR-043/007)

Lau-bost behi edukitzen zituzten, etxerako. Honez gain sail handiak lantzen zituzten: artoa, garia, ganaduentzako arbia... Behien azpiak egiteko basotik ekartzen zuten garoa. Sabaian gordetzen zuten urte guztirako garoa.

## 500. Santa Barbarako eskola (URR-043/008)

Santa Barbarako eskolan hasi zen Miren komunioa egin zuenean, zazpi bat urte zituela. Otoitzak euskaraz egiten zituzten, baina ez zieten euskaraz hitz egiten uzten. Margarita Sasieta izan zen euren maistra. Neguan, ume batzuek egurra ekarri behar izaten zuten eskolako beheko surako eta beste batzuek maistrarentzako kafea. Neska eta mutil batera ibiltzen ziren eskolan, adin ezberdinetakoak.

## 501. Eskolako jolasak (URR-043/009)

Eskolan, josten ere irakasten zien maistrak, baina neskei bakarrik. Ezkutaketan nola jolasten zuten azaltzen du. Neskek tortolosetan ere egiten zuten. Inguruko baserriko neska-mutilekin jolasten zuen Mirenek, anai-arreba nagusiak zituen eta.

## 502. Deskargako erromeriak (URR-043/010)

Deskargan erromeria egiten zuten. Panderoa eta musugitarra ("armonika") jotzen zituzten bertan. Hamalau bat urte zituztenean hasten ziren erromeriara joaten.

## 503. Eskola utzi eta Hotel Urolan neskame (URR-043/011)

Hamahiru bat urte zituela utzi zuen eskola eta baserrian laguntzeari ekin zion. Hala ere, hilabete biz ibili zen Urretxuko mojetan pixka bat gehiago ikasten. Sor Balentina zen euren maistra. Hamasei urte zituela Hotel Urolan hasi zen neskame. Oso gustura egon zen bertan eman zituen zazpi urteetan.

## 504. Hotel Urolako lana (URR-043/013)

Saltzaile ("viajante") asko zebilen orduan Hotel Urolan. Neskameak goizean goiz hasten ziren lanean: logelak egin, sukaldea, mahaiak zerbitzatu... denetik egiten zuten. Ez zuten uniformerik erabiltzen. Mirenek ez zekien erdaraz orduan, horregatik, isil-isilik ibiltzen zen.

## 505. Lehen jornalarekin abrigo gorria egin zuen (URR-043/014)

Hotel Urolan irabazitako lehenengo jornalarekin abrigo gorri bat egin zuen Mirenek. Zumarragako jostun batek josi zion. Garai hartan denda gutxi zeuden. Arropa ere gutxi edukitzen zuten eta gehienak etxean josten zituzten. Urretxun ile-apaindegia zegoen, Josefinarena. Permanentea egiten zuten orduan eta ile motza eramaten zuten.

## 506. Urretxuko dendak (URR-043/015)

Urretxuko aldapan kafea, txikoria eta azukrea moduko jeneroak saltzen zituen denda zegoen, Gabrielatxo. Aldamenean taberna zegoen. San Martinetan odolkiak egiten zituzten bertan. Altamira aldera igonda, konfiteria bat zegoen, Genoveva. Santa Barbarako maistraren familiakoak jostunak ziren eta haiek ere dendatxo bat zeukaten herrian.

## 507. Haragia eta arraina (URR-043/016)

Zumarragako plazan Patxiko Arzeluzek harategia zeukan. Arraina erosteko, ostera, kale-saltzaileei erosten zieten, Kasianari.

## 508. Medikua eta praktikantea (URR-043/017)

Don Dionisio Oñatibia zen herriko medikua. Motorrean ibiltzen zen etxerik etxe. Erditzeak, ostera, praktikanteak atenditzen zituen, Zoilo Mendizabalek. Hura ere motorrean ibiltzen zen.

## 509. Herriko aldaketak (URR-043/018)

Urretxu eta Zumarraga guztiz aldatuta daude. 'Bar Isabel' beti egon izan da eta baita ondoko estankoa ere. Beste aldean Juanita Albizuaren denda zegoen, Ugaldeneko señoritaren baratzeak eta okindegia. Eurek esnea partitzen zuten bertara.

## 510. Txerria hiltzean 'txerri-erregalua' aldameneko baserrietara (URR-043/020)

Normalean babak eta aza jaten zituzten baserrian. Txerrikiak ere asko jaten ziren, urtean behin txerria hiltzen zuten eta. Txerria hiltzean 'txerri-erregalua' eramaten zuten aldameko baserrietara. Urdaia gazitu egiten zuten kontserbatzeko eta txorizoak oliotan sartu. Ez zituzten letxugak eta antzeko ortuarioak jaten.

## 511. Jaiegunetako jatekoak (URR-043/021)

Jaiegunetan garbantzuak jaten zituzten haragiarekin eta baba zuriak. Arrautzak ere edukitzen zituzten etxean, oiloak zeuden eta. Ama Ordiziako feriara joaten zen baserrirako behar zena erostera, kafea eta aguardientea esaterako. Trenez joaten zen, otzara buruan zuela.

## 512. Baserriko lanek lehentasuna eskolarekiko (URR-043/023)

Egunero jaisten ziren herrira esnea partitzera. Eskolara, ahal zenean joaten zen Miren, baserriko lanek zuten lehentasuna eta. Komunioa zazpi urte zituela egin zuen. Don Nikolasek eta bere arrebak erakusten zieten dotrina umeei. Etxean ere egunero errezatzen zuten arrosarioa.

## 513. Zezen korridak Santa Anastasietan (URR-043/025)

Santa Anastasietan egiten zen Urretxuko erromeria nagusia. Elizaren aurrean zezenak egoten ziren eta kanpotik ekartzen zituzten toreroak.

## 514. Aste Santuan umeak aingeru jantzita (URR-043/026)

Aste Santuan prozesioak egiten ziren Urretxun. Umeak aingeru janzten ziren. Urtean zehar haragia ostiraletan jan ahal izateko, pezeta bat ordaintzen zuten elizan.

## 515. Oinetakoak aldatu herrira jaisteko (URR-043/027)

Baserritik jaisteko hiru kilometro eta erdi zituzten, bide txarretatik. Horregatik, jaitsi ondoren, oinetakoak aldatzen zituzten. Baserriko beharretarako abarkak eta galtzak janzten zituzten. Abere narruarekin egiten zituen aitak abarkak. Kalerako, botak, bortzegiak edo abarketak erabiltzen zituzten.

## 516. Familia eta lagun artean hika (URR-043/030)

Gurasoek hika egiten zioten Mireni, baina berak sekula ere ez gurasoei. Anaiekin eta lagunekin, ostera, beti egin izan du hika. Mirenek ez du inoiz berorika egin, baina fraide pasionistei egiten zietela gogoratzen du.

## 517. Pasionistek eliza berria altxatu zuten (URR-043/031)

Gogoan dauka Mirenek pasionisten eliza zaharra. Gero, bota eta eta berria altxatu zuten. Eliza zaharrak ere Lurdes zeukan izena. Bertan baserri bat zegoen, Pagoeta, baina geroago bota zuten. Ospakizunik handienak parrokian egiten ziren, Aste Santuko misioak esaterako. Santa Barbaran San Juanetan baino ez zen esaten meza.

## 518. San Juan eguneko ospakizunak Santa Barbaran (URR-043/032)

San Juanetan festa handia egiten zen Santa Barbaran. Egun hartan, "erromilleta" eramaten zuten bedeinkatzeko. "Erromilletaren" barruan artoa eta babak ere sartzen zituzten. Gero, lizar puska batekin jartzen zituzten atean, gurutze baten forman. Aurreko urteko "erromilletak" San Juan suan erretzen ziren.

## 519. Familiako bazkaria San Juanetan (URR-043/033)

San Juan egunean Santa Barbarako mezara joaten ziren. Egun hartan, familiakoak etortzen zitzaizkien etxera bazkaltzera. Oilaskorik onena prestatzen zuten jateko. San Juan eguna etxea garbitzeko eguna ere izaten zen. Karearekin zuritzen zuten etxea.

## 520. Taxiak egon baino lehenago zaldia erabiltzen zen (URR-043/035)

Mirenen senarra taxi gidaria izan zen. Euren gazte sasoian oso taxi gutxi zegoen, hiru edo. Senarrak aitaren lekua hartu zuen. Orduan, taxiak gutxi erabiltzen ziren: emakumeak ospitalera umea egitera eramateko, kanpotarrak Zestoara eramateko... Taxiak egon baino lehenago, zaldia erabiltzen zuen Mirenen aitaginarrebak jendea eramateko.

## 521. Urretxu eta Zumarraga arteko lehia (URR-043/039)

Beti egon izan da Zumarraga eta Urretxu arteko lehia.

## 522. 'Johnny Platz' ezizena (URR-062/002)

Bere ezizena nondik datorren azaltzen du, Arte Ederrak ikasten ari zen garaitik.

## 523. Duela 500 urteko plazaolatarrak eta santakrutzeko miraria (URR-062/004)

"Todos los apellidos vascos" programan bere arbasoen aztarnak ikertu zituzten. Cristobal Plazaola arbasoak Legazpiko mirandaolan egiten zuen lana, eta santakrutzeko mirariaren lekuko izan zen. 500 urte geroago, bere aitak fundizio bateko labean egin zuen lana.

## 524. Familiako matxinsaltoa (URR-062/006)

Plazaolatarrak ez ziren oso urruti joan: kilometro gutxi egin zituzten mendeetan zehar. Bera izan da familiako matxinsaltoa.

## 525. Familiaren berri (URR-062/008)

Ama Ezkiokoa du eta aita Urretxukoa zen, Eguzkitza baserrikoa. Ama Zumarragara joan zen bizitzera. Aitona-amonak. Eguzkitza baserrira orain gutxi joaten da.

## 526. Aittitta Juan, bere idoloa (URR-062/010)

Aittitta Juan (Juan Larrañaga "Uztarri") zen bere idoloa, oso umoretsua zelako eta kontalari aparta. Bergarako Pol-pol tabernan izandako bakarrizketa batean txiste kontalari batekin gertatu zitzaiona kontatzen du.

## 527. Aittitta Juan, bere idoloa II (URR-062/011)

Aittitta Juanek irratira deitzen zuen txisteak kontatzeko. Lazkao Txikiren estatuarekin erretratua atera zion behin aitonari. Telebistan ere agertu zen behin, "Herriko plaza" programan.

## 528. Aitonaren uztarria Sevillara (URR-062/012)

Aitona Juan uztarrigilea zen, eta hark egindako uztarrietako bat Sevillara eraman zuen: 'Allí abajo' telesailean agertu zen, Iñakiren tabernan.

## 529. Kuriositatea beharrezkoa bizitzan (URR-062/013)

Aitona oso kuriosoa zen eta bera ere bai. Anekdota bat kontatzen du, Indiatik bueltan esan ziona. Fernando plaentxiarraren berri ere aitonaren bidez izan zuen. Txiste bat kontatzen du.

## 530. Familiako rola: anaia Xabier eta bera (URR-062/014)

Bere rola familian. Rolak aldatuta dauzkatela uste du. Bera da zaharrena, baina abenturazaleagoa da Xabier anaia baino. Asko miresten du anaiaren egonarria, gauza txikiei eta inguruari etekina ateratzeko gaitasuna. Fantasia umetatik gustatzen zaio.

## 531. Antzerkizalea umetatik (URR-062/015)

Umetan handitan izan nahi zuena. Denek izan nahi zuten futbolari, baina antzerkizalea eta plazagizona izan da umetatik. Imitazioak ere egiten zituen: gaitasuna dauka horretarako. Kantatzea ez zaio gustatzen.

## 532. Kapitaina Urola futbol taldean (URR-062/016)

Urola futbol taldean kapitaina izan zen. Taldelana gustuko izan du beti, giro ona sortzea. Errodajeetan ere gogoratu izan da kapitain izan zen garaiekin: baditu antzekotasunak.

## 533. Arte Ederrak eta "espejismoaren teknika"; lehenengo lanak oholtza gainean eta telebistan (URR-062/017)

Arte Ederrak ikastea erabaki zuen, karikaturak egitea gustatzen zitzaiolako eta komikiak. "Espejismoaren teknika" sortu zuela dio. 2. zikloan, argazkigintza eta ikus-entzunezkoak landu zituztenean, hortik jo nahi zuela konturatu zen. Bakarrizketak egiten hasi zen, 3. mailan zegoela, eta handik ETB-1eko "Kuxkuxeroak" programan hasi zen lanean. Zine ikasketak egin zituen gero, Madrilen.

## 534. Lehenengo bakarrizketak (URR-062/018)

Bakarrizketak egiten nola hasi zen kontatzen du. Urretxun McCrea Clarke irlandarra bakarrizketak egiten ari zen, eta harekin hasi zen. Tabernari moduan lanean zebilela egin zuen lehenengoa. 

## 535. Madrilera ikastera: hiri oso irekia (URR-062/019)

Madrilera joan zen ikastera: gidoigintza. Kariñoa hartu zion hiriari; lehen Bartzelona zuen kuttunagoa. Bidaiatzeak ikuspegia zabaltzeko balio duela dio.

## 536. Euskaraz eta gaztelaniaz, bietan ondo (URR-062/020)

Gaztelaniaz ondo moldatzen da, baina ez du ezer berezirik egin hori lortzeko. Denboraldi bat hemen pasatuz gero euskal azentuarekin joaten da. Anaiari ezin dio gaztelaniaz hitz egin. Etxean euskaraz egin dute beti, baina Urretxu-Zumarragan gaztelania ere asko entzuten zen.

## 537. Euskal telebistako euskarazko lanen alde (URR-062/021)

ETB-1en hasi zen, baina ETB-2n ere egin zuen programa bat, gaztelaniaz: Pika-pika. Orain ez dio zentzu handirik ikusten ETB-2n erdaraz ezer egiteari. Hemen lan egitearen arrazoia euskaraz sortzea dela dio. Euskarazko telesailak gaztelaniaz azpititulatzearen alde dago. Fikzioa euskaraz egiteko gogoz dago.

## 538. Gure txikitasunean handi (URR-062/022)

Gure txikitasunean euskaraz kalitatezko gauzak egiten ditugula uste du, eta hori ezagutaraztea komeni dela, konplexurik gabe.

## 539. Euskararen balioa eta globalizazioa (URR-062/024)

Euskara zer den berarentzat. Kanpoan ibili ondoren are gehiago baloratzen du. Globalizazioa gure alde jarri behar dugu euskara plazaratzeko.

## 540. Sare sozialetako hizkuntza politika (URR-062/025)

Sare sozialetan euskara erabiltzeagatik izan ditu ika-mika batzuk. Orain 'Losers' antzezlana ari dira antzezten, euskaraz, eta horregatik euskaraz idazten ditu mezuak. 'Allí abajo' telesailari buruz, berriz, gaztelaniaz egitea agintzen dio logikak.

## 541. Hizkuntza politizatzea (URR-062/026)

Hizkuntza politizatzeko joerari buruz hitz egiten du, adibide bat jarriaz.

## 542. Chicagora joan zen ingelesa ikastera (URR-062/027)

Chicagon egon zen hilabetez, ingelesa ikasten. New York eta Los Angeles ere aipatzen ditu. Anekdota bat kontatzen du. Ingelesez film labur batean antzeztu du. Aitziber garmendia joan zen gero Chicagora.

## 543. Fikzioa eta euskaraz, bere lehentasunak (URR-062/028)

Aktore sentitzen da batez ere, aurkezle edo gidoigile baino gehiago. Fikzioa euskaraz egitea da bere lehentasuna. Entretenimenduko telebista bigarren tokian legoke. "Anti-aurkezleak" direla esaten dute Aitziber Garmendiak eta berak. Pertsonaiak egiten disfrutatzen dute gehien.

## 544. Egin ahala ikasi du antzezten (URR-062/029)

Aktore ikasketarik ez du egin: bizitzaren eskolan ikasi du antzezten, ekinaren ekinez. Badu asmoa geratu, eta antzerkigintzako tailerretara joateko. Praktikarekin asko ikasten da, antzezlanetan adibidez.

## 545. Bost urtean Sevillan, "Allí abajo" telesaila grabatzen (URR-062/030)

"Allí abajo" telesailean lanean asko ikasi zuen. Bost urte egin zituen Sevillan. Bere ustez, protagonista izateak erantzukizunetik gehiago dauka pribilegiotik baino.

## 546. Wazemank-en gidoilari (URR-062/032)

Wazemak telebista programan gidoilari moduan hasi zen lanean. Anjel Alkainekin aktore moduan lan egiteko aukera izan zuen geroago. Alkain euskal umoregintzan erreferentetzat dauka.

## 547. Zuzendari lanak; "Barre librea" programa (URR-062/033)

Zuzendari lanetran ere egon da ETB-1eko hainbat programatan. 'Barre librea' programan ere Aitziber Garmendia eta biak dira zuzendariak. Umorea egiteko duten moduaz hitz egiten du.

## 548. 'Allí abajo' telesailera nola iritsi zen (URR-062/034)

ETBn denetik egin behar izaten dute. Harritu egin zen 'Allí abajo' telesailean lanean hasi zenean, aktore lana "bakarrik" egin behar zuelako. Oscal Terolek eman zion albistea. Casting-ean jende askok hartu zuen parte. Nolatan joan zen azaltzen du. María León aktorea ezagutzeak ilusioa egiten zion.

## 549. 'Famatuak' eta 'ezagunak' (URR-062/036)

Ez du uste 'famatua' denik. Ezaguna egitea kiroltasunez hartu behar duela dio. Bizitza ez zaio erradikalki aldatu. Herrian jendeak ezagutzea arraroa egiten zaio.

## 550. Esperientzia ederra Sevillan (URR-062/037)

Bost urtean Sevillan izandako esperientzia ederra izan zela dio. Bere aitak Cadizen egin zuen soldaduska, eta gustuko tokia da etxeko guztientzat. Hango umorea asko gustatzen zaio.

## 551. Mugarriak bere ibilbidean (URR-062/039)

Bere ibilbideko mugarriak aipatzen ditu: "Kuxkuxeroak", "Europa euskaraz", "Wazemank", "Kontrako eztarria" eta "Barre librea". Fikzioan "Allí abajo" aukeratuko luke. Orain "Madres" telesailarekin dabil. Lan gutxi egin du zineman. "Que nadie se mueva" eta "Losers" antzezlanak.

## 552. Aitziber Garmendiarekin duen laguntasuna (URR-062/040)

Aitziber Garmendia "Finlandia" programan ezagutu zuen gertutik, eta ordutik oso lagunak dira. "Kontrako eztarria" programan koinziditu zuten.

## 553. "Losers" antzezlana eta gizarteko patroiak; COVID-19 (URR-062/041)

'Losers' antzezlanari buruz hitz egiten du, gizarteak markatzen duen ardatzetik kanpo bizitzeari buruzkoa. COVID-19aren garaian argi geratu omen da gizarte sumisoa eta iniziatiba gabea bihurtu garela.

## 554. Sare sozialen papera gizartean (URR-062/042)

Sare sozialen papera gizartean, neurri gabeko indarra. Aurreko belaunaldien ikuspegia. "Black mirror" telesaileko gertaeretatik gero eta gertuago gaude.

## 555. Sare sozialen papera gizartean II (URR-062/043)

"Second life" edo bigarren bizitza bat erakusten da sare sozialetan, lehenengo bizitza zaindu gabe. Sare sozialetan oso modan jarri da umorea zentsuratzea.

## 556. Umorea egitea ez da erraza eta "gauza serioa" da (URR-062/044)

Umorea egitea ez da erraza, eta beti minduko du baten bat. Umorea prozesu moduan hartu beharko litzateke. Komedia "alaba txikia" da, publiko orokorrarentzat balio duena, baina ez 'adituentzat'.

## 557. Euskal umorea eta umore unibertsala (URR-062/045)

Euskal umorea eta euskaldunek egindako umorea. Umore unibertsala. Euskara da desberdintzen gaituena, gure berezitasuna. Euskaraz egindako umoregintzak osasun ona daukala dio: txisteak eta mee-ak euskaraz.

## 558. Batua eta euskalkiak umoregintzan (URR-062/046)

"Barre librea" programan euskalkien aldeko apustua egin dute bereziki. Garai batean naturaltasun falta sumatzen zuen telebistako umorean. "Wazemank"-ek bide bat ireki zuela uste du. Hori bai, batua ere izan daiteke kolokiala.

Euskalkiak altxor handia dira. Antzerkigintzan euskalkiek kolorea ematen diete pertsonaiei.

### 559. Euskal zinemagintza, kalitatezkoa (URR-062/049)

Euskal zinemagintzan oso lan onak ekoiztu dira betidanik, baina orain ari dira errekonozimendua jasotzen. "Aupa Etxebeste", "Kutsidazu bidea Ixabel" eta "Erlauntza" aipatzen ditu, eta Moriartiren lanak.

### 560. Aholkuak aktore izan nahi duten gazteentzat (URR-062/050)

Gustatu ezkero aurrera jarraitzeko esango lieke aktore izan nahi duten gazteei.

### 561. Familia Urretxura nola iritsi zen (URR-063/002)

Urretxun jaio zen Jon. Ama Extremaduratik etorri zen eta aita Zamoratik. Ama 4 urterekin iritsi zen Urretxura, familia guztiarekin. Igartzako baserri abandonatu batean egon ziren bizitzen lehendabizi, geroago Etxeberri auzora joan ziren; bertan auzokide gehienak etorkinak ziren. Aita berriz 16 urterekin etorri zen Zumarragara, anaia batekin, eta Orbegozon hasi zen lanean. Anaiak inprenta bat jarri zuen. Beste anai-arrebak ere Euskal Herrira etorri ziren, gurasoak Zamoran geratu ziren. Jatorrizko herrietan ez zegoen lan askorik, Euskal Herria berriz momentu horretan industrializazio betean zegoen, Orbegozo eta Patricio Echeverria bezalako lantegi handiekin. Gerraren eragina jasandako familia zen Jonena, eta beldur horrek ere bultzatu zituen alde egitera.

### 562. Etorkin uholdea (URR-063/003)

50-60 hamarkadetan, 2.000 biztanle inguru izatetik 12.000 izatera pasa zen Zumarraga. Trena faktore garrantzitsua izan zen, ondo komunikatuta baitzegoen. 4 biztanletik bakarra zen bertakoa, uholde modukoa izan zen. Etorkinen bizitza kasuala.

### 563. Etorkinen "guettoak" (URR-063/004)

Etxeberri auzoan gehienbat etorkinak bizi ziren. Ghetto modukoa zen, Francoren garaian eginiko etxeekin. Nola izendatzen zituzten: "Casa baratas", "Mundo mejor", "Manchurria", "Poblado", "Catanga"... Herrien kanpoaldean egoten ziren langile auzoak ziren. Integrazioa asko zailtzen zuen. Gainera diktadura garaia zen, euskal hizkuntza eta kultura zapalduak zeuden. Klasismo askoko garaia ere bazen. Asko txaboletan ere bizi ziren, bere aitona adibidez. Lurrari oso lotuta jendea zen. Askok ez zuten jasaten lantegietako esplotazio bortitza eta jatorrizko herrira bueltatzen ziren.

### 564. Euskara ikasteko aitaren ahalegin handia (URR-063/007)

Umetan ikastolara joan zen eta beraz euskaraz egin zituen ikasketak. Baina hortik kanpo gazteleraz bizi zen. Kalean asko ziren etorkinen seme-alabak eta gazteleraz egiten zuten; etxean ere gazteleraz egiten zuten, batez ere amarekin. Aitak Jon jaio aurretik euskara ikasi zuen. Langile mugimenduan hasi eta abertzale giroan murgildu zen aita, eta hortik etorri zitzaion euskararekiko kontzientzia. Amaren aldetik berriz errepublikanoak ziren eta hona etorritakoan "zapaldutako bandoan" kokatu ziren, euskaldunenean. Garai hartako giroan euskara ikasteko aitaren ahalegina handia izan zen. Gau

eskoletan ibili zen. Etorkin askok euskalduntasuna borroka politikoaren bitartez deskubritu zuten.

### 565. Bi Euskal Herri (URR-063/008)

Bertako askok kanpokoa mehatxu gisa ikusi izan du. Aurreiritzi asko egon dira bi aldeetatik. Oraindik banaketa horrek irauten duela uste du, batez ere politikoki. Kanpotarrak izendatzeko hitzak. Garai hartako eta gaur eguneko inmigrazioan gauza batzuk errepikatu egiten dira, batez ere klasismoa.

### 566. Zumaian nortasun gatazkaren hasiera (URR-063/011)

Umea zela Urretxutik Zumaiara aldatu zuten bizilekua. Zumaian ez zegoen hainbeste etorkin, herri euskaldunagoa zen, ikastolan hitanoa erabiltzen zuten... Han hasi zen Jonen nortasun gatazka. Bere familia nondik datorren eta zer egin duen ulertu behar izan du bere burua onartzeko eta lotsatu ordez harro sentitzeko.

### 567. Bere identitatearekin adiskidetzen (URR-063/014)

25 urte ingururekin hasi zen bere identitatearekin adiskidetzen.1997an Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusirako klasifikatu zen eta hori prestatzen ari zela, Bertolt Brecht-en hausnarketa bat irakurri zuen. Orduan lehen aldiz bere familia etorkin bezala ikusi zuen.

### 568. Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean (URR-063/015)

1997ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean sartzea oso garrantzitsua izan zen Jonentzat. Bertan botatako azken agurrak, bere familiari izandako integrazioa eskertuz, oihartzuna izan zuen. Bertsoa kantatzen du. Momentu hori inflexio puntu bat izan zen. Etorkinen gaiarekin lotutako lanak, hitzaldiak... etorri ziren gero. "Riomundo" nobelan bere familiaren historia kontatzen du.

### 569. Euskara, integraziorako bidea (URR-063/016)

Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen. Bere ibilbide guztia dago euskarari lotua. Euskarari dena zor diola sentitzen du. Integraziorako bidea dela pentsatzen du. Euskaldunok etorkinen harreran lehen lerroan egon beharko ginatekeela uste du. Integrazio politiketan euskara ez da oso kontutan hartzen.

### 570. Euskal Herriaren irudi estereotipatua (URR-063/017)

Euskaldunen migrazioak aztertu izan ditu Jonek. Euskal Herriari buruz eraikitako irudia ez dela erreala uste du. Historikoki herri irekia izan gara, itsasoaren bitartez batez ere.

### 571. Euskaldunak ere emigranteak (URR-063/018)

Euskaldunak ere emigranteak izan gara eta garrantzitsua da gure historia jakitea. Ezagutza hori izango bagenu, gaur egungo etorkinak hobeto hartuko genituzke.

### 572. Jonen hitzaldien harrera ona (URR-063/019)

Ikastetxe edo elkarteetan hitzaldiak eman izan dituenean harrera beti oso hunkigarria eta esker onekoa izan da. Nahiz eta gehienek ez duten euskara ikasi, oso harro daude beraien bilobek ikasi dutelako.

### 573. "Karidadeko Benta" (URR-063/020)

2003an "Karidadeko Benta" musika taldea sortu zuen. Bertsoa zegoen oinarri moduan. Doinuak beste lurralde batzuetatik hartzen zituzten, batez ere Mediterraneo aldekoak. Letretan ere ikusten da kultur aniztasuna.

### 574. "Hezur Beltzak" (URR-063/021)

"Hezur Beltzak" musika taldea ikuskizun batetik sortu zuen Jonek. Bertan ezagutu zituen Gorka Hermosa eta Jesus Prieto 'Pitti'. "Hezur beltzak" izena nondik datorren. Kanpotarrei deitzeko beste modu batzuk.

### 575. Lorca eta Lauaxeta (URR-063/022)

Lorca eta Lauaxetaren arteko lotura. Lauaxetak Lorca miresten zuen eta bere poemak euskaratu zituen. Frankismoan fusilatu zuten. Lorca berriz andaluziarra eta republikanoa zen, fusilatu egin zuten baita ere. Antzekotasunak.

### 576. "Abuelari" olioa (URR-063/024)

Eltziegoko "Abuelari" olioaren aitabitxia izateko proposamena egin zioten. Kontzeptua, izena, eta abar aukeratzen utzi zioten. Bere amonaren familiari olibondoak kendu zizkiotela gogoratu zen eta polita iruditu zitzaion "omenaldi" hori egitea.

### 577. "Kantu bat gara" proiektua (URR-063/026)

"Kantu bat gara" proiektuan berak egindako kanten letrak bildu nahi izan zituen. Liburua, diskoa eta kontzertuak sortu dira hortik.

### 578. "Gazta zati bat" dokumentala (URR-063/027)

"Gazta zati bat" dokumentalean euskal gatazka desberdin tratatzen zen lehen aldiz. Erabakitze eskubidearen gaia denon artean berdintasunean jorratu beharraz hitz egiten zuen.

### 579. Euskarak nolatan biziraun duen (URR-063/029)

Euskarak biziraun du batzuetan borrokatzeagatik eta bestetan elkarbizitzen jakiteagatik. Garai bakoitzera egokitzen jakin du. Herriak mantendu du bizirik. Hala ere, etorkizunerako erabaki handiak hartu beharra dagoela uste du, pedagogiarekin eta legeekin.

### 580. Euskararen "basamortua" (URR-063/030)

Euskararen ezagutza handituz joan da baina erabileran hutsune asko daude, "basamortu" bat dago aisialdian. Pedagogia handia egin behar dela uste du eta hizkuntza politiketan erabaki sendoak hartu.

### 581. Urretxu eta Zumarraga (URR-064/002)

Sei urterekin Urretxutik Zumarragara joan zen bizitzera. "Bihotz bakar herri", Urretxu-Zumarragari buruz.

### 582. Gerraostean, Extremaduratik Valladolidera eta handik Antzuolara (URR-064/004)

Gorka Hermosak, bere amaren gurasoak Extremaduratik Urretxu-Zumarragaran nola heldu ziren kontatzen du.

## 583. Aiton-amonak, Euskal Herrira oso ondo moldatuak (URR-064/005)

Urretxun bizitzera ondo moldatu ziren, batez ere gerraostean Extremaduran eta Valladoliden klaseen arteko ezberdintasun handia zegoelako eta Euskal Herrian ez. Aitona Antzuolan oso ondo sentitzen zen, lagun euskaldunak zituen...

## 584. Aita Segoviatik Euskal Herrira nola heldu zen (URR-064/007)

Aita, Segoviatik Euskal Herrira 13 urterekin zumarragara lanera nola heldu zen kontatzen du.

## 585. Seme-alabak euskaldun bezala heztea; Ikastola (URR-064/008)

Gorkaren amaren arrazoiak, seme-alabak euskaldun bezala hezitzeko. Ikastolei buruzko ikuspegia.

## 586. Eskoletan industriako immigrazioarekin sortutako "txoke kultural"-a (URR-064/009)

Eskoletan industriako immigrazioarekin sortutako "txoke kultural"-ari buruz hitz egiten du Gorkak. Gurasoak euskaldunak ez ziren eta baserritarrak ziren ikasleek, arrazakeria mota antzekoa jasaten zuten besteengandik: batzuek kanpotarrak zirelako eta besteak ez zekitelako ondo gazteleraz.

## 587. Abizen erdalduna izateagatik burlak jasotzea (URR-064/010)

Gorka da guraso kanpotarrak dituen bere kuadrilako bakarra. Umetan, abizenagatik burlak jasotzen zituzten.

## 588. Ikastolan, hizkuntzagatik banatuak (URR-064/011)

7-8 urte zituen arte ez zen oso ongi moldatzen euskaraz hitz egitera. Ikastolan, euskaldunak ziren ikasleak besteengandik banatuak zeuden eta besteak euskaraz trebatzen ziren heinean, beste gelara pasatzen zituzten.

## 589. Gaztelera, bihurri eta "makarren" hizkuntza (URR-064/012)

Etxeko sukaldeko giroa eta musika gaztelerarekin identifikatzen ditu eta ikastolako garaia euskararekin. Ikastolako lagunen artean euskaraz hitz egiten zuten baina 14-15 urterekin gazteleraz hitz egiten hasi ziren, bihurri eta "makarren" hizkuntza zelako. Urte batzuetara kontzientzia politikoa hartu zuten eta euskaraz bakarrik hitz egiten dute gaur egunera arte.

## 590. Musika klasikotik punkera (URR-064/013)

Musika ikasten 8 urterekin hasi zen eta hasieran musika klasikoa entzuten zuen umetan eta gero punkia. Akordeoia jo arren, ez zuen musika herrikoia jo nahi eta beti musika bere gustuetara moldatu du.

### 591. Akordeoia aukeratu zuen musikatresna bezala (URR-064/014)

Musikagintzan nola hasi zen. Arpa aukeratu nahi zuen tresna bezala baina ez zegoenez, akordeoia aukeratu zuen.

### 592. Euskal folkloreak eta punkiak garrantzia handia du bere musikan (URR-064/015)

Musika munduan, minoria baten barruan bizi izan dela sentitzen du. Euskal folkloreak eta punkiak pisu handia du bere musikan.

### 593. Politika eta herri-nortasuna (URR-064/016)

Politika eta herri-nortasunaz hitz egiten du.

### 594. Hizkuntzaren arkeologian, euskara altxor bat da (URR-064/017)

Kantabrian bizi arren, alabei euskaraz hitz egiten die. Euskararen ezberdintasuna beste hizkuntzekin alderatuta. Altxor bat da.

### 595. Euskaldunak, ijitoak eta juduak (URR-064/018)

Euskara daukanak, euskalduna da. Euskaldun, ijito eta juduak berdintasunak.

### 596. Euskalduna eta "el pueblo"-koa (URR-064/019)

Gurasoen jatorrizko herriekin kontaktu oso zuzena du. Kuadrila du han ere. Hangoa dela ere sentitzen du.

### 597. Aiton-amonen ohiturak (URR-064/020)

Aiton-amonen herriko ohiturak mantendu dituzte: hitz egiteko era, esamoldeak, gastronomia, izakera... Hegoaldeko jendea irekiagoa da.

### 598. Gurasoek euskara ikasteko zailtasunak (URR-064/023)

Gaztetan, gurasoei euskaraz ez ikastea leporatzen zien baina ulertzen du orduko egoerako baldintzak ez zirela gaur egunekoak. Orain konturatzen da nahiz eta euskaraz ez ikasi, esfortzu asko egin zutela ere seme-alabak euskalduntzeko.

### 599. Gurasoen esfortzua seme-alabak euskalduntzeko (URR-064/024)

Gurasoek esfortzu handia egin zuten Gorka eta bere arreba ikastolan sartzeko eta euskalduntzeko. Beste herrialde batera doan edozein saiatu beharko litzake hango hizkuntza ikasten.

### 600. Euskal musikariekin harremana (URR-064/026)

Euskara, koadrilarekin erabiltzen du beti. Bidaiatzen hasi zenean ez zen herrira horrenbeste joaten eta bere proiektuak euskal munduarekin lotzeko beharra izan zuen. Jon Maiarekin harremana.

### 601. Hezurbeltzak proiektuaren sorrera (URR-064/027)

Jon Maia, Jesus Prieto "Pitti" eta Gorka Hermosak sortutako proiektua da Hezurbeltzak.

## 602. Hezurbeltzak proiektuaren indarra (URR-064/028)

Jesus Prieto "Pitti" eta Jon Maiari buruz hitz egiten du. Proiektuaren izenaren jatorria, Euskal Herrira kanpotik etorritakoei deitzen zieten ezizenetatik (hezurbeltzak, koreano, maketo, belarri motzak...) hartuta dago. Proiektuak pisu handia izan du Gorkaren bizitzan.

## 603. Musikari famatua (URR-064/037)

Zelanda Berriko mutil batek bere pieza bat ikusi zuen eta partiturak eskatu zizkion lehiaketa batzuetan parte hartzeko eta guztiak irabazi zituen. Ondoren, epaimahaikideak haien jatorrizko herrietara gonbidatzen hasi ziren Gorka.

## 604. Bere piezak interneten daude eskuragai (URR-064/038)

Gorkak berak sortutako piezak libreki jarri ditu interneten eta mundu osoko musika-eskoletan erabiltzen dira.

## 605. Gorka Hermosa musika-eskola Italian (URR-064/039)

Italian, bere izena daraman musika-eskola bat dago

## 606. Hizkuntza marrokiarra eta arabiarraren ezberdintasunak (URR-065/002)

Khalila Marokoko Fraita herritik Markinara bizitzera joan zen familiara txikia zenean. Euskara, gaztelera, marrokiarra eta arabiarra hitz egiten ditu. Arabiera, hizkuntza estandarizatu bat da. Gurasoekin eta senarrarekin marrokierraz hitz egiten du, eta anai-arrebekin gazteleraz

## 607. Bere aita, Marokotik Euskal Herrira (URR-065/003)

80. hamarkada amaieran, Khalilaren aita Euskal Herrira etorri zen lanera. Garai hartan ia ez zegoen etorkin marrokiarrik ez eta gaur egungo laguntza edo erreztasunik. Urte batzuen ostean, familia ekarri zuen. Khalilak 3 urte zituen. Aita hasieran Ordizin bizi bazen ere, Markinan finkatu zuen etxebizitza, familia ekartzeko.

## 608. Alfonbrak saltzen: etxez-etxe, merkatuan eta dendak (URR-065/004)

Khalilaren aita Euskal Herrira heldu zenean, ez zegoen lan askorik eta galtzerdiak erosi eta saltzen hasi zen, etxez-etxe, tabernaz-taberna... Gero alfonbrak saltzen hasi zen. Familia ekarri zuenerako, merkatu batzuetan alfonbrak saltzen zituen eta gerora, denda batzuk ireki zituen.

## 609. Markinako lehenengo famila etorkina (URR-065/005)

Zazpi anai-arreba dira, haietatik bi txikienak Euskal Herrian jaioak. Oporretan Marokora joaten ziren. Markinara heldu zirenean, Khalilaren familia eta beste familia bat ziren etorkin bakarrak eta oso ondo hartuak izan ziren. Bizilagunen laguntza handia jaso dute beti.

## 610. Euskararen garrantzia etorkina izanda edo ez (URR-065/006)

Anai-arreba nagusiek A ereduan ikasi zuten eta gainontzekoek D ereduan. Euskaraz jakitea abantaila bat dela uste du Khalilak. Euskararekiko duen ikuspegia azaltzen du.

## 611. Euskal identitatearekin identifikatua (URR-065/007)

Khalila, euskalduna sentitzen da baina batzuetan kanpotarra dela sentiarazten dute. Euskal identitatearekin identifikatzen da. Euskara, gaztelera eta marokierra modu naturalean ikasi ditu.

## 612. Euskal Herriko herri ezberdinetan bizitzen (URR-065/009)

Markinan, Durangon, Eibarren, Ordizian, Lazkaon, Urretxun eta Zumarragan bizi izan da. Ez zuen familiako negozioarekin jarraitu nahi eta haur hezkuntzako goi zikloa ikasi zuen Ordizian.

## 613. Kanpotarra eta euskalduna izatearen "arazoa" (URR-065/010)

Zumarraga eta Urretxun ez da horrenbeste euskara entzuten kalean. Khalila euskaraz egiten du baina batzuetan bere burua mugatzen du, pertsona batzuk ez direlako ongi sentitzen berak euskaraz dakielako eta haiek ez.

## 614. Lehenengo hitza euskaraz, aurreiritziak apurtzeko (URR-065/012)

Buruan zapia eramatea bandera bat eramatea bezalakoa da eta horrek aurreiritziak sortzen ditu., nahiz eta hitz egiten hasi orduko aldendu. Lehenengo hitza euskaraz egitea asko lagundtzen dio hasierako aurreiritziekin apurtzeko.

## 615. Bihotzean herrialde bakoitzeko zati bat (URR-065/013)

Etorkinen eta bertakoen arteko elkarbizitza aurreratu dela uste du Khalilak. Askotan, "kanpotar" bezala azaltzen du bere burua, baina bera ez da horrela sentitzen.

## 616. Ramadan-a, purifikazio hilabete bat (URR-065/015)

Euskal Herriko eta Marokoko festak eta ohiturak ospatzen dituzte. Marokoko jaiak erlijioarekin lotuta daude. Ramadan-a zer den azaltzen du. Purifikazio hilabete bat da, bizitzan zerbait aldatzeko: besteei lagundu, elikaduran hobetu...

## 617. Ohitura marokiarrak: errezuak, arkumearen jaia, halal elikagaiak... (URR-065/016)

Bost aldiz errezatzen dute musulmanek. Meka-ra begira errezatzen dute, alfonbra baten gainean. Arkumearen jaia ere ospatzen dute. Halal elikagaiak. "Halal" hitzak onuragarria esan nahi du.

## 618. Zapia eramaten hasteagatik lanean baztertua (URR-065/018)

Ez du beti zapia eraman eta ipini zuenean, arazoak izan zituen lana aurkitzeko. Aurretik lan egindako denda batean ez zioten lana eman, nahiz eta langileak behar zituzten. Orain ospitalean lan egiten du eta ez du inoiz arazorik izan.

## 619. Islamofobia eta txiroen aurkako arrazakeria (URR-065/019)

Etorkinen jatorriaren araberagatik baino, erlijioagatik arrazakeria gehiago edo gutxiago dagoela uste du. Musulmanen aurkako arrazakeria handiagoa izan da. Txiroen kontrako arrazakeria leku guztietan dago.

## 620. Bizikidetza ekimenak (URR-065/020)

Familiarekin parte hartu du herrian antolatutako auzotarren arteko afarietan. Bizikidetzako ekimen gehiago behar dira.

## 621. Hitz batzuk marokiarrez (URR-065/023)

Hitz batzuk marokiarrez

## 622. Koronabirusa dela eta, gurasoak ezi ikusi (URR-065/024)

Khalilaren gurasoak Marokora bueltatu ziren anai txikienarekin. Faltan botatzen ditu eta koronabirusarekin ezin izan zidra ikusi.

## 623. Seme-alaba euskaldunak (URR-065/025)

Khalilaren seme-alabek euskaraz ikasten dute eta lagunak euskaldunak dituzte. Etxean, saiatzen da haurrei euskaraz egiten. Jolasak, lo kantak... euskaraz egiten ditu.

## 624. Integratzea ez da jatorrizko herrialdeaz arnegatzea (URR-065/028)

Integrazioa era natural batean egin beharko litzake gizartean onartuak izateko. Etorkinek lan asko egiten dute integratzeko. Integratzea ez da jatorrizko herrialdeaz arnegatzea.

## 625. Korrikaren lekukoa eramaten (URR-065/031)

Markinan bizi zirenean, Korrika pasa zeneko argazki bat erakusten du. Lekukoa eraman zuen eta ilusio handia egin zion.

## 626. Korrikaren lekukoa eramaten (URR-065/034)

Markinan bizi zirenean, Korrika pasa zeneko argazki bat erakusten du. Lekukoa eraman zuen eta ilusio handia egin zion.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-11-02*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com